




EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA
evaluación diagnóstica

2010

EMAITZEN TXOSTEN OROKORRA ETA ALDAGAIEN ANALISIA

DERRIGORREZKO BIGARREN
HEZKUNTZAKO 2. MAILA



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA


EUSKO JAURLARITZA

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA-GAILA



GOBIERNO VASCO

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACION



ISEI·IVEI

IRAKAS-SISTEMA EBALUATU
ETA IKERTZEKO ERAKUNDEA
INSTITUTO VASCO DE EVALUACIÓN
E INVESTIGACIÓN EDUCATIVA

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERTZETA GAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

Egilea:

(ISEI-IVEI)

Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundea

Asturias, 9 3. – 48015 BILBO

info@isei-ivei.net - www.isei-ivei.net

Txostena egin dutenak:

Araceli Angulo Vargas

Alicia Sainz Martínez

**Aholkularitza eta
gainbegiratzea:**

José Luis Tranche García

Eduardo Ubieta Muñuzuri

2011ko urtarrila

AURKIBIDEA

1. SARRERA.....	5
a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak.	5
b) Txostenaren helburua.....	6
c) Txostenaren edukia	6
2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA.....	7
a) Aplikazio-prozesua	7
b) Populazioaren deskribapena	7
c) Probako hizkuntza.....	11
d) Errendimendu-proben deskribapena	12
e) Ezarritako kompetentzia mailak.....	13
f) Ikaslearen galdera-sortak.....	14
g) Ikaslearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK)	14
3. DBHko 2. MAILAKO IKASLEEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK.....	17
3.A. EBALUATUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIEN EMAITZEN ANALISIA	17
1. EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA	19
• Emaizta orokorrak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian	20
• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera.....	21
• Emaiztak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua).....	25
• Emaiztak dimentsioen eta geruzen arabera	26
• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako emaitzak hizkuntza-ereduen arabera.	27
• Emaiztak etxeko hizkuntzaren arabera.....	28
• Emaiztak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	30
• ED2009 eta ED2010 ebaluazioetan euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera	33
• Euskarazko hizkuntza-komunikazioaren konpetentziako emaitzen ondorioak.....	36
2. GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIA.....	38
• Emaizta orokorrak Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian	39
• Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera	40
• Emaiztak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua).....	42
• Emaiztak dimentsioen eta geruzen arabera	44
• Emaiztak etxeko hizkuntzaren arabera.....	45
• Emaiztak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	46
• Emaizten eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa	47
• ED2009 eta ED2010 ebaluazioetan gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzen bilakaera	48
• Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioaren konpetentziako emaitzen ondorioak	50
3. MATEMATIKARAKO KONPETENTZIA	52
• Matematikarako konpetentziako batez besteko emaitzak	52
• Emaiztak Matematikarako konpetentziako dimentsioen arabera	54
• Emaiztak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua).....	55

•	Emaitzak Matematikarako kompetentziako dimentsioen eta geruzen arabera	57
•	Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.....	58
•	Emaitzak ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera	62
•	Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa.....	63
•	Matematikarako kompetentziako emaitzen bilakaera ED2009 eta Ed2010 ebaluazioetan.....	64
•	Matematikarako kompetentziako emaitzen ondorioak	66
4.	GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIA	68
•	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako emaitza orokorrak	68
•	Emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako dimentsioen arabera	70
•	Emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua).....	72
•	Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera	73
•	Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera.....	74
•	Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).....	78
•	Lortutako emaitzen eta ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa	79
•	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren emaitzen ondorioak.	81
3.B.	GERUZEN EMAITZAK ETA EZAUGARRIAK INDIZE SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALAREN ARABERA (ISEK) .83	
1.	A EREDUKO GERUZA PUBLIKOA	87
2.	B EREDUKO GERUZA PUBLIKOA	89
3.	D EREDUKO GERUZA PUBLIKOA	91
4.	A EREDUKO ITUNPEKO GERUZA.....	93
5.	B EREDUKO ITUNPEKO GERUZA.....	95
6.	D EREDUKO ITUNPEKO GERUZA.....	97
4.	IKASLEEN EMAITZETAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIEN AZTERKETA	99
4.1.	Ikasleen sexua	103
4.2.	Dagokion ikasmilan egotea	105
4.3.	Gurasoen ikasketa maila	108
4.4.	DBHko 2. mailako ikasleen familia egitura	111
4.5.	Ikasleen eskolatzearen hasiera adina	113
4.6.	Ebaluazio diagnostikoko emaitzen eta ikasgelan matematikan izandako kalifikazioen arteko korrelazioa	116
4.7.	Familia jatorria: jatorriz atzerritarra den ikasleak	122
4.8.	HEEP Programa egiten ari diren DBHko 2.mailako ikasleak	126
4.9.	Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleen deskribapenen azterketa	129
5.	IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA.....	133
5.1.	Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak	135
5.2.	Eraginkorrak diren eta hain eraginkorrak ez diren ikastetxeak	138
5.3.	Emaitzen eraginkortasuna. ED09 eta ED10 ebaluazioetako emaitzen aldaketa	141
6.	2010eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO OROKORRAK	143
7.	ERANSKINA. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	145

1. SARRERA

Hezkuntzaren 2006ko maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoak (LOE) eta 175/2006 Dekretuak (2010eko martxoaren 30eko 97/2010 Dekretuak aldatu zuen), Euskal Autonomia Erkidegorako Oinarrizko Hezkuntzaren curriculuma ezartzen duenak, honako hau xedatzen dute: Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek, funts publikoen bidez lagundutako ikastetxeetan eskolatutakoek, oinarrizko konpetentzien ebaluazio diagnostikoa egin behar dute.

Arau hori betez, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila 2008-09 ikasturtean hasi zen Ebaluazio diagnostikoa lehen aldiz aplikatzen eta joan den ikasturtean jarraitu zuen, 2010. urteari zegokion bigarren aplikazioarekin. Sailaren hiru zerbitzuek, hau da, Irakas-sistema Ebaluatu eta Ikertzeko Erakundeak (ISEI-IVEI), Hezkuntza Ikuskaritzak eta irakasleei laguntza emateko zerbitzuak (*Berritzegune*) elkarrekin garatutako ebaluazioa da.

Ez dago kontzeptuaren onarpen unibertsalik; hala ere, konpetentzia garrantzitsutzat, beharrezkotzat edo oinarrizkotzat hartu ohi dira edonorentzat eta gizartearentzat beharrezkoak eta onak direnak; beharrezko konpetentzia horiek "*gizarteko kide aktibo gisa bizitza egokia eduki ahal izateko banako guztien beharrezko ezagutzen, trebezien eta jarrerren multzo*" gisa ulertzeko adostasun komuna dago.

Ikuspegi honetatik, alor edo jarduera batean trebea izateak alor horrekin lotutako egoera eta arazo jakin batzuei aurre egin ahal izateko ezagutza garrantzitsuak aktibatze eta erabiltzeko gai izatea esan nahi du. Hau da, ezagutzez gain, hauek egiteko gaitasuna duela esan nahi du: eskuratutako ikaskuntzak modu fidagarrian aukeratzeko eta aplikatzeko, egoera zehatzetan erabiltzeko eta bere esperientzia pertsonaletik eta heziketa-esperientziatik hurbil dauden egoeretan eta testuinguruan arazoak ebazteko.

Ebaluazio diagnostikoaren aurtengo edizioan (ED-2010), 2009ko edizioan ebaluatutako hiru oinarrizko konpetentziez gain, lehen aldiz, *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia* sartu da; horrek 2008-2009 ikasturtean egindako *Zientziaren, teknologiaren eta osasunaren inguruko kulturako konpetentziaren* ebaluazioa ordezkatu du.

a) Ebaluazio diagnostikoaren helburuak eta ezaugarriak.

Ikastetxetik **kanpoko ebaluazioa** da, eta horren ardura Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari dagokio.

Luzetarako ebaluazioa da eta ikasleen multzo beraren informazioa eskaintzen du derrigorrezko eskolatzeko-aldiko bi mailatan: Lehen Hezkuntzako 4. mailan, eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan. Horri esker, irakasleek ikasle bakoitzak bi momentu jakinetan izandako bilakaerari buruzko datuak eskura ditzakete: Lehen Hezkuntzaren 2. zikloa amaitzean eta DBHko bigarren maila amaitzean.

Errolda mailako ebaluazioa da; bertan, funts publikoekin mantendutako Euskadiko ikastetxe guztietan aipatutako mailetan eskolatutako ikasle guztiek parte hartzen dute.

Helburu orokorrak:

- Ikastetxeak bizitzarako zenbat prestatzen duen baloratzea eta ikasleak gizarte modernoko biztanle gisa duten betebeharra beren gain hartzeko zenbateraino prestatua dauden baloratzea.
- Ikastetxeei hezkuntza-jarduera hobetzen laguntzea.
- Administrazioari hezkuntza-politika bideratzeko informazio baliagarria ematea.

Helburu zehatzak:

- Oinarrizko kompetentzien ebaluazioaren bidez, Lehen Hezkuntzako 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleen hezkuntza-helburuen lorpen maila ezagutzea eta baloratzea.
- Hezkuntza-prozesuekin lotutako faktoreak eta aldagaiak, eta oinarrizko kompetentzien lorpenean eta garapenean eragiten duten testuinguruko faktoreak aztertzea.
- Ikastetxeei ikasleen arreta hobetzera eta egokiak diren oinarrizko kompetentziak lortzea bermatzera, eta hala baldin badagokio, aurreko ikasturteetan egindako jarduerak baloratu eta birbideratzera zuzendutako beharrezko neurriak eta programak antolatzeke balio duten informazio garrantzitsua eskaintzea.
- Ikastetxeetan gogoeta eta hobetze prozesuak sustatzea, betiere, beren antolaketa-eremuen, funtzionamenduaren eta emaitzen hobekuntzan erantzukizunak baloratu eta aitortu ditzaten.
- Euskadiko hezkuntza-administrazioari beharrezko informazioa, objektiboa eta garrantzitsua eskaintzea hezkuntza-sistemaren kalitatea hobetzera zuzendutako erabakiak hartu ahal izateko.
- Familiei seme-alabaren kompetentzien lorpen mailaren inguruko informazio garrantzitsua ematea, motibatzeke eta hobekuntza errazteke helburuarekin.
- Hezkuntza komunitateko kide guztien eta Euskadiko ikasleen errendimendua hobetzeko Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren babesteko zerbitzuen ahaleginen lankidetzara eta integrazioa bultzatzea.

Ikastetxeetako emaitzen informazioak hiru zehaztapen maila ditu: **ikastetxearen datu orokorrak** ebaluatutako bi maila horietako bakoitzean, hezkuntza maila bakoitza osatzen duten **taldeen** datuak eta talde bakoitzeko ikasle guztien **banakako** datuak. Familia bakoitzak, ikastetxearen bidez, seme-alaben inguruko banakako txostena jasoko du.

b) Txostenaren helburua

Txosten honen azken helburua ikastetxeetan, Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila osatzen duten talde bakoitzean lortutako emaitzei buruzko informazioa osatzea da. Azterketaren emaitzen azterketa zehatzagoa jarri nahi da ikastetxeen eskura, betiere, irakasleek, hezkuntza esku-hartzearan, HOBEKUNTZA neurriak ezarri ahal izateke beste datu batzuk izan ditzaten.

c) Txostenaren edukia

Txosten honek, ebaluatutako kompetentzietan, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan ikasleek lortutako emaitzen azterketa biltzen du, baita banakako edo testuinguruko zenbait aldagaik horietan duten eragina ere. Ebaluazio diagnostikoaren bigarren edizioa denez, egonkor mantentzen diren hiru kompetentzietan emaitzen bilakaera ikusteko aukera ematen duen konparaziozko azterketa ere egin daiteke.

Informazioa atal hauetan egituratzen da:

- Ebaluatutako oinarrizko kompetentzia bakoitzaren emaitzak.
 - Kompetentzia bakoitzaren batez besteko puntuazioa
 - Ikasleak kompetentzia mailen arabera banatzea
 - 2009 eta 2010. urteetako ebaluazioetan emaitzek izan duten bilakaera.
- Geruzen emaitzak eta ezaugarriak ISEKen arabera
- Emaitzetan eragin berezia duten aldagaien azterketa.
- Ikastetxeen emaitzen bilakaera
- Emaitzetako aldean azalpen-eredua

2. PROBEN ETA APLIKAZIO PROZESUAREN DESKRIBAPENA

a) Aplikazio-prozesua

➤ Proben aplikazio pilotua

Probetako item horiek konpetentzia bakoitzeko adituen taldek prestatu zituen eta ISEI-IVEI arduratu zen koordinazio-lanez. Item horiek, lehenik eta behin, behar adinako ordezkariak zuten ikasleen laginarekin probatu zituzten esperimendu moduan. Itemen gidaketa-probak aplikatu ziren egunetan egin zen.

Proba pilotu horretan itemen kalitatea egiaztatu zuten ikasleen jardueraren maila ugariak behar bezala neurtu ahal izateko; hau da, itemen zailtasun maila zein irekitako itemetako zuzenketa-irizpideen sendotasuna egiaztatu zituzten. Gidaketaren emaitzen bidez, behin betiko proban sartu ziren itemak aukeratu ahal izan ziren.

➤ 2010eko ebaluazioko aplikazio-prozesua

Aplikazioa, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, 2010eko martxoaren 8 eta 18 artean egin zen. Proben eta galdera sorten aplikazio-lanak ikastetxetik kanpoko langileek egin zituzten eta haien kalitate-kontrolaren ardura Hezkuntzako Ikuskaritzarena izan zen.

Ikastetxeetan probak bi egunez jarraian egin ziren eta egun bakoitzeko saioen iraupena guztira hiru ordu ingurukoa izan zen. Ikasleek, egun bakoitzean, bi errendimendu-probari erantzun zieten, eta konpetentzia baten eta hurrengoaren proben artean 20 minutuko atsedena egin zuten. *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzietako* bi probak egun ezberdinetan egin ziren. Horrez gain, egun horietako batean, ikasleek beren buruari, familiari eta eskolari buruzko galdera sorta osatu behar izan zuten.

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, konpetentzia-saio edo konpetentziaren neurketa bakoitzaren gehieneko denbora 75 minutukoa da.

Oinarrizko konpetentziak		DBHko 2. maila
Hizkuntza-konpetentzia	Euskara	75 minutu*
	Gaztelania	75 min.*
Matematikarako konpetentzia		55 min.
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia		55 min.

(*) Denbora-tarte horretan, hizkuntza-konpetentziako hiru alderdiei dagozkien probak egin zituzten: idatzizko ulermena eta idazmena, eta entzumena.

Hezkuntza maila bera osatzen zuten ikastetxeko talde guztiek probak egun, baldintza eta ordutegi beretan egin zituzten. Ikastetxe barruan ebaluaziorako euskarri gisa, zuzendaritza taldeak, ebaluazio diagnostikoaren Koordinazio Batzordearen bidez, aplikazioa garatzen lagundu eta erraztu zuten.

b) Populazioaren deskribapena

Euskadiko ebaluazio diagnostikoan, funts publikoekin mantendutako ikastetxeetan eskolatutako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasle guztiek parte hartu zuten (jabetza publikokoak eta itunpekoak). Ebaluatutako populazioa honela dago banatuta:

DBHko 2. maila	
Ikastetxe kopurua	333
Talde kopurua	858
Ikasle kopurua	18.021


➤ Ikastetxe kopurua

Jarraian ageri diren tauletan, ikastetxe kopurua ikus dezakegu ebaluazioan esku hartu zutenean zuten edo zituzten hizkuntza-ereduen arabera.

Ikastetxeak eta hizkuntza-ereduak					
DBHko 2. maila					
Eredu bakarra zuten ikastetxeak	%	2 eredu zituzten ikastetxeak	%	3 eredu zituzten ikastetxeak	%
227	68,2	95	28,5	11	3,3
Guztira: 333					

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeen % 68,2k (227 ikastetxe) hizkuntza-eredu bakarra zuten (A, B edo D); ikastetxeen % 28,5ek (95 ikastetxe) bi eredutan eskaintzen zuten hezkuntza (A eta B, edo A eta D, edo B eta D) eta 11 ikastetxek (% 3,3k) zituzten hiru hizkuntza-ereduak indarrean (A, B eta D).

1. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikastetxeak eta eredu kopurua. Ehunekoak




➤ Talde kopurua

Jarraian, DBHko 2. mailako ikastetxeetako ikastalde kopurua ageri da hizkuntza-ereduen arabera.

Hizkuntza-eredu bakoitzeko talde kopurua					
DBHko 2. maila					
A eredia	%	B eredia	%	D eredia	%
132	15,4	243	28,3	483	56,3
Guztira: 858					

2010eko ebaluazio diagnostikoan, DBHko 2. mailan, 132 talde zeuden A ereduan (talde guztiak kontuan hartuta, % 15,4); B ereduan, aldiz, 243 talde zeuden (maila horretan dauden talde guztien % 28,3) eta D eredua 483 taldek osatzen zuten (guztizkoaren % 56,3).

2. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikastaldeak hizkuntza-eredu bakoitzean. Ehunekoak.



➤ **Ikasleen banaketa hezkuntza-sarearen, hizkuntza-ereduaren eta geruzen arabera.**

Hurrengo taulan, DBHko 2. mailako ikasleek hezkuntza-sarean (publikoa edo itunpekoa) duten banaketa ageri da, baita geruzen eta hizkuntza-ereduen arabera duten banaketa ere.

DBHko 2. mailako ikasleen banaketa hezkuntza-sarearen arabera			
Sare publikoa		Itunpeko sarea	
Kopurua	%	Kopurua	%
8.333	46,2	9.688	53,8
Ikasleak, guztira: 18.021			

DBHko 2. mailako ikasleen banaketa hizkuntza-ereduaren arabera					
A eredua		B eredua		D eredua	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
2.904	16,1	5.210	28,9	9.907	55
Ikasleak, guztira: 18.021					

DBHko 2. mailako ikasleen banaketa geruzen arabera											
A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
1.004	5,56	1.056	5,9	6.273	34,8	1.900	10,5	4.154	23,1	3.634	20,2

Ikasleak, guztira: 18.021

(*) Ehunekoak ikasle guztiak kontuan hartuz kalkulatu dira

➤ Aplikazioan parte hartu zuten ikasleak

Jarraian, Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko 2. mailan matrikulatuta dauden ikasleen inguruko datuak biltzen dituzten taulak ageri dira; beste nolabait esanda, maila horietan 2010. urteko ebaluazio diagnostikoa egiteko zentsua osatu zuten ikasleak dira.

Zutabeetan ageri diren datuak ulertu ahal izateko, alderdi hauek zehaztuko ditugu:

- Ikasleak, guztira: maila bakoitzean matrikulatutako ikasleen kopurua zehazten du. Datu horiek ikastetxeetako zuzendaritzek eman zituzten. (1. zutabea).
- Puntuazioan bilduta dauden ikasleak: printzipioz probak egiteko betebeharrak guztiak betetzen zituzten ikasleak dira. (2. zutabea)
- Puntuazioan bilduta ez dauden ikasleak: probak egin behar zituzten ikasleak dira, baina ikastetxeko edo taldeko datu orokorren azterketa egiteko garaian haien emaitzak kontuan hartu ez direnak. Horretarako arrazoiak hauek izan daitezke: baloratutako alderdi zehatzean CEIren bat zuten, euskara salbuesita zuten, edo nahiz eta probara joan ziren, maiz joaten ez direnen taldekoak ziren; etorkinak ziren urtebeteko eskolatzea baino gutxiagorekin, eta gainera, ez zuten aplikazio-hizkuntza ezagutzen; eskolatzearen osagarria zen programa bat ari ziren egiten. (3. zutabea)
- Aurkeztu ez diren ikasleak: proban sartuta dauden ikasleak dira; hori dela eta, ebaluazioa egin beharko zuketena, baina gorabehera ezberdinak direla eta, aplikazio-egunean ez ziren bertan izan. (4. zutabea)
- Proba egin zuten ikasleak: probak egin zituzten ikasleen behin betiko kopurua da. Haien puntuazioak kontuan hartu dira emaitza orokorretan. (5. eta 6. zutabeak)

DBHko 2. maila	(1) Ikasleak, guztira	(2) Ikasleak barne	(3) Puntuazioa gasbeko ikasleak	(4) Aurkeztu ez zirenak	(5) Proba egin eta puntuazioan sartu ziren ikasleak	(6) Proba egin zuten ikasleen %
Euskarazko hizkuntza-kompetentzia	18.021	16.597	1.424	725	15.872	% 95,6
Gaztelaniazko hizkuntza-kompetentzia		17.180	841	741	16.439	% 95,7
Matematikarako kompetentzia		17.192	829	670	16.522	% 96,1
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia		17.258	763	630	16.628	% 96,3

DBHko 2. mailan, 2009-2010 ikasturtean matrikulatutako ikasleen guztizko kopurua 18.021ekoa zen, baina lehen aipatu dugun moduan, ikasle guztiak ez zeuden puntuazioetan sartuta (taulako 5. zutabean, proba egin zuten eta konpetentzia bakoitzeko puntuazioan sartutako ikasleak ageri dira).

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako 4 konpetentzietako proba guztiak 15.386 ikaslek egin zituzten, hau da, ikasle guztien % 85,4k. Gutxienez proba bat egin duten ikasleen ehunekoa 16.939koa izan zen. Dena den, konpetentzia bakoitzeko partaidetzaren datuak proba egin behar zuten ikasleen kopuruarekin konparatzen baditugu, ikasleen % 96k egin zuen proba, aurreko ED09 ebaluazio diagnostikoaren oso ehuneko antzekoa.

Txosten honetan, 4 konpetentzia horietako bakoitzean emaitzen azterketa egiteko dagokion konpetenziaren proba egin zuten ikasleen kopurua hartu dugu erreferentziazat (5. zutabea). Konpetentzia horretan puntuaziorik lortu ez duten ikasleak ez dira kontuan hartu.

Indize sozioekonomiko eta kulturalaren aldagaia kalkulatzeko, ikasleen galdera-sortan kalkulatu ahal izateko dagozkion itemak bete dituzten ikasleak hartu dira erreferentziazat.

c) Probako hizkuntza

Matematikarako konpetentziako eta Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako probak euskaraz edo gaztelaniaz egin zitezkeen. Erabaki hori ikastetxeen esku utzi zuten; haiek erabaki zuten probetan erabili behar zuten hizkuntza etxeko hizkuntza izango zen ala kasuan kasuko konpetentziarekin lotura gehien duten arloetako irakas-hizkuntza.

Heziketa-hizkuntza aukeratu zutenean, erabaki hori eredu bereko talde guztiei aplikatu zitzairen. Aldiz, etxeko hizkuntza aukeratu zutenean, taldeko ikasle bakoitzaren egoera banaka aztertu zuten; hau da, talde beraren baitan, ikasle batzuek probak euskaraz egin zituzten hura zelako etxeko hizkuntza, eta beste ikasle batzuek, aldiz, probak gaztelaniaz egin zituzten arrazoi hori bera dela eta.

Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-konpetentziak zegokien hizkuntzan aplikatu eta erantzun zituzten. Ikasleen galdera-sortak konpetentzia ez-linguistikoko errendimendu-probetan erabilitako irizpide berekin aplikatu zituzten.

Ikastetxeek 2010eko ebaluazio diagnostikoko probak egiteko DBHko 2. mailako hizkuntza-eredu bakoitzean ikastetxeek aukeratu zuten hizkuntza –etxekoa edo heziketakoa- ageri da hurrengo taulan.

Konpetentzia ez-linguistikoetan erabilitako proba-hizkuntzaren inguruko datuak ereduaren arabera			
Probetarako aukeratutako hizkuntza	Probetako hizkuntza-ereduak eta hizkuntza		
	DBHko 2. maila		
	A ereduak	B ereduak	D ereduak
Etxekoa	11	33	10
Heziketakoa	121	210	473
Guztira: 858 talde			

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan, 54 taldek (% 6,29k) konpetentzia ez-linguistikoetako probak etxeko hizkuntzan egin zituzten (euskaraz edo gaztelaniaz). Hiru hizkuntza-ereduetako 804 taldetan (% 93,7), probak konpetentzia horiekin lotutako heziketa-hizkuntzan egin ziren.

d) Errendimendu-proben deskribapena

2010. urteari dagokion ebaluazio diagnostikoak 175/2007 Dekretuan bildutako zortzi kompetentziatik lau neurtu ditu. Urte hartako ebaluazioan lau kompetentzia hauek neurtu ziren:

- Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia.
- Matematikarako kompetentzia
- Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia

Lehen hiru horiek ikasturte guztietan ebaluatuko dira, baina laugarren lekuan dagoena aldatu egingo da urtero. 2011. urtean, Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia Ingeleseko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia izatera pasatuko da; horren gidaketa ikasleen laginarekin egin zen, eta aldi berean 2010. urteko ebaluazioa aplikatzen zen.

Ebaluatutako lau kompetentzia horietako bakoitza neurtzeko erabilitako itemen kopurua hau izan zen:

Kompetentziak	Dimentsioak	DBHko 2. maila Item kopurua
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Entzumena Idatzizko ulermena eta idazmena	21 (A ereduak) 22 (B eta D ereduak) 26
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Entzumena Idatzizko ulermena eta idazmena	27 30
Matematika	Kopurua Espazioa eta forma Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna Problemen ebazpena	24
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	Gizarte-errealitatea Herritartasuna Elkarbizitza	40

Proba horietan lau motatako itemak zeuden, eskatzen zen erantzun motaren arabera:

- Erantzun itxiaren itema aukera anitzeko formatuarekin. Aukera batzuetatik bat hautatu behar da.
- Item erdi-itxia. Bi proposamenen artean, aukera bakarra hautatu behar da.
- Erantzun laburreko itema. Erantzun laburra eskatzen dute, adib. marrazki bat, matematikako eragiketa bat, hutsune bat betetzea eta abar.
- Item irekia. Erantzunen aukera zabala onartzen dute eta zuzentzeko garaian subjektibotasuna saihesti ahal izateko, horretarako irizpide argiak eta gauzatze-mailak finkatzen dira.

Kompetentzia guztietan, erantzun gehienak aukera anitzekoak ziren. Erantzun erdi-itxiak edo erantzun laburrekoak urriagoak ziren eta hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako probetan bakarrik zegoen erantzun luzeko item bat, idazlana alegia (100 hitzekoa DBHn).

Lehen bi motetako itemak aplikazio informatiko baten bidez zuzendu ziren. Aplikazioak erantzun zuzenari zegokion puntuazioa ematen zuen. Beste bi motetako itemak, aldiz, hartarako bereziki

kontratutako eta berriazko prestakuntza zuten langileek zuzendu zituzten. Kasu haietan, gainera, ISEI-IVEI jarraipen-lana egin zuen zuzenketen artean egon zitezkeen desadostasun mailak saihesteko edo ahalik eta gehien murrizteko.

e) Ezarritako kompetentzia mailak

Emaitzak kompetentziarekin lotutako hiru mailatan antolatuta aurkeztu dituzte: hasierakoa, erdiko eta aurreratua. Maila horietako bakoitza ikasleek proban proposatutako egoerei irtenbidea emateko behar diren ezagupenen, trebezien eta gaitasunen arabera definitu da, eta puntuazio-tarte batekin zehaztuta dago

Hiru kompetentzia maila daude zehaztuta:

- **Hasierako maila.** Askotariko ikasleak biltzen ditu: hezkuntza-zikloko trebeziak eta edukiak ikasten hasi direnak zein laguntza pixka batekin, erdiko mailari dagozkion eskakizunei aurre egiteko gai izan litezkeenak.
- **Erdiko mailak** ikasleen ehuneko handiak eskura ditzakeen trebeziak jasotzen ditu. Ebaluatutako kompetentzia bakoitzeko zailtasun ertaineko trebeziak eta edukiak jasotzen ditu.
- **Maila aurreratuak**, aldiz, probetan ebaluatutako trebezia eta eduki konplexuenak jasotzen ditu. Maila honetan, duela gutxi ikasketa horiek menderatzeko prozesua sendotu duten ikasleak eta erabat finkatuta dauden beste batzuk egon daitezke.

Kompetentzia bakoitzaren baitan errendimendu mailak ezarri ahal izateko, aurretik helburu berarekin nazioarteko beste ebaluazio batzuetan erabilitako prozedura estandarizatu erabili da. Maila bakoitzerako *ebakidura-puntuak identifikatzeko* prozesu horretan probak prestatzen parte hartu zuten profesional guztiek parte hartu dute: ISEI-IVEIko teknikariak, Hezkuntza Ikuskaritzakoak, irakasmila ezberdinetako irakasleak eta prestakuntza aholkulariak. Horiez gain, prozesuan parte hartzera bereziki gonbidatutako beste irakasle batzuek ere parte hartu dute. Ebaluatutako kompetentzia edo dimentsio bakoitzerako bi ebakidura-puntu finkatu dira. Horiei esker, hiru lorpen edo errendimendu maila identifika daitezke: hasierako maila, erdiko maila eta maila aurreratua (ikus ebaluatutako kompetentzia edota dimentsio bakoitzeko kompetentzia mailen deskribapen-taulak).

➤ **Kompetentziak nola neurtu**

Emaitzei buruzko datuen helburua informazio osagarria eskaintzea da, ikastetxeentzat prestakuntza prozesuen inguruan erabakiak hartu ahal izateko eta funtzionamenduan hobekuntzak proposatzeko erabilgarria izan daitekeena. Bestela esanda, datuen azterketa bat dator ebaluazio eredu horrekin.

Emaitzak puntuazio-eskalaren bidez neurtzen dira. Tresna horri esker, balio numeriko bat esleitu eta ikasleen kompetentzia mailak bereiz daitezke. Puntuazio-eskala horren garrantzizko ezaugarria ez da komunitatearen batez bestekoari esleitu zaion balio espezifiko, baizik eta ikasleen, taldeen eta ikastetxeen emaitzak kokatzeko (gorantz edo beherantz) erabili beharko litzatekeen marka finkatzeko aukera eskaintzen duela.

2009ko ebaluazio diagnostikoko batez besteko puntuazioa 250 puntukoa izan da (desbiderapen tipikoa, 50ekoa). 250 puntuko batez besteko hori etapa eta kompetentzia bakoitzerako lehen aldiz finkatu da eta edizio honetan ere mantendu egin da lehen aldiz ebaluatu den Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziarako. Lehen ebaluazio horretan ezarritako 250 puntuko batez bestekoa kompetentzia bakoitzeko edizioetan gertatzen diren alderaketak ezartzeko eta gerta daitezkeen desbideratzeak baloratzeko erreferentziatzat hartzen da.

f) Ikaslearen galdera-sortak

Errendimendu probez gain, ikasleek beren familiari buruzko informazioa biltzen zuen galdera-sorta bat osatu zuten. Beste galdera batzuen helburua, aldiz, etxeko hizkuntza, jatorria eta abar ezagutzea zen. Era berean, ikasleari buruzko beste datu batzuk ere biltzen zituen: eskolaz kanpoko alderdiak, ikastetxearekin lotutakoak, ikastetxerikiko jarrera, gustuko irakasgaiak eta abar

Ikerketa eta azterketa ugarik agerian utzi duenez, aldagai horietako askok eragina izaten du ikaslearen ikaskuntza-irakaskuntza prozesuan. Hori dela eta, bildutako informaziotik abiatuta, eta emaitzekin elkarren arteko harremanak ezartzeko helburuarekin, hainbat aldagai ezarri dira txosten honetarako: sexua, jaiotza-urtearen arabera eskolatuta dagoen mailaren egokitasuna, etxeko hizkuntzak emaitzetan duen eragina, eskolatzearen hasiera-adina eta abar.

g) Ikaslearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK)

Indize horren eragina orain arteko ebaluazio eta ikerlan guztiek baieztatu dute. Oro har, emaitza akademikoa hobea izaten da ikasleen maila sozioekonomikoa eta kulturala igo ahala. Eta horregatik da garrantzitsua lortutako emaitzak aldagai horren eragina kontuan izanik baloratzea eta erkatzea.

ISEK indizea kalkulatzeko informazioa ikasleek galdera-sortan emandako erantzunetatik atera da. Indize horren barruan askotariko alderdiak sartzen dira, hala nola familiaren maila profesionala, familiaren ikasketa-mailarik altuena eta alde aurretik garrantzi handikotzat jo diren ondasun materialen eta kulturalen multzo bat edukitzea (etxean dauden liburuen kopurua, egunkaria eta aldizkari espezializatuak irakurtzea, ordenagailua eta Internetera sarbidea edukitzea). Ikasle bakoitzaren datuetan oinarriturik, ikastetxe bakoitzeko ikasleen batez bestekoa kalkulatu da. Balio hori 0an zentratuta dago Autonomia Erkidegoko batez bestekoa, eta 1eko desbideratze tipikoa du. Populazio osoa lau mailatan banatu da eta haietako bakoitzean populazioaren % 25 kokatu da, ISEK indizearen balioaren arabera.


Kontuan izan behar da maila horiek ez direla absolutuak, konparagarriak baizik hezkuntza etapa bakoitzean ebaluatutako ikasleen populazioaren barruan. Hori dela eta, baliteke ikastetxe bat, ebaluatutako bi irakasmilak baldin baditu, irakasmila bakoitzean ISEK maila ezberdin batean egotea, datuak ebaluatutako irakasmilako ikasleei buruzkoak dira, ez ikastetxe osoko ikasleei buruzkoak. Beraz, ikastetxeko ISEK indizea aipatzen denean, ebaluatutako ikastaldeetako ikasleen batez besteko ISEK indizea ulertu behar da

2010eko ebaluazio diagnostikoan DBHko 2. mailako ikasleen 4 ISEK mailen balioak hauek dira:

DBHko 2. mailako ikasleen ISEK indizearen balio-tarteak


ISEK maila	Gutxieneko balioa	Gehieneko balioa	Batez besteko balioa
Baxua	-1,97	-0,47	-0,76
Ertain Baxua	-0,46	-0,17	-0,30
Ertaina Altua	-0,16	0,22	0,02
Altua	0,23	1,83	0,57

3. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren balioak (ISEK)



Ondoko grafikoa ikus daitekeen moduan, ISEK maila desberdinetako balioak ED09ko aurreko ebaluaziokoaren oso antzekoak dira¹.

4. grafikoa: ED09-ED10. bilakaera. DBHko 2. maila. Indize sozio-ekonomiko eta kulturalaren balioak (ISEK)



Taula honetan, ebaluazioan kontuan hartu diren sei geruzetako bakoitzean ikastetxeko ISEK indizearen batez besteko balioa azaltzen da².

Geruza	ISEK indizearen batez besteko balioa		Geruza bakoitzak 2010 aplikazioan duen ehuneko*	Geruza bakoitzak bere hezkuntza-sarearen baitan duen ehuneko*	
A Publikoa	-1,16	Baxua	% 4,3	% 9,6	Sare publikoa
B Publikoa	-0,47	Baxua	% 5,6	% 12,3	
D Publikoa	-0,07	Ertaina Altua	% 35,3	% 78,1	
Itunpeko A	0,18	Ertaina Altua	% 10,3	% 18,9	Itunpeko sarea
Itunpeko B	0,12	Ertaina Altua	% 23,5	% 42,8	
Itunpeko D	0,21	Ertaina Altua	% 21,0	% 38,3	

(*) Ehunekoak ISEK-ekin loturiko galderak osatu diren ikasleak kontuan hartuz kalkulatu dira

¹ Geruza bat ISEK maila jakin batean egoteak ez du esan nahi geruza horretako ikastetxe guztiek derrigorrez ISEK maila hori izan behar dutenik. Gainera, datuak behar bezala baloratzeko oso garrantzitsua da geruza bakoitzak 2010eko aplikazioan eta bere hezkuntza-sarearen barnean nolako pisua duen (ikastetxeen ehunekoak) kontuan izatea.

A eredu publikoaren geruza ISEK indizearen maila baxuan dago eta ISEK indizearen -1,16ko batez besteko balioa du. B eredu publikoak batez besteko -0,47ko balioa du eta maila baxuaren eta maila ertain baxuaren mugan dago. D itunpeko ereduaren geruzak du ISEKen baliorik handiena (0,21). Gainerako geruzak, ISEKen batez besteko balioaren arabera, maila ertain baxuan eta ertain-altuan daude.

Grafikoko datuek, ebaluazioko geruza bakoitzean, ISEK mailen araberrako egoeren aniztasuna eta ikasleen ehunekoen askotariko banaketa daudela erakusten dute.

Hurrengo taulak ebaluazio honetan aintzat hartutako geruza bakoitzeko DBHko ikastetxeen batez besteko ISEKen balioa erakusten du, baita aurreko ED09 ebaluazioari dagozkionak ere. Bertan, geruza bakoitzeko balioetan gertatutako aldaerak antzematen dira.

Geruza	ED09		ED10	
	ISEK indizearen batez besteko balioa		ISEK indizearen batez besteko balioa	
A Publikoa	-0,68	Baxua	-1,16	Baxua
B Publikoa	-0,35	Ertain baxua	-0,47	Baxua
D Publikoa	-0,12	Ertaina Altua	-0,07	Ertaina Altua
Itunpeko A	0,24	Altua	0,18	Ertaina Altua
Itunpeko B	0,08	Ertaina Altua	0,12	Ertaina Altua
Itunpeko D	0,16	Ertaina Altua	0,21	Ertaina Altua

3. DBHko 2. MAILAKO IKASLEEN EBALUAZIOAREN EMAITZAK

3.A. EBALUATUTAKO OINARRIZKO KONPETENTZIEN EMAITZEN ANALISIA

1. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

Definizioa

Euskaraz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarrengaitzeko.

Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta eta bost horietatik hurrengo hiru hauek ebaluatu dira:

Irakurmena euskaraz

Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai den baloratzeko, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituen, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituen.

Entzumena euskaraz

Ahozko testuei buruzko galderen bidez ebaluatu da hurrengo honetarako gaitasuna neurtu delarik: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko.

Idazmena euskaraz

Euskarazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira. Dimentsio hori baloratzeko, DBHko ikasleei 100 hitzetako idazlana eskatu zitzaien. 20 hitzetatik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek baloratu dira:

Gaiaren egokitasuna eta garapena:

- Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
- Egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
- Aditz-pertsonari eutsi dion.

Testuaren koherentzia eta kohesioa:

- Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
- Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo bereizita ageri diren.
- Eskatutako testuaren hizkuntza-baliabideak eta hizkuntzarenak ez diren baliabideak erabiltzen dituen.

Lexikoa, gramatika eta ortografia:

- Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea).
- Erabilitako esaldi motak.
- Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

Hauek dira ebaluatu ez diren dimentsioak:

- Mintzamena
- Ahozko elkarrengaitzea


- **Emitza orokorrak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian**

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emitza *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* **258** puntutan finkatu da. Ondoko taulan kompetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	15.872	105,2	353,4	258	48,57

Hurrengo grafikoa, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru kompetentzia mailetako bakoitzean.


5. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Datuak orokorki aztertzen baditugu, EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 33,5ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen dituela ikus daiteke. Ikasleen % 42 inguru kompetentziako erdiko mailan dago, eta % 24 inguruk kompetentziako maila aurreratuari dagozkion lan konplexuagoak gauzatzea lortzen du. Beraz, esan daiteke DBHko 2. mailako *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ikasleen % 66,5 erdiko mailan eta maila aurreratuan dagoela.

Hizkuntza-ereduen egiturak *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* emaitzetan eragin handia duenez, hizkuntza-eredu bakoitzeko emaitzak zein bere aldetik aztertzen dira emaitza orokorrak eta ikasleen banaketa kompetentzia mailetako bakoitzean egokiago baloratu ahal izateko.

6. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa hizkuntza-eredu bakoitzean errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Hizkuntza-ereduko bakoitzeko ikasleen ehunekoaren banaketa desberdina ikus daiteke:

- A ereduari, ikasleen hiru laurden baino gehiagok ez du hasierako maila gainditzen eta % 3 soilik dago konpetentzia honetako maila aurreratuan.
- B ereduari, hasierako mailako ikasleen ehunekoak % 37 inguru egin du behera eta % 19,3 inguruk maila aurreratuan kokatzea lortu du.
- D ereduari, hasierako mailako ikasleen ehunekoa % 22,5koa da eta % 31 inguruk *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* maila aurreratura iristea lortzen du.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren errendimendu maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) eta dimentsio bakoitzean ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Taulan oinarriturik, ikastalde bakoitza zein egoeratan dagoen ondoriozta daiteke, baita maila bakoitzean zer egiteko gai den ere.

Konpetentzia mailen deskribapena Euskarazko hizkuntza-komunikazioan

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetako ikaslea erabilera-esparru askotariko ahozko zein idatzizko testuen esanahi orokorra eta xedea antzemateko gai da, era argian adierazita ageri baldin badira. Testu errazetako lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu, era konplexuan adierazita ageri ez badira. Informazio zehatza eta esplizitua identifikatzeko gai da, baita testuko pasarte batetik inferentzia zuzenak egiteko edo ondorioak ateratzeko ere. Testuaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, gutxieneko hitz kopurura heltzeko arazoak izan ditzakeen arren. Ideiak antolatze oso egitura sinpleak erabiltzen ditu, eta batzuetan, testuaren xedea lortzeko ez dira egokiak. Erabiltzen duen erregistroa ez da oso egokia. Kohesioari dagokionez, ez ditu hizkuntza-baliabideak erabiltzen, adierazpen maila eskasa da, eta hiztegiaren eta ortografiaren zailtasunak ditu.</p>	<p>Maila honetako ikaslea askotariko erabilera esparruetan ahozko zein idatzizko testuetako pasarteak laburtzeko gai da, baita testuari izenburua jartzeko ere. Nolabaiteko zailtasuna duten testuetan lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Egin beharreko lanerako informazio garrantzitsua aurkitzen du eta testuaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da. Testuko pasarte batetik inferentzia zuzenak egiteko edo ondorioak ateratzeko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea nolabaiteko konplexutasuna eta luzera duten testuak idazteko gai da. Emandako komunikazio-egoerara moldatzen da. Testu mota identifikatzen eta garatzen eta gaiak argi eta koherentziaz adierazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du. Testuaren kohesiorako egokiak diren hizkuntza-baliabideak erabiltzen ditu gehienetan. Adierazpen maila eta lexikoa onargarriak dira; gramatika- eta ortografia-akatsak ez dira ugariak eta ez dute ulergarritasuna oztotpatzen.</p>	<p>Maila honetako ikaslea erabilera-esparru askotariko ahozko zein idatzizko testuak ulertzeko gai da, baita testuaren atalen arteko erlazioak aurkitzeko eta testuari izenburua jartzeko ere. Lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu edozein motatako testuetan. Aurretiaz agindutako lan bat egiteko informazio garrantzitsua, inplizitua zein esplizitua, aurkitzen du. Testuko informazioa eta ezagupen pertsonala erlazionatzen ditu. Informazioa eta iritzia bereizteko gai da, baita testuaren edukiaren aurrean jarrera argia erakusteko ere.</p> <p>Bestalde, ongi egituraturako testuak idazteko gai da, bai koherentziaren, bai kohesioaren ikuspuntutik. Emandako testua zein motatakoa den identifikatu eta egoki garatzen du. Erregistro egokia erabiltzen du komunikazio-egoerarako. Ideiak argi eta koherentziaz adierazten ditu, eta testuaren xedea betetzen du. Hizkuntza-baliabideak egoki eta jarioartasunez idazten ditu. Adierazpen maila altua da eta erabiltzen duen lexikoa, egokia.</p>


• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza konpetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetan 258 puntutan finkatu da. Dimentsioei dagokionez, *Idazmenean* lortu da batez besteko puntuaziorik baxuena (250 puntu). *Entzumenak* lortu du batez besteko puntuaziorik altuena eta, 260 punturekin, eta horrek du sakabanatzerik handiena ere (65eko gutxieneko puntuaziotik 360ko gehieneko puntuaziora).

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioak	Kop.	Gutxiene koa	Gehiene koa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	15.872	65	360	260	55
Irakurmena	15.872	87	349	257	50
Idazmena	15.872	121	338	250	50

Jarraian, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluatu diren hiru dimentsioen errendimendu mailen arabera ikasleen banaketa kompetentzia mailen arabera grafikoki adierazten da.

7. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.




Entzumena eta *Idazmena* dira hasierako mailan ikasleen ehunekorik altuenak dituzten dimentsioak, % 36 inguru. Hala eta guztiz ere, maila aurreratuko emaitzari erantzunez, esan genezake *Entzumena* dela jokaerarik onena duena; izan ere, maila horretan ikasleen ehunekorik altuena biltzen du (% 29) eta ikasleen % 64k hasierako maila gaindi dezaten lortzen du.


Idazmena da emaitzarik baxuenak dituen dimentsioa; izan ere, ikasle kopuru handiagoak biltzen ditu hasierako eta erdiko mailan (% 88,5), eta % 11,5ek soilik lortzen ditu maila aurreratuko gaitasunak.

Ondoko grafiko hauetan A, B eta D hizkuntza-ereduetako ikasleen banaketa bereizirik azaltzen da aztertutako hiru dimentsioetako errendimendu-mailetan.


8. grafikoa : ED10-DBHko 2. maila. A ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



9. grafikoa : ED10-DBHko 2. maila. B ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



10. grafikoa : ED10-DBHko 2. maila. D ereduko ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



Ikus daitekeenez, hasierako maila gainditzen ez duten A ereduko ikasleen ehunekoa Idazmenaren kasuan D eredukoa baino hiru aldiz handiagoa da eta B eredukoa baino bi aldiz handiagoa *Idazmenaren* eta *Entzumenaren* kasuan. Era berean, hiru dimentsioetan A ereduaren ehunekoak maila honetan dagoen B ereduko ikasleen ehuneko bikoitza du.

Kompetentziako maila aurreratua aztertzen badugu, maila horretan A ereduko ikasleen oso ehuneko apala dagoela ikusten da (ikasleen % 1,1 eta % 3,54 artean). B ereduko ehunekoetan (maila hori lortzen duten ikasleen kopurua % 8,5 eta % 23,7koa da) eta D ereduko ehunekoetan kontrakoa gertatzen da; izan ere, ikasleen kopuru handia (% 15 eta % 37 artean) kompetentzia honetako dimentsio desberdinetako maila aurreratuenean kokatzen da.

Bistakoa da emaitza horiek ikaslea eskolatuta dagoen hizkuntza-ereduaren eraginarengatik guztiz baldintzatuta daudela.

Ondoko taulak ikaslea errendimendu-maila bakoitzean zer egiteko gai den deskribatzen du kompetentzia honetako hiru dimentsioetan.

Konpetenziaren dimentsioetako mailen deskribapena Euskarazko hizkuntza-komunikazioan

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
Entzumena		
<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra ulertzen dute. ✓ Testuaren gaia ondorioztatzen dute. ✓ Testuaren ideia nagusiak identifikatzen dituzte. ✓ Testuaren helburua identifikatzen dute. ✓ Batzuetan, eskatutako informazio zehatza antzematen dute. ✓ Informazioa eta iritzia bereizten dituzte. ✓ Beren ezagupenen arabera, testuen edukiak interpretatzen dituzte. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten dituzte. ✓ Testuko igorlearen asmoa antzematen dute. ✓ Mota desberdinetako testuen generoa antzematen dute. ✓ Testuko informazioa interpretatzen dute. ✓ Beren ideietatik abiatuta, inferentziak egiten dituzte. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuko informazioa zuzen interpretatzen dute. ✓ Beren ideietatik abiatuta, inferentziak egiten dituzte.
Irakurmena		
<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zentzu orokorra ulertzen dute. ✓ Testuaren ideia nagusiak identifikatzen dituzte. ✓ Testuari jartzeko izenburua hautatzen dute. ✓ Berariazko informazioa edo informazio zehatza antzematen dute. ✓ Beren ezagupenen arabera, testuen edukiak interpretatzen dituzte. ✓ Testuaren generoari antzematen diote. ✓ Igorlearen helburua identifikatzen dute. ✓ Beren adineko hiztegia ezagutzen dute. ✓ Testuaren helburua identifikatzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten dituzte. ✓ Testuko informazioa interpretatzen dute. ✓ Beren ideietatik abiatuta, inferentziak egiten dituzte. ✓ Testuko zatirik garrantzitsuenak laburbiltzen dituzte. ✓ Testuaren egitura ezagutzen dute. ✓ Informazioa eta iritzia bereizten dituzte. ✓ Beren hezkuntza-mailako hiztegia ezagutzen dute. ✓ Testuko elementu esplizitu eta inplizituetatik abiatuta, igorlearen asmoa ezagutzen dute. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak nolabait bereizi eta beraien arteko erlazioak egiten dituzte. ✓ Testuko informazioa interpretatu eta integratzen dute. ✓ Beren ideietatik abiatuta, inferentziak egiten dituzte. ✓ Testuaren elementu ez-linguistiko eta linguistikoan esanahia integratzen dute.
Idazmena		
<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio gutxi eskaintzen dute edo informazioa ez dago ondo artikulatuta. ✓ Ez dute testuaren helburua guztiz betetzen: azalpen-testua idaztea. ✓ Ideiak ez dituzte ondo antolatzen eta errepikatu egiten dituzte. ✓ Ia-ia ez dituzte hizkuntza-baliabideak erabiltzen edo oker erabiltzen dituzte. ✓ Lexiko urria erabiltzen dute. ✓ Ortografia- eta gramatika-akatsak egiten dituzte. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren helburua betetzen dute: azalpen-testu bat idaztea. ✓ Ideiak eta datuak era logikoan antolatzen dituzte; inkoherentzia larririk eta errepikapen askorik gabe. ✓ Hizkuntza-baliabideak ia behar den guztietan erabiltzen dituzte ✓ Oro har, hiztegi egokia erabiltzen dute. ✓ Ulermena eragozten ez duten akats ortografiko eta gramatikal batzuk egiten dituzte. 	<p>Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren helburua guztiz betetzen dute: narrazio bat idaztea. ✓ Ideiak eta datuak era logikoan antolatzen dituzte; inkoherentzia larririk eta errepikapenik gabe. ✓ Hizkuntza-baliabideak egoki erabiltzen dituzte. ✓ Hiztegi egokia eta aberatsa erabiltzen dute. ✓ Ortografia- edo gramatika-akatsik gabe idazten dute.


- **Euskarazko hizkuntza-komunikazioko konpetentzien emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoan geruzak bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A Publikoa	428	172	1,52
B Publikoa	855	240	1,58
D Publikoa	5.819	268	0,55
Itunpeko A	1.512	209	1,20
Itunpeko B	3.775	259	0,72
Itunpeko D	3.483	278	0,66
Guztira: 15.872			

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua (15.872) eta gaztelaniazko konpetentziako puntuazioan sartutakoena (16.439) ez datoz bat, zenbait ikasle euskaratik salbuetsita baitaude, eta, beraz, ez baitira konpetentzia honetako puntuazioan sartu.

11. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako emaitzak geruzen arabera.




Geruza guztien arteko aldeak adiezgarriak dira

Neurriek estatistikoki duten adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- A ereduko geruzetako emaitzak B ereduakoak baino nabarmen baxuagoak dira, eta horiek, aldi berean, D ereduakoak baino baxuagoak.
- Geruza publikoetako emaitzak itunpeko geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira hizkuntza-eredu guztietan.

Ondoko grafikoan finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira geruzak bakoitzean.

12. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-maila bakoitzean euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.




Geruzak aztertu ondoren, zenbait alderdi azpimarratu beharko lirateke:

- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* hasierako maila gainditzen ez duten ikasleen ehunekoak oso altuak dira A eredu publikoan (% 95 baino gehiago) eta itunpeko A ereduaren (% 73).
- B eredu publikoko ikasleen erdiak eta itunpeko B ereduko ikasleen ia % 34k ez du gainditzen hasierako maila kompetentzia honetan.
- D eredu publikoaren geruzak eta itunpeko D ereduaren geruzak dituzte ikasleen ehunekorik txikienak hasierako mailan (% 25 D publikoan eta % 18 itunpekoan), eta ehunekorik handienak maila aurreratuan (% 28 D publikoan eta ia % 36 itunpekoan).

• Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Jarraian, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* dimentsioetako emaitzak grafikoki adierazten dira geruzen arabera.

13. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan geruzen arabera.




Oro har, *Idazmena* da zailtasun handieneko dimentsioa; izan ere, geruza guztietan balio baxuenarekin puntuatzen du. Gainerako dimentsioekiko puntuen aldea nabarmenagoa da A geruza publikoan (*Entzumenean* baino 21 puntu gutxiago), itunpeko D eredu (*Entzumenean* baino 14 puntu gutxiago) eta D eredu publikoan (*Entzumenean* baino 11 puntu gutxiago).

Entzumenean eta *Idazmenean* oso puntuazio orekatua lortu dute, batez ere A eredu publikoan eta itunpeko B eredu.

Hiru dimentsioetan -*Irakurmena*, *Entzumena* eta *Idazmena*- geruzetako emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan, eta konpetentziako emaitza orokorretan adierazgarritasun estatistiko berdina gertatzen da.

Dimentsio bakoitza aztertzen da eta horietako bakoitzean geruzen arabera lortzen diren emaitzak grafikoki erakusten dira.

14. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Geruzetako emaitzak euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioetan,




- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako emaitzak hizkuntza-ereduen arabera.**

A eredu publikoaren geruzak eta itunpeko A ereduaren geruzak oso emaitza apalak lortu dituzte konpetentzia honetan, eta horrek agerian jartzen du hezkuntza-sarea, indize sozioekonomiko eta kulturalarekin loturik egoteagatik izan dezakeen garrantzia gora behera, kasu horretan ez dela aldagairik garrantzitsuena emaitzak azaltzeko. Hori dela eta, eskolatzearen hizkuntza-ereduaren ikuspegitik aztertu behar dira.

Ondoko grafikoan emaitzak hizkuntza-ereduen arabera bereizirik azaltzen dira. A ereduko puntuazioak B eta D ereduak baino nabarmen apalagoak direla egiaztatzen da. Era berean, B ereduko puntuazioak D eredukoak baino nabarmen apalagoak dira.


15. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia hizkuntza-ereduen arabera.



* Eredu bakoitzeko puntuazioen adierazgarritasuna grafikoki gezi hori batez adierazten da.

Horrez gain, kompetentzia honetako hiru dimentsioetako eredu bakoitzaren errendimendua konparatzen da, jarraian azaltzen den bezala.

16. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. A, B eta D ereduetako ikasleen errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan.



Dimentsio guztietan, A ereduko emaitzak B eta D ereduetakoak baino baxuagoak direla antzematen da. Aldeak estatistikoki adierazgarriak dira. Era berean, B ereduko emaitzak D ereduetakoak baino nabarmen baxuagoak dira.

- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera**

Ondoko taulak *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia* ebaluatzeko kontuan izan diren DBH 2ko ikasleen lagina erakusten du, etxeko hizkuntzarekin batera. Irakasmaila horretan ikasleen %

21 inguruk euskara du etxeko hizkuntza eta % 78k gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat du etxeko hizkuntza.


Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren puntuazioan sartutako ikasleen etxeko hizkuntza

	Euskara		Gaztelania edo beste hizkuntza bat	
	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA: 15.872	3.371	21,23	12.399	78,11

(*) Taula honetan ez dago kompetentzia honen ebaluazioan parte hartu duen eta galdera-sortako galdera honi "Ez daki- ez du erantzuten" erantzun dion ikasleen % 0,66


Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek kompetentzia honetan 281 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 252 puntuko errendimendua lortu dute.

17. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen etxeko hizkuntza eta errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Jarraian etxeko hizkuntzaren arabera ikasleen ehunekoen banaketa ageri da etxeko *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* errendimendu mailetan.

18. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian etxeko hizkuntzaren arabera.




Etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntza bat dutenek biltzen dituzte hasierako mailako ikasleen ehuneko altuenak eta maila aurreratuko ehuneko baxuenak. Hori dela eta, hasierako mailan egon ohi dira etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat duten ikasleen % 38 baino zertxobait gehiago. Bien bitartean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen (% 15) kasuan, ehunekoa ia-ia erdira jaisten da. Maila aurreratuan, etxeko hizkuntza

euskara duten ikasleen ehunekoa bikoiztu egiten da beste etxeko hizkuntza bat dutenekin alderatuta (% 40,1 eta % 19,8).

D ereduari, gai hau modu zehatzean aztertzen da, antzeko egoera bat gertatzen dela ohartuz.


19. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Euskarazko hizkuntza-komunikazioa. D ereduari. Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



Aurreko grafikoa ikus daitekeen moduan, ehunekoen banaketari dagokionez, ezberdintasun nabaria dago ikasleen etxeko hizkuntza euskara edo gaztelania edo beste hizkuntzaren bat denean: etxean gaztelaniaz hitz egiten duten ikasleen kasuan, hasierako maila % 12 handitzen da, eta maila aurreratua % 16 murrizten da.


- **Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**

Ondoko grafikoa Konpetentzia honetan ortu den batez besteko errendimendua ageri da ezarritako lau ISEK mailen arabera. ISEK maila guztien arteko puntuazio-aldeak adierazgarriak dira.




Ondoko grafikoei hizkuntza-eredu bakoitzean lortutako emaitzak adierazten dituzte ISEK mailen arabera. Emaitzen adierazgarritasuna gezi hori batez adierazten da.


21. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. A ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikazioarako kompetentzian ISEK mailen arabera.



22. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. B ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikazioarako kompetentzian ISEK mailen arabera.




23. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. B ereduko errendimendua euskarazko Hizkuntza-komunikazioarako kompetentzian ISEK mailen arabera.



Euskarazko hizkuntza-komunikazioarako kompetentzian lotura adierazgarria ikusten da ISEK mailaren eta errendimenduaren artean. Kasu guztietan, ISEK maila altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira. Aurreko grafikoetan ikus daitekeen bezala, bai kompetentziaren puntuazio orokorrean, bai hizkuntza-eredu bakoitzean bereizirik aztertzen denean lotura hori betetzen da.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako hiru garapen mailetan ikaslea nola dagoen banatuta ageri da grafiko honetan, zehaztutako ikastetxeen batez besteko lau ISEK zatien arabera.

24. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian ISEK mailen arabera.




Gaia aztertu ostean, egoera hau antzematen da:

- Erdiko mailako eta maila aurreratuko ikasleen % 70 baino gehiago ISEK Maila Altuan eta Ertain Altuan biltzen dira (% 73,7 Maila Altuan eta % 70,8 Maila Ertain Altuan).
- ISEK Maila Baxuan, ikasleen erdia baino gutxiago (zehazki % 46,3) iristen da konpetentzia honetako maila ertain eta aurreratura.
- Ondorioz, ISEK Maila Baxuak eta Ertain Baxuak biltzen dute konpetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 53,7 ISEK Maila Baxuan eta % 34,4 Maila Ertain Baxuan)

Grafikoan, geruza bakoitzerako ISEK maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa ageri da.

25. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa geruza bakoitzean ISEK mailen arabera.



Aurreko grafikoko datuek, ebaluazioko geruza bakoitzean, ISEK mailen arabeko egoeren aniztasuna eta ikasleen ehunekoen askotariko banaketa daudela erakusten dute.


ED2009 ETA ED2010 EBALUAZIOETAN EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN BILAKAERA

Bi ebaluazio diagnostikoetan *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortutako emaitzak alderatzen dira honako alor hauetan:

➤ Batez besteko puntuazioaren bilakaera

Konpetentzia honen batez besteko puntuazioa nabarmen handitu da, 250 izatetik 258 izatera pasatu da. Aurreko edizioarekiko 8 puntuko aldea estatistikoki adierazgarria da.


26. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. DBHko 2. maila. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez besteko puntuazioa.



➤ Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.

Maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoan izandako % 6ko igoera eta hasierako mailan kokatzen den ikasleen % 4,6ko murrizketa dira gehien azpimarra daitezkeen alderdiak. Horren eraginez, erdiko mailako ikasleen ehunekoak ere behera egin du (% -1,2).


27. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. DBHko 2. maila. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako mailetako ikasleen ehunekoa.



➤ Hizkuntza-ereduen arabera batez besteko puntuazioaren bilakaera

Hiru hizkuntza-ereduek igoera nabaritu dute batez besteko puntuazioan: A ereduak 12 puntu egin du gora, B ereduak 4 puntu eta D ereduak 7 puntu. Estatistikoki begiratuta, kasu guztietan, igoera nabaria izan da.


28. grafikoa: DBHko 2. maila. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako emaitzek hizkuntza-ereduen arabera duten bilakaera.



➤ **Batez besteko puntuazioaren bilakaera geruzen arabera**

Geruza guztiek, B eredu publikoak izan ezik, batez besteko puntuazioa hobetu dute. Aurreko edizioarekin alderatuta 4 eta 15 puntu arteko igoera hori adierazgarria da A geruza publikoaren eta itunpekoaren, itunpeko B-ren, eta D publiko eta itunpekoaren kasuan.

29. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako batez besteko puntuazioa geruzen arabera.




➤ **D ereduko ikasleek errendimendu mailetan izan duten banaketaren bilakaera etxeko hizkuntzaren arabera**

D ereduan eskolatutako ikasleek aurrerapausoa eman dute etxeko hizkuntza edozein izanda ere. Kompetentziaren hiru mailetan ikasleen banaketan honako hau nabari da: hasierako mailan dagoen ikasleen ehunekoak behera egin du, bai etxeko hizkuntza euskara dutenenak (% 3 egin du behera) eta gaztelania dutenenak (% 2 egin du behera). Hala eta guztiz ere, kasu guztietan, maila aurreratuan

dagoen D ereduko ikasleen ehunekoak gora egin du (% 9 etxeko hizkuntza euskara dutenena eta % 5 etxeko hizkuntza gaztelania edo bete hizkuntza bat dutenena).

30. grafikoa: DBHko 2. maila. Euskarazko Hizkuntza-komunikaziorako emaitzek duten bilakaera. D eredua. Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



EUSKARAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOAREN KONPETENTZIAKO EMAITZEN ONDORIOAK

1. Konpetentzia mailak

- EAEko DBH 2ko ikasleen % 33,5ek *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu.
- Ikasleen % 42,4 konpetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 24,1ek konpetentziako maila aurreraturako definitu diren zeregin konplexuagoak gauzatzea lortu du.

2. Emaitzak Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioen arabera

- Konpetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetan, DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza 258 puntukoa da.
- *Entzumenak* lortu du batez besteko puntuaziorik altuena +260 punturekin, eta horrek du sakabanatzerik handiena ere (65eko gutxieneko puntuaziotik 360ko gehieneko puntuaziora). *Idazmenak* du batez besteko puntuaziorik baxuena (250 puntu).
- *Entzumena* eta *Idazmena* dira hasierako mailan ikasle kopuru handiena duten dimentsioak, % 36 inguru.
- Maila aurreratuko emaitzei dagokienez, *Entzumenak* du jokaerarik onena; izan ere, maila horretan ikasle ehunekorik altuena biltzen du (% 29) eta ikasleen % 64k hasierako maila gainditzea lortzen du.
- *Idazmena* da emaitzarik baxuenak dituen dimentsioa; izan ere, ikasle kopuru handiagoak biltzen ditu hasierako eta erdiko mailan (% 88,5), eta % 11,5ek soilik lortzen ditu maila aurreratuko gaitasunak.

3. Análisis geruzen arabera.

Emaitza orokorrak.

- Itunpeko A ereduko eta A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira.
- B ereduko emaitzak, era berean, D eredukoak baino baxuagoak dira.
- Geruza publikoetako emaitzak itunpeko geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira hizkuntza-eredu guztietan.
- Hiru dimentsioetan (*Irakurmena*, *Entzumena* eta *Idazmena*) geruzetako emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira, konpetentzia orokorreko emaitzen arteko adierazgarritasun berdinarekin.

Emaitzak ikasleen errendimendu mailen arabera

- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako maila gainditzeko ez duten ikasleen ehunekoak oso altuak dira A eredu publikoan (% 95 baino gehiago) eta itunpeko A ereduan (% 73).
- B eredu publikoko ikasleen erdiak eta itunpeko B ereduko ikasleen ia % 34k ez du gainditzeko hasierako maila konpetentzia honetan.
- D eredu publikoaren geruzak eta itunpeko D ereduaren geruzak dituzte ikasleen ehunekorik txikienak hasierako mailan (% 25 D publikoan eta % 18 itunpekoan), eta ehunekorik handienak maila aurreratuan (% 28 D publikoan eta ia % 36 itunpekoan).

Emaitzak konpetentziako dimentsioen arabera

- *Idazmena* da zailtasun gehien dituen dimentsioa; izan ere, geruza guztietan, balio baxueneko puntuazioa duena da.
- *Entzumenean* eta *Idazmenean* oso puntuazio orekatua lortu dute, batez ere A eredu publikoan eta itunpeko B ereduan.

- Hiru dimentsioetan -*Irakurmena, Entzumena eta Idazmena*- geruzetako emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan, eta kompetentziako emaitza orokorretan adierazgarritasun estatistiko berdina gertatzen da.

4. Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera.

- Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleek kompetentzia honetan 281 puntu lortu dituztela egiaztatzen da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat dutenek 252 puntuko errendimendua lortu dute. Aldea adierazgarria da.
- Etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat duten ikasleek hasierako mailan ehuneko altuagoak eta maila aurreratuan ehuneko baxuagoak biltzen dituzte.
- Hasierako mailan dago etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den besteren bat duten ikasleen % 38, eta ehuneko hori erdia baino gutxiago murrizten da etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen kasuan (% 15). Maila aurreratuan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoak etxeko hizkuntza besteren bat dutenen kopurua bikoizten du (% 40,1 eta % 19,8).

5. Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK).

- *Euskarazko hizkuntza-komunikazioaren kompetentzian*, lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean. Kasu guztietan, ISEK maila altuari errendimendu altua dagokio, eta aldeak adierazgarriak dira.
- ISEK maila Altuak eta Ertain Altuak biltzen dituzte ikasleen ehuneko altuak eta % 70 gainditzera iristen dira (% 73,7 maila Altuan eta % 70,8 maila Ertain Altuan).
- ISEK Maila Baxuan, ikasleen erdia baino gutxiago (zehazki % 46,3) iristen da kompetentzia honetako maila ertain eta aurreratura.
- Ondorioz, ISEK Maila Baxuak eta Ertain Baxuak biltzen dute kompetentziaren hasierako mailako ikasle ehunekorik altuena (% 53,7 ISEK Maila Baxuan eta % 34,4 Maila Ertain Baxuan).

6. Emaitzen bilakaera. ED09 eta ED10 ebaluazioen arteko alderaketa.

- Ebaluazio honetan, igoera nabarmena gertatzen da kompetentzia honetako batez besteko puntuazio orokorrean (250 eta 258 puntu artean).
- Maila aurreratuan kokatzen den ikasleen ehunekoak % 6 egin du gora, eta Hasierako eta Erdiko mailai dagozkien ikasleen ehunekoa murriztu egin da, 5 puntu eta puntu 1.
- B eredu publikoak izan ezik, geruza guztiek batez besteko puntuazioa igo egin dute. Igoera hori, aurreko ebaluazioari dagokionez, 4 eta 15 puntu artekoa da eta adierazgarria da A eredu publiko eta itunpekoa, itunpeko B ereduaren, eta D eredu publiko eta itunpekoaren kasuan.
- *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziaren* kasuan, lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean, batez ere, ISEKeko maila baxua, ertain baxua eta ertain altua direnean. Kasu horietan, ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio, eta aldeak adierazgarriak dira.

2. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia

Definizioa

Gaztelaniaz hizkuntza erabiltzeko gaitasuna da, hau da, kontzeptuak, pentsamenduak, sentimenduak, gertaerak eta iritziak adierazteko eta interpretatzeko gaitasuna, ahozko eta idatzizko diskurtsoen bidez, eta izan daitezkeen testuinguru sozial eta kultural guztietan hizkuntza mailan elkarreragiteko.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia bost dimentsiotan dago egituratuta (entzumena, irakurmena, mintzamena, idazmena eta ahozko elkarreragina), eta bost horietatik honako hiru hauek ebaluatu dira:

Irakurmena gaztelaniaz

Era askotariko testuetan oinarriturik galderak egiten zaizkie ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizteko gai diren, testuari koherentzia emateko bertako informazio ezberdinak lotzen dituen, eta, azkenik, testuaren xedea eta igorlearen helburua identifikatzen dituen baloratzeko.

Entzumena gaztelaniaz

Mota desberdinetako testuen bidez ebaluatu da eta hurrengo hauetarako gaitasuna neurtu da: testuaren esanahi orokorra identifikatzeko, testuaren helburua antzemateko, behar den informazioa identifikatzeko eta hautatzeko, edo testua kritikoki interpretatzeko.

Idazmena gaztelaniaz

Gaztelaniazko idazlan baten bidez, emandako gaiaren egokitasuna eta garapena, testuaren kohesioa eta koherentzia eta erabilitako lexikoa, gramatika eta ortografia neurtu dira. Dimentsio hori baloratzeko, DBHko 2. mailako ikasleei 100 hitzetako idazlana eskatu zitzaion. 20 hitzetatik gorako idazlan guztiak zuzendu dira eta honako alderdi hauek baloratu dira:

Gaiaren egokitasuna eta garapena:

- Testuaren xedea kontuan hartu den ala ez.
- Komunikazio-egoerarekiko hizkuntza-erregistro egokia erabili den ala ez.
- Aditz-pertsonari eutsi dion.

Testuaren koherentzia eta kohesioa:

- Informazioaren aurrerapenari eutsi dion (ordena azalpenean, errepikapenak, inkoherentziak...)
- Eskatutako testuaren egitura errespetatzen den eta alderdiak ondo berezita ageri diren.
- Eskatutako testurako egokiak diren hizkuntza-baliabideak erabili dituen.

Lexikoa, gramatika eta ortografia:

- Erabilitako lexikoa (errepikapenak, sinonimoak erabiltzea...).
- Erabilitako esaldi motak.
- Ortografia-akats larriak eta puntuazio-akatsak.

Hauek dira ebaluatu ez diren dimentsioak:

- Mintzamena
- Ahozko elkarreragina


• **Emitza orokorrak Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian**

EAEko DBH 2ko ikasleen batez besteko emitza *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* **252** puntutan finkatu da. Ondoko taulan kompetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera. Kompetentziako puntuaziorik altuena **372** puntukoa izan da eta apalena **98** puntukoa.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	16.439	98	372	252	43

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia mailetakoko bakoitzean.

31. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen arabera



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ikasleen % 88 inguru erdiko mailan eta maila aurreratuan dago. EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 12k hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 59 inguru kompetentziako erdiko mailan dago, eta % 29 inguruk kompetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

Kompetentzia mailen deskribapena Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
Diskurtso-trebetasunei dagokienez, maila honetako ikasleak bere adinari dagozkion komunikazio-zereginak modu osatugabea gauzatzen ditu edo egoki gauzatzeko laguntza behar izaten du. Kasu gehienetan, erabilera-esparru ezberdinetako ahozko zein idatzizko ohiko	Diskurtso-trebetasunei dagokienez, maila honetako ikasleak bere adinari dagozkion komunikazio-zereginak modu osatugabea gauzatzen ditu edo egoki gauzatzeko laguntza behar izaten du. Kasu gehienetan, erabilera-esparru desberdinetako ahozko zein idatzizko ohiko testuen	Diskurtso-trebetasunei dagokienez, maila honetako ikasleak bere adinari dagozkion komunikazio-zereginak egokitasun handiz egiten ditu. Erdiko mailan deskribatutako zereginaz gain, erabilera-esparru ezberdinetako ahozko zein idatzizko ezohiko

<p>testuen esanahi orokorra edo xedea antzemateko gai da. Konplexutasun gutxiko testuetan, lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Informazio esplizitua antzematen du, eta testuko pasarte baten edukiari buruzko inferentzia zuzenean egiten du. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, emandako komunikazio-egoerarako hizkuntza-erregistro egokia erabiltzeko arazoak izaten dituen arren. Mota ezberdinetako testuen ezaugarriren bat erabiltzen du, baina modu partzialean edo desegokian komunikazio-helburua betetzeko. Gabeziak erakusten ditu ideien antolamenduan eta garapenean, baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideen erabilera mugatua da, eta lexiko-, gramatika- eta ortografia-akats batzuk egiten ditu.</p>	<p>esanahi orokorra edo xedea antzemateko gai da. Konplexutasun gutxiko testuetan lehen eta bigarren mailako ideiak bereizten ditu. Informazio esplizitua antzematen du, eta testuko pasarte baten edukiari buruzko inferentzia zuzenen bat egiten du. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko erlazio sinpleak egiteko gai da.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu errazak idazteko gai da, emandako komunikazio-egoerarako hizkuntza-erregistro egokia erabiltzeko arazoak izaten dituen arren. Mota ezberdinetako testuen ezaugarriren bat erabiltzen du, baina modu partzialean edo desegokian komunikazio-helburua betetzeko. Gabeziak erakusten ditu ideien antolamenduan eta garapenean, baita testuaren kohesioan ere. Hizkuntza-baliabideen erabilera mugatua da, eta lexiko-, gramatika- eta ortografia-akats batzuk egiten ditu.</p>	<p>testuetako ideiak erlazionatzeko gai da. Informazio inplizitua edo anbigua identifikatu eta interpretatzen du. Testuko ideiak laburtzen eta erlazionatzen ditu. Testuko informazioaren eta ezagupen pertsonalaren arteko loturak egiten ditu.</p> <p>Idazmenari dagokionez, ikaslea testu ongi egituratuak idazteko gai da, mota desberdinetako testuen ezaugarriei egokituta. Ideiak koherentziaz aurkezten eta garatzen ditu testuaren xedea betetzeko. Hizkuntza-baliabideen erabilera maila ona erakusten du. Jariakortasunez eta ortografiaren eta gramatikaren aldetiko zuzentasunez adierazteko gai da.</p>
--	--	---


● **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak dimentsioen arabera**

Ondoko taulan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* kontuan izan diren ikasleen kopurua ikus daiteke, konpetentzia honetan ebaluatutako hiru dimentsioetako (*Entzumena*, *Irakurmena* eta *Idazmena*) gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako dimentsioak	Kopurua	Gutxiene koa	Gehiene koa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Entzumena	16.439	96	373	253	47
Irakurmena	16.439	83	371	252	47
Idazmena	16.439	83	374	250	50

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren hiru konpetentzia mailletako bakoitzean.

32. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako 3 dimentsioetan.



Hiru dimentsioek, *Entzumenak*, *Idazmenak* eta *Ulermenak* antzeko emaitza dute:

- Ikasleen % 14 inguru dimentsio bakoitzeko hasierako mailan kokatzen da.
- Ikasleen % 55 eta % 61 artean erdiko mailan kokatzen da; zehazki, *Idazmenak* biltzen du ehunekorik altuena (% 61,2).
- Maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa % 25 eta % 31 artekoa da. Maila aurreratuan, *Entzumenak* biltzen du % 30,8.

Ondoko taulak ikaslea ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia maila bakoitzean zer egiteko gai den deskribatzen du aipatutako hiru dimentsioetan (hasierako, erdiko eta aurreratua).

Kompetentzia mailen deskribapena Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako dimentsioetan

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
Entzumena		
Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio zehatza testuan kokatzen dute (datuak). ✓ Testuaren helburua identifikatzen dute. ✓ Testuaren edukian zuzeneko inferentziak egiten dituzte. ✓ Testuaren ideia nagusiak identifikatzen dituzte. ✓ Testuaren ideia orokorra laburbiltzen dute. ✓ Testuaren edukian zeharkako inferentzia errazak egiten dituzte. 	Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio esplizitua identifikatzen dute (ideiak). ✓ Testurako izenburu egokia aukeratzen dute. ✓ Testuaren edukian zeharkako inferentzia errazak egiten dituzte. ✓ Mota bereberko hainbaten artean informazio zehatza ezagutzen dute (datuak). 	Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren zatien edukia interpretatzen dute. ✓ Beren eskola mailan oso ohikoa ez den lexikoa ezagutzen dute. ✓ Testuaren edukia eta ezagutza personala lotzen dute.
Irakurmena		
Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Beren eskola mailan ohikoa den lexikoa ezagutzen dute. ✓ Testuaren gaia ezagutzen dute. ✓ Testuaren helburua identifikatzen dute. ✓ Ideia nagusiak eta bigarren mailakoak bereizten dituzte. ✓ Puntuazio-zeinuen esanahia ezagutzen dute. ✓ Testuaren hartzailea identifikatzen dute. 	Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazioaren eta iritziaren arteko bereizketa egiten dute. ✓ Nolabaiteko anbiguotasuna duten enuntziatuak ondo interpretatzen dituzte. ✓ Informazio inplizitua identifikatu eta interpretatzen dute. 	Maila honetako ikasleak hurrengo hauek egiteko gai dira: <ul style="list-style-type: none"> ✓ Testuaren edukia eta ezagutza personala lotzen dute. ✓ Testuaren ideia desberdinak laburbildu eta lotzen dituzte. ✓ Testuan informazio anbigua eta osatu gabea interpretatu eta ondorioztatzen dute.

<ul style="list-style-type: none"> ✓ Informazio esplizitua kokatzen dute (datuak eta ideiak). ✓ Testuaren zatien edukia interpretatzen dute. 		
Idazmena		
<p>Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Proposatutako helbururako ondo landu gabeko eta batzuetan oso garrantzitsua ez den informazioa eskaintzen dute. ✓ Komunikazio-egoerarako egokia ez den hizkuntza-erregistroa erabiltzen dute. ✓ Testuaren helburua zailtasunez ezagutzen dute. ✓ Informazioan nolabaiteko desordena aurkezten dute; horrek ulermena zailtzen du. ✓ Argudio-testu baten testu-ezaugarrietara zailtasunez egokitzen dira. ✓ Testuaren koherentzia eta kohesioan gabeziak daudela ikus daiteke. ✓ Lexikoan eta gramatikan akatsak dituzte. 	<p>Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Proposatutako helbururako informazio garrantzitsua eskaintzen dute. ✓ Batez ere komunikazio-egoerarako egokia den hizkuntza-erregistroa erabiltzen dute. ✓ Testuaren helburua ezagutzen dute. ✓ Informazioa logikoki antolatzen dute, ulermena errazte aldera. ✓ Kasu gehienetan, argudio-testu baten testu-ezaugarrietara egokitzen dira. ✓ Testua kohesionatzeko zenbait hizkuntza-baliabide erabiltzen dituzte. ✓ Oro har, ortografia- eta gramatika-arauak errespetatzen dituzte. ✓ Lexiko egokia erabiltzen dute. 	<p>Ikasleek maila honetan sortutako testuek ezaugarri hauek dituzte:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Proposatutako helbururako informazio asko eta garrantzitsua eskaintzen dute. ✓ Komunikazio-egoerarako egokia den hizkuntza-erregistroa erabili eta mantentzen dute. ✓ Informazioa modu koherentean antolatu eta egituratzen dute. ✓ Argudio-testu baten testu-ezaugarrietara egokitzen dute. ✓ Testua kohesionatzeko hizkuntza-baliabideak erabiltzen dute. ✓ Ortografia- eta gramatika-arauak errespetatzen dute. ✓ Lexiko zehatza erabiltzen dute.


- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioko kompetentzien emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Horiez gain, geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A Publikoa	663	223	1,74
B Publikoa	913	243	1,40
D Publikoa	5.839	249	0,55
Itunpeko A	1.679	258	1,06
Itunpeko B	3.865	261	0,68
Itunpeko D	3.480	255	0,70
Guztira: 16.439			

Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua (16.439) eta euskarazko kompetentziako puntuazioan sartutakoena (15.872) ez datoz bat, zenbait ikasle euskaratik salbuetsita baitaude, eta, beraz, ez baitira kompetentzia honetako puntuazioan sartu.

33. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendua geruzen arabera.




Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik.

Neurrien adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- Kompetentzia honetan, sare publikoko geruzek itunpeko sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak dituzte.
- Itunpeko A eta B ereduko emaitzak berdinak dira, ez dute alde adierazgarririk.
- D eredu publikoko ikasleek sare publikoko gainerako bi geruzek baino emaitza nabarmen altuagoak dituzte. Hala eta guztiz ere, itunpeko sarearen kasuan egoera hori ez da berdin aurkezten.

Ondoko grafikoan geruza bakoitzeko ikasleen ehunekoa azaltzen da *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* finkatu diren hiru kompetentzia mailetan.

34. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendua geruzen arabera.




Geruzen azterketak hainbat alor erakusten ditu:

- A geruza publikoko ikasleen % 34 inguru kompetentzia honetako hasierako mailetan dago eta % 11,3k soilik lortu du maila aurreratura iristea.
- EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 88 erdiko mailan eta maila aurreratuan kokatzen direla kontuan hartuta, A geruza publikoak izan ezik, gainerako geruzak % 84tik (B publikoa) % 91ra (itunpeko B) doaz.

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera**


35. grafikoan ikus daiteke *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak adierazten dira ebaluazio honetan aintzat hartutako 6 geruzetan.

35. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Dimentsioetako errendimendua geruzen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Hiru dimentsioetako puntuazioak, oro har, homogeneo samarrak dira geruza bakoitzaren barnean; Dimentsio bakoitza berezita ikusten baldin badugu, geruza bakoitzeko emaitzak hurrengo grafikoan daude adierazita.

36. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Geruzetako errendimendua dimentsioen arabera gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian.



Hau ondoriozta daiteke:

- *Irakurmenean*, itunpeko A eta B-ren emaitzak estatistikoki berdinak dira, eta era berean, itunpeko D-renak eta sare publikoko guztienak baino altuagoak dira.
- Era berean, *Idazmenean*, D eredu publikoko eta itunpeko A ereduko emaitzak berdinak dira estatistikoki. Dimentsio horretan, itunpeko B eta D ereduko emaitzak berdindu egiten dira eta gainerako geruzenak baino altuagoak dira.

- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera**


Hurrengo taulak konpetentzia honetako DBHko 2. mailako ikasleak erakusten ditu, baita bakoitzaren etxeko hizkuntza ere. Hezkuntza maila honetan, % 20 inguruk euskara dute etxeko hizkuntza eta % 77k baino gehiagoren etxeko hizkuntza ez da euskara (gaztelania edo beste hizkuntza batzuk izan daitezke), eta % 2k “ez daki edo ez du erantzuten” esan du.

	Euskara		Gaztelania edo beste hizkuntza bat	
	Kopurua	%	Kopurua	%
GUZTIRA: 16.439	3.349	20,37	12.749	77,54

(*) Taula honetan ez dago konpetentzia honen ebaluazioan parte hartu duen eta galdera-sortako galdera honi “Ez daki- ez du erantzuten” erantzun dion ikasleen % 2,08.


Ikasleen etxeko hizkuntza aztertzean, etxean euskara erabiltzen duten ikasleek *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* proban 248 puntu lortu dituztela ikusten da, eta etxeko hizkuntza gaztelania edo beste hizkuntzaren bat (ez euskara) dutenek 254 puntu lortu dituztela. Aldea adierazgarria da.

37. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen etxeko hizkuntza eta errendimendua gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian.



Jarrian, *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* errendimendu mailetan kokatzen den ikasleen ehunekoa ageri da etxeko hizkuntzaren arabera.

38. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa ta errendimendu mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian etxeko hizkuntzaren arabera.




Konpetentzia mailen arabeko analisisian, etxean euskaraz hitz egiteko joerarik ez duten (gaztelania edo beste hizkuntza batzuk hitz egin ditzakete) ikasleen % 88k erdiko maila eta maila aurreratua lortu dituzte. Maila horietan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen kopurua % 86koa da gutxi gorabehera.

- **Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetenziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**

Ondoko grafikoa ISEK lau mailetan lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.


39. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Errendimendua gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ISEK mailen arabera.



Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian, Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia mailetan kokatutako ikasleen ehunekoa ageri da ISEK mailaren arabera.

40. grafikoa. ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen errendimendu-mailetan gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia ISEK mailen arabera.



Honako hau ondorioztatzen da:

- ISEK maila altuenean, ikasleen % 94 kompetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; bien bitartean, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 74.
- Errendimendu mailen ikuspegitik, ISEK maila altuko ikasleen ia % 39k maila aurreratua erdiestea lortu du, eta ISEK maila baxuko ikasleen artean, % 20k lortu du kompetentzia honetako maila aurreratura iristea.

- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa**

Geruza bakoitzari dagokion ikaslearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) kontrolatzen denean, hau da, geruza guztiek ISEK balio berbera izanez gero emaitza zein izango litzatekeen kalkulatu denean, zenbait aldaketa gertatzen dira *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* hasierako eta amaierako puntuazioen artean.


Aldagai honek geruza bakoitzaren emaitzan izan duen efektua kalkulatzeko, galdera-sortan ISEK balio bat esleituta galderak erantzun zituen ikaslea soilik hartu da kontuan. Geruza bakoitzean galdera erantzun ez duten ikasle kopuru jakin bat dagoenez, murrizketa gertatu da geruza bakoitzari dagokion kopuruan, eta ondorioz, aldaketa txiki batzuk gertatu dira geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioan, biztanleria guztiaren puntuazio orokorrarekin alderatuta. Jarraian, ikasle guztien batez besteko orokorrari dagokionez kompetentzia honetako puntuazioan aldaketak, eta gainera, ISEK balio bat esleitu zaion ikaslearen batez bestekoa ageri dira.

	Ikasle guztien batez besteko orokorra		ISEKen galderak erantzun dituen ikasleen batez bestekoa	
	Kopurua	Batez bestekoa	Kopurua	Batez bestekoa
A publikoa	663	223	415	230
B publikoa	913	243	740	246
D publikoa	5.839	249	5.013	251
Itunpeko A	1.679	258	1.422	262
Itunpeko B	3.865	261	3.430	263
Itunpeko D	3.480	255	3.137	256

Geruza guztietan ikus daitekeen moduan, ISEK kalkulatu den ikasleen kopurua hasierakoa baino baxuagoa da; izan ere, ISEKen balioa kalkulatzeko beharrezkoak diren galdera-sortako galderak erantzun ez zituztenei dagokie. Kopuruan izandako aldaera honen eraginez, kompetentziako batez besteko puntuazioa, ISEKen balioa esleituta duen ikaslearen gainean soilik kalkulatu, aldatu egin da eta geruza guztietan igoera gertatu da.

ISEKek izan dezakeen efektua baliogabetzen denean geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioak izan dezakeen aldaera erakusten du hurrengo grafikoak.

41. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian ISEK kontrolatu osteko puntuazioa.



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik.

Konpetentzia honetan, geruza publiko guztiek eta itunpeko D ereduak batez besteko puntuazioan gora egiten dute ISEKen efektua kontrolatzen denean. Itunpeko A eta B geruzek punturen bat murriztuko lukete batez bestekoa.

Aldeen adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, hurrengo hau gertatuko litzatekeela:

- Itunpeko hiru geruzen artean ez litzateke alderik egongo. Itunpeko D ereduak itunpeko A eta B-rekin berdinduko luke puntuazioa.
- Hiru geruza publikoek puntuazioa handituko luketen arren (modu adierazgarrian A eta B publikoen kasuan bakarrik), bien arteko eta itunpeko geruzekiko aldeek adierazgarriak izaten jarraituko lukete.


ED2009 ETA ED2010 EBALUAZIOETAN GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIORAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN BILAKAERA

Egindako bi ebaluazio diagnostikoetan konpetentzia honetan lortutako emaitzak alderatzen dira eta honako alor hauek antzematen dira:

➤ Batez besteko puntuazioaren bilakaera

Konpetentzia honetako batez besteko puntuazioak 2 puntuko igoera nabarmena izan du.


42. grafikoa: ED09-10 bilakaera. DBHko 2. maila. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako batez besteko puntuazioa.



➤ Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera

Hasierako mailetan (% 4) eta maila aurreratuan (% 1) kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du. Ondorioz, konpetentzia honetako erdiko mailan kokatutako ikasleen kopuruak % 5 egin du gora.


43. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. DBHko 2. maila. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako mailetako ikasleen ehunekoa.



➤ **Batez besteko puntuazioaren bilakaera geruzen arabera**

Geruza bakoitzari erantzunez, ebaluazio honetan, B eta D geruza publikoek eta itunpeko B geruzak ED2009an lortu zituzten puntuazioak mantendu dituzte. Gainerako geruzek zertxobait igo dute konpetentzia honetako batez besteko puntuazioa; hala ere, igoera A geruza publikoan eta itunpeko D geruzan soilik da adierazgarria.

44. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako kompetenziako batez besteko puntuazioa geruzen arabera.



GAZTELANIAZKO HIZKUNTZA-KOMUNIKAZIOAREN KONPETENTZIAKO EMAITZEN ONDORIOAK

1. Konpetentzia mailak

- Ikasleen % 88 inguru *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* maila ertainean eta aurreratuan dago.
- EAeko DBH 2ko ikasleen % 12k *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako* hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. DBH 2ko ikasleen % 59 konpetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 29k konpetentziako maila aurreraturako definitu diren trebezia konplexuagoak menderatzea lortu du.

2. Emaitzak Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziako dimentsioen arabera.

- Hiru dimentsioek, *Entzumenak*, *Idazmenak* eta *Ulermenak* antzeko emaitza dute.
- Ikasleen % 14 inguru dimentsio bakoitzeko hasierako mailan kokatzen da.
- Ikasleen % 55 eta % 61 artean erdiko mailan kokatzen da; zehazki, *Idazmenak* biltzen du ehunekorik altuena (% 61).
- Maila aurreratuan dagoen ikasleen ehuneko % 25 eta % 30 artekoa da. Maila aurreratuan, *Entzumenak* biltzen du % 30,8.

3. Analisisa geruzen arabera

Emaitza orokorrak

- Konpetentzia honetan, sare publikoko geruzek itunpeko sarekoek baino emaitza nabarmen baxuagoak dituzte.
- Itunpeko A eta B ereduko emaitzek ez dute alde adierazgarririk.
- D eredu publikoko ikasleek sare publikoko gainerako bi geruzek baino emaitza nabarmen altuagoak dituzte. Hala eta guztiz ere, itunpeko sarearen kasuan egoera hori ez da berdina aurkezten.

Emaitzak errendimendu mailen arabera

- A geruza publikoko ikasleen % 34 inguru konpetentzia honetako hasierako mailetan dago eta % 11,3k soilik lortu du maila aurreratura iristea.
- EAeko DBHko 2. mailako ikasleen % 88 erdiko mailan eta maila aurreratuan kokatzen direla kontuan hartuta, A geruza publikoak izan ezik, gainerako geruzak % 84tik (B publikoa) % 91ra (itunpeko B) doaz.

Emaitzak konpetentziako dimentsioen arabera

- Homogeneotasun handia dago geruzetako emaitzen artean dimentsio guztietan.
- *Irakurmenean*, itunpeko A eta B-ren emaitzak estatistikoki berdinak dira, eta era berean, itunpeko D-renak eta sare publikoko guztienak baino altuagoak dira.
- Era berean, *Idazmenean*, D eredu publikoko eta itunpeko A ereduko emaitzak berdinak dira estatistikoki. Dimentsio horretan, itunpeko B eta D ereduko emaitzak berdindu egiten dira eta gainerako geruzenak baino altuagoak dira.

4. Emaitzak etxeko hizkuntzaren arabera

- DBHko 2. mailako ikasleen artean % 20k baino gehiagok euskara du etxeko hizkuntza eta % 77 inguruk ez dute euskara etxeko hizkuntza.
- Familia euskalduneko ikasleek 248 lortu dituzte *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, eta familian gaztelaniaz edo bete hizkuntza batean hitz egiten dutenek 254 puntu. Aldea adierazgarria da.
- Konpetentzia mailen araberrako analisisian, etxean euskaraz hitz egiteko joerarik ez duten

(gaztelania edo beste hizkuntza batzuk hitz egin ditzakete) ikasleen % 88k erdiko maila eta maila aurreratua lortu dituzte. Maila horietan, etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen kopurua % 86koa da gutxi gorabehera.

5. Emaidzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

- *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lotura handia dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean; ISEK altuenari errendimendu handiagoa dagokio eta alde horiek adierazgarriak dira kasu guztietan.
- ISEK maila altuenean, ikasleen % 94 konpetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; bien bitartean, ISEK maila baxuenekoen artean dago ikasleen % 74.
- Errendimendu mailen ikuspegitik, ISEK maila altuko ikasleen ia % 39k maila aurreratua erdiestea lortu du, eta ISEK maila baxuko ikasleen artean, % 20k lortu du konpetentzia honetako maila aurreratura iristea.

6. ISEK efektuaren analisia geruza bakoitzean.

- ISEK-en efektua baliogabetuko balitz, itunpeko hiru geruzen artean ez litzateke alderik egongo. Itunpeko D ereduak itunpeko A eta B-rekin berdinduko luke puntuazioa.
- Hiru geruza publikoek puntuazioa handituko luketen arren (modu adierazgarrian A eta B publikoen kasuan bakarrik), bien arteko eta itunpeko geruzekiko aldeek adierazgarriak izaten jarraituko lukete.

7. Emaidzen bilakaera. 2009 eta 2010 ebaluazioen arteko alderaketa

- Batez besteko puntuazioak 2 puntuko igoera nabarmena izan du.
- Hasierako mailetan (% 4) eta maila aurreratuan (% 1) kokatutako ikasleen ehunekoak behera egin du. Ondorioz, erdiko mailan kokatutako ikasleen ehunekoak gora egin du.
- ED2009an B eta D geruza publikoetan, eta itunpeko A eta B geruzetan lortutako puntuazioak mantendu egin dira; A geruza publikoan eta itunpeko D geruzan nabarmen igo dira.

3. Matematikarako kompetentzia

Definizioa

Matematikarako kompetentzia zenbakiak, haien oinarrizko eragiketak, sinboloak eta adierazpen eta arrazoitze matematikoko formak erabiltzeko eta lotzeko gaitasuna da, bai informazio mota ugariak sortzeko eta interpretatzeko, bai errealtateko arlo kuantitatibo eta espazialei buruzko ezagutza zabaltzeko, baita eguneroko bizitzarekin eta laneko munduarekin lotutako arazoak konpontzeko ere.

Matematikarako kompetentzia 4 bloke edo dimentsio handitan egituratu da:

Kopurua.

Honelako kontzeptuen inguruko alorretan oinarritzen da: kopuruaren kontzeptua, horren ordezkapena, eragiketen esanahia, zenbaki-magnitudeak eta kalkuluak eta matematika-estimazioak. Gainera, algebratutazaren oinarrizko elementuak, neurri erlatiboa ulertzea, urrats numerikoak ezagutzea eta benetako munduko objektuen neurria aitortzearen moduko gaiak biltzen ditu; era berean, objektu horien ezaugarriak modu numerikoan kuantifikatzeko eta ordezkatzeko lanak jasotzen ditu.

Espazioa eta forma

Eremu geometrikoei buruzko alorrak sartzen ditu, baina modu integratzailean eta aplikaziokoan ulertuta, hau da: objektuen kokapen erlatiboa ulertzea; espazioaren, eta eraikuntzen eta formen bidez mugitzen ikastea; formen eta irudien edo errepresentazio bisualen arteko loturak ulertzea.

Aldaketak, erlazioak eta ziurgabetasuna.

Lotura errazen bidez deskriba daitezkeen eta kasuren batean oinarrizko matematika-funtzioen bidez adieraz daitezkeen elementuak hartzen ditu. Ziurgabetasunarekin lotutako osagaiak lotura du datuekin eta zoriarekin. Bi elementu horiek, datuak eta zoria, ikerketa matematikoaren baitan daude eta estatistikatik eta probabilitate arlotik erantzun ohi zaie, hurrenez hurren.

Problemen ebazpena.

Problemen ebazpenarekin zuzenean lotutako alorretan oinarritzen da, hau da: egoera errealak eskemetara edo matematika-ereduetara itzultzea; problema mota desberdinak (matematika alorrekoak, aplikatuak, erantzun irekikoak, itxiak eta abar) planteatu, adierazi eta definitzea; problema mota desberdinak ebaztea estrategia egokiak aukeratuz eta lortutako irtenbideak egiaztatuz.

Kompetentzia hau puntuazio orokorraren bidez neurtu da eta horrek 2009ko Ebaluazio diagnostikoaren emaitzak alderatzea ahalbidetzen du. Gainera, dimentsio bakoitza ebaluatzen da eta horietako bakoitzarentzat puntuazio berezia eskaintzen da.


- **Matematikarako kompetentziako batez besteko emaitzak**

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen batez besteko emaitza *Matematikarako kompetentzian* **250,30** puntutan finkatu da. Ondoko taulan kompetentzia honetan kontuan hartu diren ikasleen kopurua azaltzen da, lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioekin batera.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Matematikarako kompetentzia	16.522	99	387	250	51,14

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia mailletako bakoitzean.

45. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Matematikarako kompetentziako errendimendu mailen arabera



EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 15ek hasierako mailarako deskribatu diren trebetasunak bakarrik menderatzen ditu. Ikasleen % 58,1 kompetentziako erdiko mailan dago, eta ikasleen % 26k kompetentziako maila aurreratuari dagozkion trebezia konplexuagoak menderatzen ditu. ikasleen % 84,2 dago *Matematikarako kompetentziako* erdiko mailan eta maila aurreratuan.

Ondoko taulak ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia maila bakoitzean (hasierakoa, erdiko maila eta maila aurreratua) ikasleak zer egiteko gai diren deskribatzen du. Hortik abiatuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta daiteke.

Matematikarako kompetentziako mailen deskribapena.


Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
<p><i>Hasierako mailan</i> dagoen ikasleak ohiko prozedura algoritmikoak erabiltzen ditu, eta bere irakasmalari dagozkion ariketak zailtasunekin planteatzen eta ebazten ditu.</p> <p>Oro har, egoera ezberdinetan dauden matematikari buruzko informazio sinpleak ulertzeko, interpretatzeko eta komunikatzeko gai da. Kasu gehienetan, zenbakizko kalkulu sinpleak egin ditzake, eta horrekin batera, aljebra-hizkuntza lehen mailako ekuazio oso sinpleak ebazteko erabili, formen eta erlazio geometrikoen ezagupena eguneroko egoerei irtenbidea emateko erabili, eta datuen interpretazioari eta antolamenduari lotutako problema</p>	<p><i>Erdiko mailan</i> dagoen ikasleak matematika-hizkuntza egokia erabiltzen du. Gainera, matematika-gai ezberdinak elkarrekin erlazionatzeko gai da, eta bere irakasmalari dagozkion ariketa klasikoak segurtasunez ebazten ditu.</p> <p>Hasierako mailan deskribatutako gaitasunez gain, erdiko mailako ikasleak normalean mota desberdinetako zenbakiak erabiltzea eskatzen duten kalkuluak segurtasunez egiteko gai da, ehunekoen kalkuluari lotutako problemak ebazteko, formatu desberdinetan aurkeztutako funtzio-erlazio sinpleak interpretatzeko eta ausazko esperimentu sinpleetan ausazko gertakari baten probabilitatearen balioari buruzko iragarpen zentzuzkoak egiteko.</p>	<p><i>Maila aurreratuan</i> dagoen ikasleak, matematikaren arlo desberdinak erlazionatzeaz gain, arrazoiaketa landuak ere erabiltzen ditu, gogoetatsua da, logikaz argudiatzen du, eta problema originalak ebazteko gai da.</p> <p>Aurreko mailetan deskribatutako gaitasunez gain, maila aurreratuako ikasleak zenbakiei, neurriei eta magnitudeei buruzko ezagupenak erabil ditzake era desberdinetako magnitudeak erlazionatzea eskatzen duten egoerei irtenbidea emateko. Geometriako nozioak eta espazioaren adierazpen-sistemak sormenak erabiltzea eskatzen duten espazioaren pertzepzio- eta diskriminazio-problema ebaz ditzake. Ikasle horrek, oro har, estrategia heuristikoko desberdinak</p>

<p>sinpleak ebatzi. Ausazko esperimentu sinpleetan iragarpenak egin ditzake ausazko gertakari baten probabilitatearen balioaz duen esperientzian oinarrituta. Egoera esplizitueta eta argibide zuzenak jarraituz informazioa identifikatzeko eta ohiturazko prozedurak gauzatzeko gai da. Normalean erreproduktzio-teknikak deitutakoak erabiltzen ditu. Hala ere, kasu gehienetan, aplikatzeko arazoak eta erabiltzeko akatsak izaten ditu.</p>	<p>Zenbakizko eta geometriazko proportzionaltasun-erlazioak identifika ditzake, eta eguneroko egoera desberdinetan probabilitateari lotutako problemak ebazteko erabil ditzake. Datuen interpretazioari eta antolamenduari lotutako problemak ebaztean, ikaslea gai da aztertutako datuetatik eta grafikoetatik ondorio zentzuzkoak ateratzeko eta portaerak iragartzeko. Informazio-iturri desberdinetako adierazpenak interpretatu eta erabil ditzake eta haietatik ondorio zuzenak atera. Bere interpretazioak, emaitzak eta arrazoiketak idazki laburretan adierazteko gai da. Oro har, problemak ebazteko estrategia heuristiko desberdinak ezagutzen eta erabiltzen ditu, nolabaiteko konplexutasuna duten problemak ebazteko gai da eta zereginak gauzatzeko segurtasun handi samarra du. Normalean lotura-teknikak deitutakoak erabiltzen ditu, hau da, nolabaiteko zailtasuna duten problemak ebaz ditzake, baina oraindik egoera ezagun samarretan.</p>	<p>ezagutzen eta erabiltzen ditu eta problemak ebazteari dagokionez badaki zein diren garrantzitsuenak; aukera desberdinak aztertzen eta ebaluatzen ditu, eta egokienak antzematen ditu; emaitza egiaztatzen du, eta jarraitutako prozesuari buruz hausnartzen du; emandako problemaren emaitza hobetzeko edo beste problema batzuen ebazpenerako erabilgarriak izan daitezkeen ondorioak ateratzen ditu. Gainera, bere interpretazioak eta arrazoiketak jarratasunez eta segurtasunez adierazteko gai izaten da eta matematika-hizkuntza egokia erabiltzen du. Normalean hausnarketa-teknikak erabiltzen ditu, eta horrek emandako egoerak sakonago ezagutzea eskatzen du, baita sormen handiagoa ere problema baten matematika-elementuak identifikatzeko eta elkarren arteko erlazioak finkatzeko.</p>
--	---	---

• Emaitzak Matematikarako kompetentziako dimentsioen arabera

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da kompetentzia honetan definitu diren gaitasun mailletako bakoitzean.

46. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailen arabera Matematikarako kompetentziako dimentsioetan.



Lau dimentsioek ikaslearen ehunekoen antzeko banaketa dute errendimendu mailan. *Kantitatea* eta *Espazioa eta forma* dimentsioak dira joerarik onena dutenak, maila aurreratuan ikasleen % 30 baino kopuru altuagoa mantenduz.

Hurrengo taulan *Matematikarako kompetentzian* definitutako hiru mailletako adierazleak deskribatzen dira.

Matematikarako kompetentziako mailen adierazleak.

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
<p>Oro har, maila honetako ikasleek:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Ezagutza numerikoak sartu eta nolabaiteko zailtasunarekin erabiltzen dituzte problemak eta ariketak ebazteko garaian. ✓ Neurketarekin lotutako problemak ebazten dituzte, prozedura informalak erabiliz. ✓ Hurbileko testuinguruan espazio-pertzepzioko jarduerak ebazten dituzte. ✓ Funtzio bat ordezkatzeko modu desberdinak erlazionatzen dituzte (modu grafikoa, taula, ahozkoa eta aljebraikoa). ✓ Emandako datuetatik abiatuta, ondorio errazak eta arrazoigarriak lortzen dituzte. 	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituzten ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Neurketarekin lotutako problemak ebazten dituzte, prozedura informalak eta akademikoak erabiliz. ✓ Ehunekoak zenbaki hamartarrekin eta zatikiekin lotzen dituzte. ✓ Problemak ehunekoekin lotutako testuinguru desberdinetan ebazten dituzte. ✓ Ezagutza aljebraikoa problemaren ebazpenarekin lotutako testuinguru errazetan txertatzen dute. ✓ Krokisa, planoak eta maketak hainbat objektu eta lekutako eskaletan interpretatzen dituzte. ✓ Arrazonamendu eta espazio-orientabideko problemak adierazi eta ebazten dituzte. ✓ Proporzionaltasun geometrikoarekin lotutako problemak ebazten dituzte. ✓ Nahasketen, aleazioen eta abarren motako problemak ebazten dituzte, prozedura estandarizatuak erabiliz. ✓ Emandako datuetatik eta grafikoetatik abiatuta, arrazoizko ondorioak ateratzen dituzte eta jokaerak iragartzeko gai dira. ✓ Esperimentu sinpleetan ausazko gertaera baten probabilitate-balioari dagokion arrazoizko iragarpenak egiten dituzte. ✓ Problema ebaztean lortutako irtenbideak eta jarraitutako prozesua modu argian eta ordenatuan aurkezten dute. ✓ Problemaren enuntziatuaren irakurketa ulergarria egiten dute, elementu garrantzitsuenak aukeratuz. ✓ Problema ebazteko hainbat estrategia heuristikoki ezagutu eta aplikatzen dituzte. 	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako eta erdiko mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituzten ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Neurketarekin lotutako problemak modu kreatiboan ebazten dituzte, baita hain ezagunak ez diren testuinguruetan ere, prozedura informalak eta akademikoak erabiliz. ✓ Hainbat testuingurutan eta metodo originalak eta kreatiboak erabiliz, espazioaren pertzepzio- eta diskriminazio-ariketak ebazten dituzte. ✓ Problemaren enuntziatuaren irakurketa ulergarria egiten dute, helburu bakoitzerako elementu garrantzitsuenak aukeratuz eta enuntziatuaren idazketa alternatiboak proposatuz. ✓ Estrategia heuristikoki anitzak ezagutu eta aplikatzen dituzte, problema ebaztera begira egokienak zein diren jakinez.


- **Matematikarako kompetentziako emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Ondoko taulan eta grafikoan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean lortutako puntuazioak aurkezten dira. Ondoa, geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A Publikoa	685	206	1,71
B Publikoa	913	234	1,61
D Publikoa	5.847	249	0,67
Itunpeko A	1.692	253	1,23
Itunpeko B	3.893	254	0,82
Itunpeko D	3.492	260	0,84

Guztira: 16.522

47. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehuneko errendimendu-mailen arabera Matematikarako kompetentzian.



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, koadroaren barnean daudenetan izan ezik.


Neurriek estatistikoki duten adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- A eredu publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira.
- Itunpeko D ereduaren geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu ditu.
- Itunpeko B eta A ereduaren artean ez dago alde adierazgarririk.
- Geruza bakoitzean, sare publikoko emaitzak itunpeko sarekoak baino nabarmen baxuagoak dira.

Puntuazio horien adierazgarritasuna Indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera ere aztertu da; aldagai horren bidez, geruza jakin batzuetan puntuazioak berdindu egiten dira. (Ikus 63-64 orrialdeak).

Ondoko grafikoan, geruza bakoitzean *Matematikarako kompetentzian* finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ageri dira.

48. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehuneko errendimendu-maila bakoitzean Matematikarako kompetentzian geruzen arabera.




Geruzen azterketatik honako ondorio hauek ateratzen dira:

- A geruza publikoko ikasleen ehuneko altu bat, % 47 ingurukoa, ez da *Matematikarako kompetentziako* hasierako maila gainditzera iritsi. Geruza honetako ikasleen % 5,4 soilik iritsi da maila aurreratura.
- B geruza publikoak, hasierako mailan dagoen ikasleen % 24rekin, maila honetako EAEko batez bestekoa (% 15,8) ere gainditzen du. D eredu publikoak edo itunpeko A ereduak batez bestekoaren antzeko ehunekoa dute maila baxuenean.
- Maila aurreratuan, itunpeko sareko hiru geruzek EAEko ikasleen batez besteko ehunekoa (% 26) gainditzen dute. D eredu publikoa dator jarraian eta ikasleen % 24,5ek lortzen du errendimendua *Matematikarako kompetentziako* maila honetan.

• Emaitzak Matematikarako kompetentziako dimentsioen eta geruzen arabera

Ebaluazioan aintzat hartutako 6 geruzetan *Matematikarako kompetentziako* dimentsio bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak grafikoki adierazten dira jarraian.

49. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Dimentsioetako errendimendua geruzen arabera Matematikarako kompetentzian.




Dimentsio bakoitzean geruzen emaitzak aztertuz, honako hau ikusten da:

- Ebaluatutako dimentsioetan lortutako emaitzak, oro har, nahikoa homogeneousak dira.
- A eta B geruza publikoek lortu dituzte puntuazio anitzenak dimentsioetan. A geruza publikoak 14 puntu arteko aldea kompetentziako dimentsioen emaitzan eta 10 puntu artekoa B geruza publikoan. Itunpeko geruzek eta D publikoak emaitza homogeneousagoak dituzte, 3 eta 7 puntu arteko alde txikiagoekin.
- *Aldaketak eta erlazioak* eta *Problemen ebazpenak* dimentsioek dute errendimendu antzekoena; hain zuzen ere, hainbat geruzatan puntuazio berbera lortzen dute (itunpeko hiruretan eta D eredu publikoan).

Matematikarako kompetentziako dimentsio bakoitzeko analisia ere erakusten da; baita geruza bakoitzak dituen emaitzak ere.

50. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Geruzetako errendimendua dimentsioen arabera
Matematikarako kompetentzian.



Geruza bakoitzeko emaitzei erantzunez, honako hau nabarmentzen da:

- Itunpeko D geruzak lortzen du errendimendurik handiena aintzat hartutako dimentsio guztietan. A eredu publikoak du errendimendurik baxuena.
- *Kopurua* da emaitzetako aldagarritasun handiena duen dimentsioa, eta emaitza baxuenaren (A publikoko 210 puntu) eta altuenaren (itunpeko D-ko 260 puntu) arteko aldea 50 puntukoa da.
- *Espazioa eta forma* da orekatuena, eta puntuazio baxuenaren (A publikoko 224) eta altuenaren (itunpeko D-ko 253) artean 29 puntuko aldea dago.


• Matematikarako kompetentziako emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera

Ikastetxeek bi aukera izan zuten ikasleek proba zein hizkuntzatan egin behar zuten erabakitzeko: euskara eta gaztelania. Kompetentzia honetan A ereduko ikastetxe gehienek gaztelania aukeratu zuten, eta D ereduko gehienek, euskara. B ereduetan, berriz, ehuneko txiki batek euskara aukeratu zuen, eta gehiengoak gaztelania aukeratu zuen, haietako hainbaten Matematikarako irakas-hizkuntza euskara zen arren. Hau da, ikasleek proba etxeko hizkuntzan egin zezaten aukeratu zuten.

Proba egiteko erabilitako hizkuntzaren arabera

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 253 puntu lortu zituzten, eta gaztelaniaz egin zutenek 246 lortu zituzten. Aldea adierazgarria da.

51. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Probako hizkuntza eta errendimendua Matematikarako kompetentzian.



Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza batera aztertzen direnean alde adierazgarri hori azal daiteke.

Geruza bakoitzean proba euskaraz eta gaztelaniaz egin duten ikasleen ehunekoa erakusten du taula honek.


Matematikarako kompetentzia proba egiteko erabili den hizkuntza geruzen arabera

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A Publikoa	-	-	685	100
B Publikoa	146	15,9	767	84,1
D Publikoa	5.847	100	-	-
Itunpeko A	-	-	1.692	100
Itunpeko B	350	8,9	3.543	91
Itunpeko D	3.436	98,4	56	1,62
GUZTIRA: 16.522	9.779		6.743	

Etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen etxeko hizkuntzaren analisiak erakusten du familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek *Matematikarako kompetentzian* 263 puntu lortu dituztela, eta familian gaztelania edo beste hizkuntza bat hitz egiten dutenek, 248 puntu. Aldea adierazgarria da.

52. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Etxeko hizkuntza eta errendimendua Matematikarako kompetentzian.



Matematikarako kompetenziaren puntuazioan sartutako ikasleen etxeko hizkuntza

Geruza	Euskara	Gaztelania edo beste bat
	Kopurua	Kopurua
A Publikoa	3	637
B Publikoa	23	855
D Publikoa	1.725	4.009
Itunpeko A	12	1.647
Itunpeko B	226	3.588
Itunpeko D	1.366	2.084
GUZTIRA: 16.522	3.355	12.820

(*) Taula honetan ez da aintzat hartu kompetenziaren ebaluazioan parte hartu duten ikasleen % 2,7 (347 ikasle), galdera-sortako galdera horretan "Ez daki/Ez du erantzun" erantzun duelako

Datu horien arabera, familian euskaraz hitz egiten duten ikasleak oro har D ereduetan eskolatzen dira. Familia euskalduneko oso ikasle gutxi eskolatzen da gainerako geruzetan.

Etxeko hizkuntza euskara duten ikasleen ehunekoa *Matematikarako kompetenziaren* puntuazioan sartutako ikasle guztien % 20koa da. D geruza publikoan, etxean euskaraz hitz egiten duten ikasleek guztien artean % 30 osatzen dute, gutxi gorabehera, eta itunpeko D ereduan, % 39.

Jarraian, emaitzak proban erabilitako hizkuntzaren arabera aztertzen dira (etxeko hizkuntzarekin edo irakas-hizkuntzarekin bat ote datorren), bai B ereduan, Matematikarako irakas-hizkuntza nagusia, oro har, gaztelania baita, eta D ereduan, arlo horretarako irakas-hizkuntza nagusia euskara baita.

B EREDUA


B ereduan, oro har Matematika arloa gaztelaniaz irakasten da. Hizkuntza-eredu horretan familian euskaraz egiten duten 249 ikasle daude eta *Matematikarako kompetenziako* puntuazioan aintzat hartu diren 4.806 ikasleen % 5,2 dira. Haien artean % 3,2k egin dute proba euskaraz.

B ereduko ikasleak

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Gaztelania	Gaztelania edo beste bat	4115	251	0,79
Euskara	Gaztelania edo beste bat	328	242	2,82

Gainerako hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. Adibidez, B ereduan familia euskalduneko 157 ikaslek bakarrik egin zuten *Matematikarako kompetenziako* proba euskaraz eta 92k gaztelaniaz. Beraz, ondorengo analisietan talde horietako emaitzak ez dira kontutan hartu

53. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. B ereduaren emaitzak probako hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren arabera Matematikarako kompetentzian.




Analisi honetatik ondorio hauek ateratzen dira:

- Etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza berbera denean emaitzak nabarmen altuagoak dira hizkuntza ezberdinak direnean baino.
- B ereduaren kasuan, gaztelania-gaztelania taldeak (etxeko hizkuntza eta probako hizkuntza, biak gaztelania) emaitza nabarmen hobekak lortu ditu euskara-gaztelania taldeak baino (etxeko hizkuntza, gaztelania, baina probakoa, euskara)

D EREDUA

D ereduaren Matematika euskaraz irakasten da. Hizkuntza-eredu horretako emaitzak ondoko tauletan eta grafikoetan biltzen dira. Hizkuntza-eredu horretako ikasleen % 62,6 hezkuntza-sare publikokoa da, eta % 37,4 itunpeko sarekoa.



D ereduko ikasleak

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	Euskara	3.091	263	0,89
Euskara	Gaztelania edo beste bat	6.038	249	0,64

Gainerako hizkuntza-egoeretan ikasle kopurua ez da nahikoa emaitzen fidagarritasuna bermatzeko. D ereduaren, adibidez, familian gaztelaniaz hitz egiten duten 45 ikasleek bakarrik egin zuten kompetentzia honetako proba gaztelaniaz, eta familia euskalduneko ikasle batek ere ez zuen proba gaztelaniaz egin. Beraz, ondorengo analisietan talde horietako emaitzak ez dira kontutan hartu.

Datu horiek aztertu ondoren, ondorio hauek atera dira:


- Proba euskaraz egin duten D ereduko ikasleen artean, etxean euskaraz hitz egiten dutenek proba euskaraz egin eta etxean gaztelaniaz hitz egin dutenek baino emaitza nabarmen hobekak lortu dituzte.
- Bi talde horien arteko aldea (14 puntu) *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* berbera da (13 puntu). Datu horiek ED09n alor horren gaineko aurreko ebaluazio diagnostikoan lortutako emaitzak berretsi ditu, baita beste ebaluazio batzuetako beste batzuk ere (ikus Lehen Hezkuntza 2004 ebaluazioa)³.

³ www.isei.ivei.net. Argitalpenak: Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila.

- **Matematikarako kompetentziako emaitzak ISEK indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera**

Ondoko grafikoak ISEK lau mailetako bakoitzean *Matematikarako kompetentzian* lortu den batez besteko puntuazioa erakusten du.


55. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Errendimendua Matematikarako kompetentzian eta ISEK maila.



Matematikarako kompetentzian lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua hobea izan da, eta aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan.

Jarraian, *Matematikarako kompetentziaren* hiru mailetan dagoen ikasleen ehunekoa grafikoki erakusten da lau ISEK tarteen arabera.

56. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Elkasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Matematikarako kompetentzian eta ISEK maila.



ISEK maila altuenean, ikasleen % 93 kompetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; bien bitartean, ISEK maila baxuenekoen artean, erdiko mailara eta maila aurreratura ikasleen % 71,4 iristen da.

ISEK maila Altuan eta Ertain Altuan konpetentzia honetako hasierako mailako batez bestekoan baino ikasle gutxiago daude (% 15,8), eta maila aurreratuko batez bestekoan baino ikasle kopuru berdina edo handiagoa dago (% 26,1).

- **Lortutako emaitzen eta ISEK indizearen arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa**

Geruza bakoitzari dagokion ikaslearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) kontrolatzen denean, hau da, geruza guztiek ISEK balio berbera izanez gero emaitza zein izango litzatekeen kalkulatu denean, zenbait aldaketa gertatzen dira Matematikarako konpetentziako batez besteko eta amaierako puntuazioen artean.

Aldagai honek geruza bakoitzaren emaitzan izan duen efektua kalkulatzeko, galdera-sortan ISEK balio bat esleituta galderak erantzun zituen ikaslea soilik hartu da kontuan. Geruza bakoitzean galdera erantzun ez duten ikasle kopuru jakin bat dagoenez, murrizketa gertatu da geruza bakoitzari dagokion kopuruan, eta ondorioz, aldaketa txiki batzuk gertatu dira geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioan, biztanleria guztiaren puntuazio orokorrarekin alderatuta. Jarraian, ikasle guztien batez besteko orokorrari dagokionez konpetentzia honetako puntuazioan aldaketak, eta gainera, ISEK balio bat esleitu zaion ikaslearen batez bestekoa ageri dira.

Matematikarako konpetentzia: Ikasle guztien batez besteko puntuazioa eta ISEK balioa esleituta duenaren puntuazioa


	Ikasle guztien batez besteko orokorra		ISEKen galderak erantzun dituen ikasleen batez bestekoa	
	Kopurua	Batez bestekoa	Kopurua	Batez bestekoa
A Publikoa	686	206	415	213
B Publikoa	913	234	740	238
D Publikoa	5.847	249	5.013	252
Itunpeko A	1.692	253	1.422	258
Itunpeko B	3.893	254	3.430	257
Itunpeko D	3.492	260	3.137	262

Geruza guztietan ikus daitekeen moduan, ISEK kalkulatu den ikasleen kopurua hasierakoa baino baxuagoa da; izan ere, ISEKen balioa kalkulatzeko beharrezkoak diren galdera-sortako galderak erantzun ez zituztenei dagokie. Kopuruan izandako aldaera honen eraginez, konpetentziako batez besteko puntuazioa, ISEKen balioa esleituta duen ikaslearen gainean soilik kalkulatu, aldatu egin da eta geruza guztietan igoera gertatu da.

Hurrengo grafikoan, geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa –berde koloreko zutabea- eta indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) efektua kontrolatuko balitz, geruza horietako bakoitzak lortuko lukeen –hori koloreko zutabea- batez besteko puntuazioa ageri da; hau da, ikasle guztiek antzeko ISEK izango balute abiapuntu gisa ⁴. ISEK aldagaia kontrolatu ondoren puntuazioak berdindu dituzten geruzak laukizuzen urdin baten bidez ageri dira. Berdin zeinuak puntuazioak berdindu dituzten geruzak adierazten ditu.

⁴ ISEKek emaitzetan duen eragina ISEKi buruzko galdera-sortetako galderak erantzun dituzten eta ISEK balio bat esleitu zaien ikasleen gainean kalkulatu da.

57. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Batez besteko puntuazioa eta Matematikarako kompetentzian eta ISEK kontrolatu osteko puntuazioa.



Geruza guztien artean alde adiezigarriak daude, kuadroaren barnean daudenetan izan ezik.

Ikus daitekeenez, ISEK indizearen eragina kontrolatzen denean, puntuazioak gora egiten du geruza publiko guztietan. Bestalde, ISEK indizearen eragina kontrolatu ostean, itunpeko guztiek batez bestekoa punturen batean murriztu egiten dute.

Aldeen adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, hurrengo hau gertatuko litzatekeela:

- Itunpeko hiru geruzen artean ez litzateke alderik egongo. Itunpeko D ereduak itunpeko A eta B-rekin berdinduko luke puntuazioa.
- Hiru geruza publikoek puntuazioa handituko luketen arren (modu adierazgarrian A eta B publikoen kasuan bakarrik), bien arteko aldeek adierazgarriak izaten jarraituko lukete.


MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN BILAKAERA ED2009 ETA ED2010 EBALUAZIOETAN

Egindako bi ebaluazio diagnostikoetan *Matematikarako kompetentzian* lortutako emaitzak alderatzen dira eta honako alor hauek antzematen dira:

➤ Batez besteko puntuazioaren bilakaera

Matematikarako kompetentzian lortutako batez besteko puntuazioan ez da aldaketa adierazgarririk izan.


58. grafikoa: ED09-10 bilakaera. DBHko 2. maila.
Matematikarako kompetentziako batez besteko puntuazioa.



➤ **Ikasleen banaketaren bilakaera errendimendu mailen arabera.**

Kompetentzia honetan, hasierako mailan eta maila aurreratuan kokatu den ikasleen ehunekoak gora egin du zertxobait; bien bitartean, erdiko mailari dagokion ikasleen ehunekoa ere jaitsi egin da.


59. grafikoa: ED09-10 bilakaera. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa
Matematikarako kompetentzian



➤ **Batez besteko puntuazioaren bilakaera geruzen arabera**

A eta B geruza publikoek % 6 eta % 7 egin dute behera (hurrenez hurren) aurreko ebaluazioari dagokionez. Aurreko ebaluazioarekin alderatuta izan den jaitsiera hori adierazgarria da. Gainerako geruzek batez beteko puntuazioa % 1 egin dute gora *Matematikarako kompetentzian*; hala ere, igoera hori ez da adierazgarria.

60. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. Matematikarako konpetentziako batez besteko puntuazioa geruzen arabera.



MATEMATIKARAKO KONPETENTZIAKO EMAITZEN ONDORIOAK

1. Konpetentzia mailak

- DBHko 2. mailako ikasleen % 84,2 *Matematikarako konpetentziako* erdiko mailan eta maila aurreratuan dago.
- DBHko 2. mailako ikasleen % 15ek hasierako mailan zehaztutako gaitasunak soilik menderatzen ditu.
- Ikasleen % 58k duen konpetentzia mailaren arabera, erdiko mailan daude; aldiz, ikasleen laurdenak baino apur bat gehiagok (% 26) egin ditzake konpetentzia honetako maila aurreratuan kokatzea ahalbidetzen dioten zereginak.

2. Emaitzak Matematikarako konpetentziako dimentsioen arabera

- Lau dimentsioek ikasleen ehunekoaren arabera antzeko banaketa du errendimendu mailetan.
- *Kopurua* eta *Espazioa eta Forma* dimentsioak dira portaerarik onena izan dutenak eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoak % 30 baino gehiagokoak izan dira.

3. Geruzen araberako azterketa

Emaitza orokorrak

- Geruza bakoitzean, sare publikoko emaitzak itunpeko sarekoak baino nabarmen baxuagoak dira.
- A geruza publikoko emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira *Matematikarako konpetentzian*.
- Itunpeko D geruzak gainerako geruzenak baino nabarmen altuagoak diren puntuazioak lortu ditu.
- Itunpeko B eta A geruzen artean ez dago alde adierazgarririk.

Emaitzak errendimendu mailen arabera

- A geruza publikoko ikasleen % 45ek baino gehiagok ez du lortu hasierako *Matematikarako konpetentziako* maila gainditzea. Geruza horretako ikasleen % 5,4k bakarrik lortu du maila aurreratua.
- B publikoko ikasleen % 24 hasierako mailan kokatuta dago. Geruza honek, A publikoak bezalaxe, maila honetan dauden EAEko ikasleen batez besteko ehunekoa gainditzen du (% 15,8).
- Maila aurreratuan, itunpeko sareko hiru geruzek gainditzen dute EAEko ikasleen batez besteko ehunekoa (% 26). Ondoren, D publikoa azaltzen da; ikasleen % 24,5 dago matematikarako konpetentziako maila honetan.

Emaitzak kompetentziako dimentsioen arabera

- Oro har, geruzek ebaluatutako dimentsioetan lortutako emaitzak nahiko homogeenak dira.
- A eta B geruza publikoek lortu dituzte puntuaziorik aldakorrenak dimentsioetan. A publikoak emaitzan 14 puntu arteko diferentzia du dimentsio ugarietan, eta 10 puntu artekoa B publikoan.
- Itunpeko geruzek eta D publikoak lortu dituzte emaitzarik homogeenak. Aldeak txikiak izan dira (3 eta 7 puntu artekoak).
- *Aldaketak eta erlazioak* dimentsioa eta *Problemen ebazpena* dira errendimendurik antzekoena izan dutenak. Geruza batzuetan, gainera, puntuazio bera lortu dute zehazki (itunpeko hirurek eta D publikoak).

4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta ikaslearen etxeko hizkuntzaren arabera

- Proba euskaraz egin zuten ikasleek 253 puntu lortu dituzte, eta gaztelaniaz egin zutenek, aldiz, 246 puntu. Alde hori adierazgarria da.
- Etxeko hizkuntza eta probaren aplikazio-hizkuntza bera denean, emaitza nabarmen altuagoa da hizkuntza aldatzen denean baino. Hori B ereduan zein D ereduan gertatzen da.

5. Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

- *Matematikarako kompetentzia* lotura adierazgarria dago ISEK mailaren eta errendimenduaren artean: ISEK maila zenbat eta altuagoa izan, errendimendua ere hobea izango da eta alde adierazgarriak dira kasu guztietan.
- ISEK maila altuenean, ikasleen ia % 93 kompetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK-en maila baxueneko ikasleen artean, % 71,4 bakarrik iristen da maila ertain eta aurreratu horietara.
- ISEKeko maila altuek eta ertain-altuak kompetentzia horretako hasierako mailako batez bestekoa baino txikiagoak diren ikasleen ehunekoak dituzte (% 15,8). Gainera, maila aurreratuko batez bestekoaren ia berdinak edo handiagoak diren ikasleen ehunekoak dituzte (% 26,1).

6. ISEKek geruza bakoitzean duen eraginaren azterketa

- ISEK aldagaiaren eragina kontrolatzen denean, geruza publiko guztietako batez besteko puntuazioa handitu egiten dela ikus daiteke. Aldiz, itunpeko guztien kasuan, batez bestekoa punturen bat gutxitzen da.
- Indize sozioekonomikoak eta kulturalak duen eragina baliogabetuko bagenu, ez litzateke diferentziarik egongo itunpeko hiru geruzen artean. Itunpeko D geruzaren puntuazioa itunpeko A eta B-ren parekoa litzateke.
- Hiru geruza publikoek puntuazioa handituko luketen arren (modu adierazgarrian A eta B publikoen kasuan bakarrik), bien arteko aldeak adierazgarriak izaten jarraituko lukete.

7. Emaitzen bilakaera. 2009ko eta 2010eko ebaluazioen arteko konparaketa

- Ez da aldaketarik izan kompetentzia honetako batez besteko puntuazioan.
- Oso gutxi handitu da hasierako mailan eta maila aurreratuan dauden ikasleen ehunekoa; aldiz, apur bat gutxitu da tarteko mailako ehunekoa.
- A eta B geruza publikoak 6 eta 7 puntu gutxitu ziren (hurrenez hurren) aurreko ebaluazioko datuekin alderatuta. Aurreko ebaluazioarekiko jaitziera hori estatistikoki adierazgarria da. Gainerako geruzetan, matematikarako kompetentziako batez besteko puntuazioa 1 puntu handitu da, baina igoera hori ez da adierazgarria.
- Mutilen batez bestekoa 2 puntu handitu da; aldiz, neskena 1 puntu gutxitu da aurreko ebaluazioarekin alderatuta. Mutilen taldearen kasuan, igoera adierazgarria da.
- Adin kronologikoaren arabera dagokien ikasturtean eskolatutako ikasleek emaitza bera lortu dute 2 ebaluazioetan (259 puntu). Atzerapeneko 1 edo 2 urte dituztenek lortutako puntuazioen aldea bere horretan mantendu da aurreko ebaluazioarekin alderatuta.

4. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia

Definizioa

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia gisa hartzen da gizarteari (ikuspegi ugariatik ulertuta) buruzko ezagutzak erabiltzeko gaitasuna, fenomeno eta arazo sozialak interpretatzeko testuinguru eta eskala espazial aldakorretan, erantzunak sortzeko eta erabakiak hartzeko, baita beste lagun eta talde batzuekin arauen arabera elkarrengaitzeko ere

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia hiru dimentsio hauetan banatu da:

Errealitate soziala

Historia, geografia, soziologia, ekonomia eta egungo gizartea nolakoa den eta nola funtzionatzen duen laguntzen duten beste gizarte zientzia batzuekin lotutako oinarritzko kontzeptuak, trebeziak eta jokaera gehienak biltzen ditu, baita arazo nagusiak, erronkak eta zailtasunak zein diren ere.

Herritartasuna

Gizarte demokratiko bateko eskubideekin eta betebeharrekin lotutako alderdiak ebaluatzen ditu. Dimentsioaren planteamendua ikasleen hurbileneko alorretatik (familia, lagunak edo ikastetxea) abiatzen da eta testuinguru zabalagoetara arte hedatzen da; horietan, globalizazioaren efektuak erakusten dira, eta gainera, guztietan, giza eskubideen eta haurtzararen unibertsaltasuna nabarmentzen da.

Elkarbizitza

Dimentsio hau gatazken azterketan eta ebazpenean, komunitatearen ongizateari laguntzeko helburuarekin pertsonen elkarbizitza zuzentzen duten balioen eta arauen sistemen eraikuntzan oinarritzen da. Balio etikoetan oinarritutako identitatearen garapena du helburuen artean; horietatik abiatuta hartu beharko ditu erabakiak eta bere ekintzen erantzule izango da.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia hura osatzen duten hiru dimentsioak biltzen dituen emaitza orokorraren eta dimentsio bakoitzeko batez besteko emaitzaren arabera ebaluatu ohi da.


- **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako emaitza orokorrak**

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako EAEko DBHko 2. mailako ikasleek lortutako batez besteko emaitza 250 puntukoa da (desbideratze tipikoa 50 puntukoa). Hurrengo taulan ikus daiteke kompetentzia honetarako aintzat hartutako ikasleen kopurua eta gehieneko (390 puntu) zein gutxieneko (75 puntu) puntuazioak.

	Kopurua	Gutxienekoa	Gehienekoa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	16628	75	390	250	50

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluazio honetan definitu diren kompetentzia mailetak bakoitzean.

61. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako errendimendu mailen arabera



Gutxi gorabehera, ikasleen % 82 *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren* maila ertainean eta aurreratuan dago.

EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 17,4k ez ditu gainditu kompetentzia honetako abileziarik oinarrikoenak. Ikasleen % 52 inguru dago kokatuta erdiko mailan; aldiz, % 31k maila aurreratuko abileziarik konplexuenak menderatzeko gaitasuna du.

Hurrengo taulan ikus daiteke ikasleak zer egiteko gai diren ebaluazio honetan zehaztutako kompetentziako maila bakoitzean: hasierakoa, erdikoa eta aurreratua. Hori abiapuntutzat hartuta, talde bakoitza zer egoeratan dagoen eta maila bakoitzean zer egiteko gai den ondoriozta dezakegu.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako mailen deskribapena

Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
<p>Maila honetan daude gizarteko oinarriko ezaugarri batzuk modu partzialean ezagutzen dituzten, arazoak identifikatzen dituzten eta eguneroko beren bizitzako aldaketarik bistakoak deskribatzen dituzten ikasleak. Konpromisoko eta partaidetzako oinarriko maila erakusten dute elkarbizitzako esparru ugarietan. Arazo sozial baten kausarik argiena deskribatzen dute, ondorioren batekin lotzen dute eta irtenbide posibleak baloratzen dituzte. Ingurune komunikabideak identifikatzen dituzte. Erabiltzen dituen zerbitzuak deskribatzen dituzte eta sistema ekonomikoaren funtzionamendua gaineratik ulertzen dute.</p> <p>Gizarte demokratiko bateko askatasun batzuk zehaztu eta ingurune gertaerekin edo harengan eragin pertsonala dutenekin erlazionatzen dituzte. Udal-erakunde politiko, autonomiko, Estatu mailako eta nazioarteko garrantzitsuenak eta haien funtzio batzuk, eta alderdi politikoak eta beste gizarte-erakunde batzuk identifikatzen dituzte. Herritar gisa dituzten betebeharrak eta eskubideak ezagutzen dituzte. Laguntza eta informazioa jasotzen dutenean, giza eskubideen urradurako kasuak aztertzen dituzte.</p>	<p>Maila honetan daude hasierako mailan zehaztutako abileziez gain, alderdi sozialak, ekonomikoak, kulturalak edo beste era batekoak deskribatzen eta erlazionatzen dituzten ikasleak, eta eguneroko bizitzako fenomenoak nolabaiteko konplexutasuna jasotzen dutenak. Era berean, balioen identitatean eta eraketan dauden aldeek ekarpena baloratzen dute (kulturalak, sozialak, etnikoak edo sexu mailakoak). Informazioa eta ikuspegi ezberdinak erabiltzen dituzte fenomeno sozialak modu koherentean azaltzeko. Gertaera edo prozesu bakarrerako hainbat kausa identifikatzen dute, nahiz eta harreman konplexuak ondorioztatzeko oraindik laguntza behar duten.</p> <p>Enpatia erakusten dute gatazka bat interpretatzean, elkarriketa erabiltzen dute irtenbideak topatzeko, irtenbideen aukera ugariak argudiatzen dituzte eta gatazken konponketan lan egiten duten erakundeek dituzten bitartekaritza jarduerak aztertzen dituzte. Ikastetxearen funtzionamendua hobetzeko ideiak emateko eta begirunez</p>	<p>Maila honetan daude, hasierako eta erdiko mailatan zehaztutako gaitasunez gain, aldaketa sozialak hautematen dituzten eta bizi diren gizarteko fenomenoak aniztasuna eta pluraltasuna aztertzen dituzten ikasleak. Gizarte-arazoaren inguruko azterketen oinarrian datuak jartzen dituzte eta ikuspegi ezberdinak hautematen dituzte. Gainera, irtenbideak prestatu eta aukerak baloratzen dituzte. Hipotesi kausalak egiaztatu eta izaera sozial eta kulturalerako alderdiak deskribatzen eta argudiatzen dituzte. Euskal gizartearen garapen soziokulturalari egindako ekarpenak baloratzen eta etorkizuneko erronka batzuk ezagutzen dituzte. Gizartearen funtzionamenduaren konplexutasuna ulertzen dute (erakundeak, zerbitzuak eta abar) eta tokiko eskala mundu mailakotik bereizten dute. Era berean, emakumeen eta gizonezkoen ekarpenak eta protagonismoa baloratzen dituzte gizartearen bilakaeran eta hobekuntzan.</p> <p>Jakitun da kolektibo batzuetako kide dela, eskubide eta betebeharrak dituela eta esku-hartzeko aukera duela. Autokritikarako eta esku-hartze eraikitzailea egiteko gaitasuna garatu du arazoak bideratzeko orduan. Inguruan eta ingurutik harago ematen diren bazterkeri egoerak identifikatzen ditu,</p>

<p>Era askotako gatazkak deskribatzen dituzte; elkarrizketa erabiltzearen balioa ulertzen dute eta gatazkak konpontzeko eta bitartekaritza-lanak egiteko erakunde batzuk ezagutzen dituzte. Esparru ugarran adostutako arauak izatearen garrantzia biltzen dute (eskolan, familian, komunitatean eta abarretan). Bidegabekeriako eta bazterkeriako egoerak bereizten dituzte. Bestalde, ikastetxearekiko interesa dute zaindu beharra dagoen bere ondasun gisa hartuta.</p>	<p>azaltzeko gai dira; era berean, egoera bidegabeak, baztertzaleak edo arauak hausten diren egoerak aztertzen dituzte eta arazoak konpontzeko proposamen ugariak baloratzen dituzte.</p>	<p>baztertuta daudenen aldeko elkartasuna erakusten du eta giza eskubideen alde daudenen lana aintzat hartzen du.</p> <p>Negoiazioa erabiltzen du akordioak lortu eta gatazkak bideratzeko, kausak eta ondorioak aztertzen ditu eta bidezko deritzeten hautazko soluzioak defendatzen ditu. Asertibotasunez adierazten ditu bidegabekeriei buruzko iritziak. Esku-hartzeko jarrera erakusten du ikastetxearen jardueretan, bizikidetzara arautzeko ezarri behar diren arauak ezartzeko adostasuna beharrezkoa dela baloratzen du, arautegia lantzen laguntzen du eta berau urratuz gero etor litezkeen ondorioak aurreikusten ditu.</p>
---	---	---


• Emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako dimentsioen arabera

Hurrengo taulan *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* kontuan hartu diren ikasleen kopurua ageri da, baita kompetentzia honetan ebaluatutako 3 dimentsioetan lortutako gehieneko eta gutxieneko puntuazioak ere: *Errealitate soziala, Herritartasuna eta Elkarbizitza*.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren dimentsioak	Kopurua	Gutxiene koa	Gehiene koa	Batez bestekoa	Desb. tip.
Gizarte-errealitatea	16.628	94	328	250	50
Herritartasuna	16.628	109	351	250	50
Elkarbizitza	16.628	87	369	250	50

Hurrengo grafikoan, ikasleen banaketa ageri da ebaluatutako hiru dimentsioetan ebaluazio honetan zehaztutako kompetentzia maila bakoitzean

62. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoa Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako dimentsioetan



Gizarte-errealitatea da hasierako mailan ikasleen ehunekorik handiena duen dimentsioa (% 18,9); era berean, kompetentzia honetako maila aurreratuko ehunekorik handieneko dimentsioa ere bada (% 34,6). *Herritartasuna* eta *Elkarbizitza* dimentsioek ikasleen oso ehuneko antzekoak dituzte errendimenduko hiru mailetan: % 17,5 inguru hasierakoan eta % 30 baino zertxobait gehiago aurreratuan.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako hiru dimentsio horietako bakoitzean zehaztutako zailtasuneko hiru mailai dagozkien adierazleak taula honetan azaltzen dira.

Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako mailen adierazleak.


Hasierako maila	Erdiko maila	Maila aurreratua
<p>Oro har, maila honetako ikasleek:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Denbora-lerroan ordenatzen dituzte giza eskubideekin lotutako gertaerak. ✓ Publizitateko irudien eduki sexista baloratzen dute. ✓ Emakumeen kasuan, laneko bazterkeria-arazoaren kausa zehazten dute. ✓ Izaera politikoko gertaera baterako egokia den adierazpen kartografikoa aukeratzeko dute. ✓ Ikur eta objektuak erlijiorik hedatuenerkin lotzen dituzte. ✓ Oinarritzko datuak ondorioztatzen dituzte immigrazio-fenomenoari buruzko kazetaritzako informazioa oinarritzat hartuta. ✓ Gizarte-mugimendu edo gobernu kanpoko erakunde (GKE) baten oinarritzko helburua interpretatzen dute. ✓ Adingabeen oinarritzko eskubide batzuk ezagutzen dituzte. ✓ Modu kritikoa baloratzen dute ingurune elkartasunik eza. ✓ Gure eguneroko bizitzako jarrera arrazistak aurreiritziekin lotzen dituzte. ✓ Eskolan gertatutako jazarpen-arazoa deskribatu, protagonistak identifikatu eta irtenbide posibleak baloratzen dituzte. ✓ Arazo baten aurrean, irtenbide positiboak proposatzen dituzte alderdi guztientzat elkar ulertzeko bide gisa elkarrizketa erabilita. ✓ Xenofobiako arazo baten aurrean, jarrera positiboak aintzat hartzen dituzte. ✓ Portaera koherente bateko ezaugarriak identifikatzen dituzte. ✓ Elkarrizketa eta asertibotasuna baloratzen dituzte (erantzun oldarkorren edo pasibotasunaren aurka) arauak betetzen ez dituzten pertsonak zuzentzeko. ✓ Bereizkeriako eta errespetu-gabeziako egoera baloratzen dute eta aldeko jarrera azaltzen dute biktima babesteko eta portaera negatiboa gaitzesteko. 	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituzten ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Internet bidezko erosketan kontsumitzaileek dituzten eskubideak zein diren interpretatzen dute. ✓ Kontsumitzaileen eskubideekin lotutako arazo baten kausa edo jatorria zehazten dute. ✓ Gelako ordezkari batek izan ohi dituen ezaugarriak bereizten dakite. ✓ Hautzaroko arazoak konpontzen lagun dezakeen proposamenak prestatzen dituzte. ✓ Hauteskunde libreak egitea sistema demokratiko baten oinarritzko ezaugarrietako bat dela identifikatzen dute. ✓ Alderdi politikoen aniztasunak sistema politiko demokratikoan duen oinarria azaltzen dute. ✓ Europara joandako Afrikako immigrazioari buruzko datu garrantzitsuak ondorioztatzen dituzte. ✓ Enpresetako zuzendaritza-karguetan emakumeek duten presentzia baloratzen dute. ✓ Sistema demokratiko batean erakunde ugari izatea (sindikatuak, elkarteak eta abar) ideien eta interesen aniztasuna adieraztearekin lotzen dute. ✓ Eskola-esparruan partaidetza errazten duten ekintzak identifikatzen eta hura zailtzen duten beste batzuetatik bereizten dituzte. ✓ Egoera-arazo konplexua laburtzen dute. ✓ Komunikabideen aniztasuna ideien aniztasunarekin lotzen dute gizarte demokratikoan. ✓ Kultura ezberdinetako pertsonen elkarbizitzaren aldeko argudioak bereizten dituzte aurreiritzietan oinarritutako argudioetatik. ✓ Eguneroko bizitzako portaera ugariak (harreman pertsonalak, eskolako ingurunea eta abar) honela sailkatzen dituzte: koherenteak eta inkoherenteak. ✓ Eskola-jazarpena jasaten ari den pertsona baten kasuan, jarrera pasiboa izateak izan ditzakeen ondorioak ateratzen dituzte. ✓ Kontsumoarekin lotutako arazoa edo kexa konpontzeko mekanismoak identifikatzen dituzte. ✓ Portaera mota ezberdinak bereizten dituzte. ✓ Eguneroko hizkerako jarrera xenofoboak detektatzen dituzte (sinesmenak, topikoak, aurreiritziak...). ✓ Aniztasuna (etnikoa, erlijiosoa, politikoa...) gatazkan parte hartzen duten faktoreetako bat bezala interpretatzen dute. ✓ Gure gizarteko txiroek jasaten dituzten bereizkeria-egoerak ekiditeko proposamenak egiten dituzte. 	<p>Maila honetan kokatzen dira hasierako eta erdiko mailan deskribatutako trebeziez gain, beste hauek ere egiten dituzten ikasleak:</p> <ul style="list-style-type: none"> ✓ Hauteskunde-kanpaina bateko propaganda interpretatzen dute mezua eta igorlea identifikatuta. ✓ Berdintasunerako eskubidea onartzen dute gizon eta emakumeen artean lan-esparruan. ✓ Gatazken aurrean, jarrera konstruktiboa baloratzen dute.

- **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako emaitzak geruzen arabera (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua)**

Taula eta grafiko hauetan ebaluazioan kontuan izan diren geruzetako bakoitzean (hezkuntza-sarea eta hizkuntza-eredua) lortutako puntuazioak aurkezten dira. Horiez gain, geruza bakoitzean puntuazioan sartu diren ikasleen kopurua ageri da.

Geruzak	Kopurua	Batez bestekoa	AT
A publikoa	692	236	1,84
B publikoa	910	233	1,55
D publikoa	5.877	241	0,64
Itunpeko A	1.728	270	1,12
Itunpeko B	3.908	258	0,81
Itunpeko D	3.513	253	0,81
Guztira: 16.628			

63. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako errendimendua geruzen arabera




Geruza guztien artean alde adiezgarriak daude, kuadroaren barnean daudenetan izan ezik.

Neurriek estatistikoki duten adierazgarritasuna aztertu ostean, honako hau esan daiteke:

- A eta B publikoetako emaitzak berdinak dira; gainera, beste geruzetakoak baino nabarmen baxuagoak dira.
- Itunpeko Aren emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen hobekak dira.
- Gainerako geruzek estatistikoki adierazgarriak diren aldeak dituzte.
- Geruza publikoko emaitzak itunpeko geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira hizkuntza-eredu guztietan.

Hurrengo grafikoan, geruza bakoitzean *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* finkatutako hiru mailetan dauden ikasleen ehunekoak ikus ditzakegu

64. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoak errendimendu-maila bakoitzean Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian




Geruzetako bakoitza aztertutakoan, honako hau ondoriozta dezakegu:

- Hiru geruza publikoek EAEko batez bestekoa baino handiagoak diren ikasleen ehunekoak dituzte hasierako mailan (% 17,4).
- Erdiko mailan dauden ikasleen ehunekoari dagokionez, hiru geruza publikoek maila horretako batez besteko ehunekoa (% 51,6) gainditzen dutela ikus dezakegu % 3 eta % 5 arteko puntuetan. Aldiz, itunpeko A eta B geruzek dituzte maila horretan dauden ikasleen ehunekorik txikienak. Itunpeko D geruza, gutxi gorabehera, EAEko batez bestekoan dagoela esan dezakegu (% 52,1).
- Aldiz, maila aurreratuan, itunpeko sareko hiru geruzek EAEko batez bestekoa baino ehuneko altuagoak dituztela ikus dezakegu (% 31): % 46,7 itunpeko A geruzan; % 37,8 itunpeko B geruzan; eta % 33 itunpeko D-n. Hiru geruza publikoek batez bestekoa baino ehuneko baxuagoak dituzte maila aurreratu honetan; altuena D publikoari dagokiona da (% 24).

• Emaitzak dimentsioen eta geruzen arabera

Grafiko honetan, ebaluazio honetarako aztertutako geruza bakoitzean lortutako batez besteko emaitzak azaltzen dira *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako* hiru dimentsioetan.


65. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako dimentsioetan geruzen arabera



Grafikoan ikus daitezkeen datuetatik honako hauek ondoriozta ditzakegu:

- Oro har, geruzek hiru dimentsioetan lortutako emaitzak nahiko homogeenak dira.
- A ereduak (publikoak zein itunduak) apur bat puntuazio hobea lortu du *Herritartasuneko* dimentsioan.
- B ereduak (publikoak eta itunduak) ia puntuazio bera lortu du hiru dimentsioetan eta antzeko zerbait gertatzen da D ereduan.

66. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Geruzetako emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako dimentsioetan



Hau ikus daiteke:

- *Errealitate sozialean*, A eta B geruzak publikoek emaitza berdinak lortu dituzte; gainerako geruzetan, aldiz, guztien artean alde nabarmenak daude.
- *Herritartasunean*, A publikoko emaitzak B eta D publikoetakoekin berdinak dira estatistikoki, baina B publikoak alde adierazgarriak mantendu ditu D publikoarekin alderatuta. Gainerako geruzetan, aldeak adierazgarriak dira.
- *Elkarbizitzan*, itunpeko B eta D geruzek estatistikoki emaitza berak dituzte. Gainerako geruzetan, emaitzetan dauden aldeak adierazgarriak dira.

• Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren arabera


Ikastetxeek bi hizkuntza-aukeren arteko hautaketa egin zezaketen ikasleen proba egiteko: euskara edo gaztelania. Kompetentzia honetan, A ereduko ia ikastetxe guztiek aukeratu zuten gaztelania, eta D eredukoek, aldiz, euskara. B ereduaren kasuan, bi aukeren arteko banaketa hau egin zuten: erdiak baino zertxobait gehiagok gaztelaniaz egin zuen (% 52,8), eta % 47,2k euskaraz egin zuen.

Proba egiteko erabilitako hizkuntzaren arabera

Proba euskaraz egin zuten ikasleek 243 puntu lortu dituzte, eta gaztelaniaz egin zutenek, aldiz, 265 puntuko errendimendua lortu dute. Aldea adierazgarria da.

Probako hizkuntza	Kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	11.656	243	0,46
Gaztelania	4.972	265	0,69

67. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Probako hizkuntza eta errendimendua Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian



Geruza bakoitzean proba euskaraz eta gaztelaniaz egin duten ikasleen ehunekoa erakusten du taula honek.


Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako proba egiteko hizkuntza geruzen arabera

Geruza	Euskara		Gaztelania	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	-	-	692	100
B publikoa	527	57,9	383	42
D publikoa	5.877	100	-	-
Itunpeko A	-	-	1.728	100
Itunpeko B	1750	44,7	2.158	55,2
Itunpeko D	3.502	99,6	11	0,3
GUZTIRA: 16.628	11.656 (% 70,1)		4.972 (% 29,9)	

Etxeko hizkuntzaren arabera

Ikasleen etxeko hizkuntzaren analisiak erakusten du familian euskaraz hitz egiten duten ikasleek *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* 255 puntu lortu dituztela, eta familian gaztelaniaz hitz egiten dutenek 249 puntu. Aldea adierazgarria da.

68. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. Etxeko hizkuntza eta errendimendua Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian



Geruzen arabeko Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako puntuazioan sartutako ikasleen etxeko hizkuntza

Geruza	Euskara	Gaztelania edo besteren bat	EE/EDE
	Kopurua	Kopurua	Kopurua
A Publikoa	4	679	9
B Publikoa	23	876	11
D Publikoa	1.738	4.106	33
Itunpeko A	13	1.701	14
Itunpeko B	229	3.649	30
Itunpeko D	1.387	2.118	8
GUZTIRA: 16.628	3.394	13.129	105

Etxeko hizkuntza moduan euskara duten ikasleak, batez ere, D eredueta eskolatuta daude datuetan ikus dezakegun moduan (3.394 ikasletatik, % 51,2 D publikoan dago, eta % 40,9 itunpeko D-n). Gainerako geruzetan, etxeko hizkuntza gisa euskara duten ikasleen presentzia oso txikia da (% 6,7 itunpeko B-n).

Geruzen azterketa sakonagoa egin ahal izateko, beharrekoa da aurreko taulako datuak beste batzuekin lotzea; ikasleen etxeko hizkuntzarekin, esate baterako. Familia euskalduneko ikasleak itunpeko D-ko ikasle guztien ia % 40 osatzen dute (3.513); aldiz, D publikoan, ikasle guztien % 29,5 osatzen dute (5.877).

Jarraian, B ereduko ikasleen emaitzak aztertuko ditugu, proban erabilitako hizkuntzaren arabera eta etxeko hizkuntzarekin bat zer proportziotan datorren edo ez datorren aztertuko da.

B EREDUA

D eredueta, sare publikoan zein itunduan, euskaraz eta gaztelaniaz irakasten dituzten ikasgaien inguruko eskaintzen aniztasuna handia da. DBHko 2. mailan, eredu horretan matrikulatutako 4.818 ikasleen artetik, 252 ikasleren etxeko hizkuntza euskara da (% 5,2), eta 4.525 ikaslerena (% 94 inguru) gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat.


D ereduko ikasleak

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Ikasle kopurua	Batez bestekoa	AT
Gaztelania/	Gaztelania edo besteren bat	2.463	270	0,94
Euskara/	Gaztelania edo besteren bat	2.062	233	1,07

Gainerako hizkuntza-egoeretan, ez dago emaitzen fidagarritasuna bermatu ahal izateko behar adinako ikasleen kopururik. Adibidez, B ereduan, familia euskalduneko 252 ikasletatik, 193k bakarrik bete zuten konpetentzia horretako proba euskaraz, eta 59k gaztelaniaz bete zuen. Hori dela eta, hurrengo azterketetan ez ditugu kontuan hartuko talde horien emaitzak.

Modu grafikoan jarraian ikus dezakegun moduan, etxeko hizkuntza eta probakoa bera direnean, emaitzetan ez dago aldaketarik, eta aldeak ez dira adierazgarriak. Aldiz, diferentzia adierazgarriak dauden etxeko hizkuntza eta proba egiteko erabilitako hizkuntza ez datozenean bat. Zehazki, B ereduan, etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat duten, baina proba euskaraz egin duten ikasleek konpetentzia honetan ere nabarmen apalagoa den puntuazioa lortu dute.

69. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. B eredueko emaitzak probako hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren arabera Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian



Hori dela eta, bi ondorio atera ditzakegu:

- Ikasleek proba egiteko erabilitako hizkuntzak eragin nabarmena du emaitzetan. Bat ez datorrenean konpetentzia hobea lortu duen hizkuntzarekin (hau da, etxeko hizkuntzarekin), emaitzak baxuagoak dira.
- Ikasleek konpetentziako antzeko maila dute proba beren etxeko hizkuntzan erantzun dezaketenean. Dena den, zehaztu beharrekoa da familia euskalduneko ikasleen kopurua txikia zela; hori dela eta, ez dakigu portaera bere horretan mantenduko litzatekeen talde hori handiagoa balitz.

D EREDUA

D ereduko 9.390 ikasletatik, % 37 inguru itunpeko sarean dago eskolatuta, eta % 63 sare publikoan.

D ereduko ikasleak

Probako hizkuntza	Etxeko hizkuntza	Ikasle kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskara	Euskara	3.125	254	0,87
Euskara	Gaztelania	6.214	241	0,62


D ereduan, probako hizkuntza eta ikaslearen etxeko hizkuntza (euskara) bat datozenean, emaitzak nabarmen altuagoak dira.

Gainerako hizkuntza-egoeretan, ez dago emaitzen fidagarritasuna bermatu ahal izateko behar adinako ikasleen kopururik. Adibidez, D ereduan, etxeko hizkuntzat gaztelania zuten 10 ikaslek soilik bete zuten konpetentzia horretako proba hizkuntza horretan. Hori dela eta, hurrengo azterketetan ez ditugu kontuan hartuko azpitalde horien emaitzak.

		Etxeko hizkuntza	
		Euskara	Gaztelania
Probako hizkuntza	Euskara	254	241
	Gaztelania	-	-

Beren etxeko hizkuntza euskara den eta proba hizkuntza horretan egin duten ikasleen puntuazioa 254 puntukoa izan da. Batez besteko hori beren etxeko hizkuntza euskara ez den ikasleek lortutakoa baino nabarmen altuagoa da (haien batez besteko puntuazioa 241ekoa izan da).

70. grafikoa: ED10. DBHko 2. maila. D ereduko emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian probako hizkuntza eta etxeko hizkuntzaren arabera.




Aurreko emaitzetatik, ondorio hauek atera ditzakegu:

- Proba beren etxeko hizkuntzan erantzun dutenen eta hizkuntza horretan erantzun ez dutenen arteko alde adierazgarria baieztatu egin da.
- Bi emaitzen arteko distantzia gutxitu egin da B ereduan gertatzen zenarekin alderatuta. Horretan eragina izan du erabateko murgilketa-ereduan eskolatuta dauden eta haien etxeko hizkuntza gaztelania den ikasleek euskaraz hizkuntza-kompetentzia handiagoa izateak. Dena den, gorabehera hori oraindik ere ez da nahikoa bi hizkuntza-taldeen arteko emaitzak parekatzeko.

- **Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)**

ISEKeko lau mailetan kompetentzia honetan lortutako batez besteko puntuazioa grafiko honetan azaltzen dena da.


71. grafikoa: ED10. DBHko 2. Errendimendua Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian eta ISEK maila.



Oro har, ISEKeko mailaren eta emaitzen artean lotura adierazgarria dagoela esan dezakegu. Hori dela eta, ISEKik altuena errendimendurik onenari dagokiona da. Dena den, aurreko grafikoan ikus dezakegun moduan, lotura hori ez da betetzen ISEK baxua eta ertaina-baxua mailetan; izan ere, kompetentzia honetan ia puntuazio bera lortu dute.

Jarraian, ISEK maila bakoitzeko errendimenduko hiru kompetentzia mailetan dagoen ikasleen ehunekoa ageri da.

72. grafikoa: ED10. DBHko 2. Ikasleen ehunekoa errendimendu-mailetan Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian ISEK mailen arabera.



ISEK maila altuenean, ikasleen % 90,5 konpetentzia honetako erdiko mailan eta maila aurreratuan biltzen da; aldiz, ISEK maila baxuan, errendimendu ertaina eta aurreratua lortu du ikasleen % 76,8k. Konpetentzia mailak ikusita, ISEK altua duten ikasleen ia % 43k lortu du konpetentziako maila aurreratua. ISEKeko beste hiru mailetan, maila aurreratua lortu du maila ertain-altuko ikasleen ia % 29k, eta ISEK ertaina-baxua eta baxua duten ikasleen % 23k inguruk.

- **Gaztelaniazko Hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian lortutako emaitzen eta ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzen arteko konparazioa**


Geruza bakoitzari dagokion ikaslearen indize sozioekonomikoa eta kulturala (ISEK) kontrolatzen denean, hau da, geruza guztiek ISEK balio berbera izanez gero emaitza zein izango litzatekeen kalkulatu denean, zenbait aldaketa gertatzen dira *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako* hasierako eta amaierako puntuazioen artean.

Aldagai horrek geruza bakoitzeko emaitzan duen eragina kalkulatzeko, ISEKeko balioa esleitzea ahalbidetzen zuten galdera-sortako galderak erantzun zituzten ikasleak soilik hartu dira kontuan. Geruza bakoitzean galdera horri erantzun ez dioten ikasleen kopuru jakina dagoenez, geruza bakoitzari dagokion kopurua gutxitu egin da eta, ondorioz, geruza bakoitzeko batez besteko puntuazioan aldaketa txikiak gertatu dira biztanleria osoaren puntuazio orokorrarekin alderatuta. Jarraian, konpetentzia horretako puntuazioan gertatu diren aldaketak ikus daitezke ikasle guztiei dagokien batez besteko orokorra eta ISEKeko balioa esleitu zaien ikasleei dagokien batez bestekoa aintzat hartuta.

Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia: ikasle guztien batez besteko puntuazioa eta ISEK balioa esleitura dutenek lortutako puntuazioa

	Ikasle guztien batez besteko orokorra		ISEKen galderak erantzun dituen ikasleen batez bestekoa	
	Kopurua	Batez bestekoa	Kopurua	Batez bestekoa
A publikoa	693	236	453	242
B publikoa	912	233	758	237
D publikoa	5.877	241	5.092	244
Itunpeko A	1.728	271	1.470	274
Itunpeko B	3.908	258	3.505	261
Itunpeko D	3.513	253	3.185	256

Ikus dezakegun moduan, geruza guztietan, ISEK kalkulatu den ikasleen kopurua hasierakoa baino txikiagoa da, ISEKeko balioa kalkulatzeko beharrezkoa ziren galdera-sortako galderei erantzun ez zieten baitagokie. Kopuruan dagoen aldaketaren ondorioz, kompetenziaren batez besteko puntuazioa, ISEK balioa esleituta duten ikasleen arabera soilik kalkulatu dena, aldatu egin da eta geruza guztietan igo egin da. Hurrengo grafikoan, kompetentzia horretan geruza bakoitzak lortutako batez besteko puntuazioa (zutabe berdea) eta, indize sozioekonomikoaren eta kulturalaren eragina (ISEK) kontrolatuko balitz haietako bakoitzak lortuko lukeen batez besteko puntuazioa (zutabe horia) ikus daiteke.



Geruza guztien artean alde adierazgarriak daude, kuadroaren barnean daudenetan izan ezik.

ISEKaren eragina kontrolatu ostean, B eta D geruza publikoetan soilik handitu da kompetentzia honetan lortutako batez bestekoa punturen bat. Gainerako geruzetan, itunpeko D geruzan izan ezik (ez du aldaketarik izan), puntuazioa gutxitu egin da.

Aldeen adierazgarritasuna aztertu ostean, ondorio gisa esan daiteke indize sozio-ekonomikoa eta kulturalaren eragina ezeztatuko balitz, hurrengo hau gertatuko litzatekeela:

- Hasierako batez bestekoaren eta ISEK kontrolatu ostean lortutako batez bestekoaren artean dauden aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan, A geruza publikoetakoak eta itunpeko D geruzetakoak izan ezik.
- Itunpeko hiru geruzek puntuazioak berdinduko litzateke, eta beren artean ez litzateke alde nabarmenik izango.
- Geruza publikoetan, alde adierazgarriak daude haien eta itunpeko geruzen artean.

Kompetentzia honetako edukiaren eta emaitzen azterketa zehatzagoa nahi izanez gero, ikusi eranskina, 145. orr.

GIZARTERAKO ETA HERRITARTASUNERAKO KONPETENTZIAREN EMAITZEN ONDORIOAK.

1. Konpetentzia mailak

- Gutxi gorabehera, ikasleen % 82 *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziaren* maila ertainean eta aurreratuan dago.
- EAEko DBHko 2. mailako ikasleen % 17 inguruk bakarrik ditu konpetentzia honetako hasierako mailari dagozkion abileziak.
- Ikasleen % 52k (gutxi gorabehera) duen konpetentzia ikusita, erdiko mailan koka ditzakegu. Aldiz, maila horretako ikasleen % 31k mendera ditzake konpetentzia horretako maila aurreratuko abilezia konplexuagoak.

2. Emaitzak Gizarterako eta herritartasunerako konpetentziako dimentsioen arabera

- *Gizarte-errealitatea* da hasierako mailan ikasleen ehunekorik handiena duen dimentsioa (% 18,9); era berean, konpetentzia honetako maila aurreratuko ehunekorik handieneko dimentsioa ere bada (% 34,6).
- *Herritartasuna* eta *Elkarbizitza* dimentsioek ikasleen oso ehuneko antzekoak dituzte errendimenduko hiru mailetan: % 17,5 inguru hasierakoan eta % 30 baino zertxobait gehiago aurreratuan.

3. Analisia geruzen arabera

Emaitza orokorrak

- Geruza publikoko emaitzak itunpeko geruzetakoak baino nabarmen apalagoak dira hizkuntza-eredu guztietan.
- A eta B publikoetako emaitzak berdinak dira, baina beste geruzetakoak baino nabarmen baxuagoak dira.
- Itunpeko Aren emaitzak gainerako geruzetakoak baino nabarmen hobeak dira.
- Gainerako geruzek estatistikoki adierazgarriak diren aldeak dituzte.

Emaitzak errendimendu mailen arabera

- Hiru geruza publikoek EAEko batez bestekoa baino handiagoak diren ikasleen ehunekoak dituzte hasierako mailan (% 17,4).
- Erdiko mailan dauden ikasleen ehunekoari dagokionez, hiru geruza publikoek gainditu dute maila horretako batez besteko ehunekoa (% 51,6) % 3 eta % 5 arteko puntu kopuruan. Itunpeko A eta B geruzek dituzte ikasleen ehunekorik txikienak maila horretan. Itunpeko D geruza, gutxi gorabehera, EAEko batez bestekoan dagoela esan dezakegu (% 52,1).
- Maila aurreratuan, itunpeko sareko hiru geruzek EAEko batez bestekoa baino ehuneko altuagoak dituztela ikus dezakegu (% 31): % 46,7 itunpeko A geruzan; % 37,8 itunpeko B geruzan; eta % 33 itunpeko D-n. Hiru geruza publikoek batez bestekoa baino ehuneko baxuagoak dituzte maila aurreratu honetan; altuena D publikoari dagokiona da (% 24,1).

Emaitzak konpetentziako dimentsioen arabera

- Oro har, geruzek konpetentziaren hiru dimentsioetan lortutako emaitzak nahiko homogeenak dira.
- *Errealitate sozialean*, A eta B geruza publikoek emaitza berdinak lortu dituzte; gainerako geruzetan, aldiz, guztien artean alde nabarmenak daude.
- *Herritartasunean*, A publikoko emaitzak B eta D publikoetakoak berdinak dira estatistikoki, baina B publikoak alde adierazgarriak mantendu ditu D publikoarekin alderatuta. Gainerako geruzetan, aldeak adierazgarriak dira.
- *Elkarbizitzan*, itunpeko B eta D geruzek emaitza berak dituzte. Gainerako geruzetan, aldeak adierazgarriak dira.

4. Emaitzak probako hizkuntzaren eta etxeko hizkuntzaren araberaProba egiteko erabilitako hizkuntzaren arabera

- Proba euskaraz egin zuten ikasleek 243 puntu lortu dituzte, eta gaztelaniaz egin zutenek, aldiz, 265 puntuko errendimendua lortu dute Aldea adierazgarria da.

Etxeko hizkuntzaren arabera

- Beren etxeko hizkuntzatzen euskara duten ikasleek 255 puntu lortu dituzte; aldiz, haien etxeko hizkuntza gaztelania edo euskara zen den besten bat dutenek 249 puntu lortu dituzte. Aldea adierazgarria da.
- Etxeko hizkuntza moduan euskara duten ikasleak, batez ere, D ereduatan eskolatuta daude (gutxi gorabehera, % 51 D publikoan dago, eta % 40,9 itunpeko D geruzan). Gainerako geruzetan, etxeko hizkuntza gisa euskara duten ikasleen presentzia oso txikia da (itunpeko B izan ezik, % 6,7 baitago).
- Beren etxeko hizkuntza euskara den ikasleek itunpeko D-ko ikasle guztien ia % 40 osatzen dute (3.513); aldiz, D publikoan daudenak % 29,5 dira (5.877).

B ereduko emaitzak

- Ikasleek probari erantzuteko aukeraturako hizkuntzak eragin argia du emaitzetan hizkuntza hori ez datorrenean bat konpetentzia handiena duten hizkuntzarekin; hau da, familiako bera ez denean, emaitzak baxuagoak dira.
- Ikasleek konpetentziako antzeko maila dute proba beren etxeko hizkuntzan erantzun dezaketenean. Dena den, baieztapen hori taldearen kopurua kontuan hartuta egin behar da. Ikasle euskaldunen eta proba euskaraz egin dutenen kasuan, kopurua oso baxua da. Hori dela eta, baliteke aurreko baieztapen hori zehaztuta geratzea talde hori handiagoa balitz.

D ereduko emaitzak

- Proba beren etxeko hizkuntzan erantzun dutenen eta beste hizkuntzaren batean erantzun dutenen arteko alde adierazgarria baieztatu egin da.
- Bi emaitzen arteko distantzia gutxitu egin da B ereduan gertatzen zenarekin alderatuta. Horretan eragina izan zezakeen erabateko murgilketa-ereduan eskolatuta dauden eta haien etxeko hizkuntza gaztelania den ikasleek euskaraz hizkuntza-konpetentzia handiagoak izateak. Dena den, gorabehera hori oraindik ere ez da nahikoa bi hizkuntza-taldeen arteko emaitzak parekatzeko edo gerturatzeko.

5. Emaitzak indize sozioekonomiko eta kulturalaren arabera (ISEK)

- *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*, lotura adierazgarria dago ertaina-baxua, ertaina-altua eta altua ISEK mailen eta errendimenduaren artean. ISEK mailarik handieneko taldeari errendimendu altuagoa dagokio eta aldeak adierazgarriak dira.
- Dena den, lotura hori ez da betetzen baxua eta ertaina-baxua ISEK mailen kasuan; izan ere, ia puntuazio berdina lortu dute.
- ISEK altua duten ikasleen ia % 43k lortu du konpetentziako maila aurreratura iristea. Aldiz, ISEK gainerako mailetan, erdiak bakarrik lortu du horra iristea (gutxi gorabehera): maila ertain-altuko ia % 29k, eta ertaina-baxua eta baxua ISEK mailetako % 23 inguruk.

6. ISEKek geruza bakoitzean duen eraginaren azterketa.

- B eta D geruza publikoetan, haien batez bestekoa handitu egiten da ISEK eragina albo batera uzten dugunean. Gainerako geruzetan, itunpeko D geruzan izan ezik (ez du aldaketarik izan), puntuazioa gutxitu egin da.
- Hasierako batez bestekoaren eta ISEK kontrolatu ostean lortutako batez bestekoaren artean dauden aldeak adierazgarriak dira kasu guztietan, A geruza publikoetakoak eta itunpeko D geruzetakoak izan ezik.
- Itunpeko hiru geruzek puntuazioak berdinduko lituzkete, beren artean ez litzateke alde nabarmenik izango. Geruza publikoetan, alde adierazgarriak daude haien eta itunpeko geruzen artean.

3.B. GERUZEN EMAITZAK ETA EZAUGARRIAK INDIZE SOZIOEKONOMIKO ETA KULTURALAREN ARABERA (ISEK)

Lehen aipatu dugun moduan, ebaluazio honetan ikasleak zein ikastetxeak lortutako emaitzaren eta haien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arteko erlazio argia dago; hori dela eta, oro har, zenbat eta ISEK altuagoa izan, orduan eta emaitza hobeak lortzen direla ondoriozta dezakegu. Dena den, txosten honetako A atalean ikusi dugun moduan, ezaugarri horrek ez ditu geruzen arteko alde guztiak baliozabesten; izan ere, azaltzeko gaitasuna handia izan arren, mugatua da.

Emaitzetan eragin argia duten beste faktore eta aldagai batzuk ere badaude. Horien artean, “balio erantsia” izenekoa aipatu behar dugu ikastetxeak duen hezkuntza-ekintza dela eta. Balio horrek benetan lortutako emaitzen eta ezaugarri sozialen, ekonomikoen eta kulturalen arabera, talde edo ikastetxe jakin baterako aurrez ikusitako lorpenaren arteko aldea erakusten du. Emaitzetan ikastetxeak zuen eraginaren inguruko azterketa sakonagoa ikus zitezkeen 2009an egindako Ebaluazio Diagnostikoari buruzko *Errendimenduarekin Txostenean*⁵. Erantzun nahi den galdera da ikastetxe batek bere ikasleen maila ekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero zitezkeenak baino emaitza hobeak lor ditzakeen.

Balio horrek ikastetxeen zenbait gaitasun adierazten ditu, besteak beste, ikasleei beren ingurune sozioekonomikoa kontuan izanik espero baino garapen-aukera handiagoak eskaintzeko gaitasuna, edo ikastetxea ikasle guztiak garapen-aukera berdinak edukitzeari begira antolatzeko gaitasuna.


Ondoren, barreiadura-grafiko bat ageri da. Grafikoak, alde batetik, ikastetxeetako maila sozioekonomikoa eta kulturala, ardatz horizontalean adierazitakoa, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako puntuazioa*⁶, ardatz bertikalean adierazita. Grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: bata *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batez besteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala adierazten du. Grafikoan ageri den lerro diagonalak bi aldagaien arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxe edo ikastalde bat bere ezaugarri sozio-ekonomikoa eta kulturalaren arabera dagokion puntuaren gainetik edo azpitik dagoen adieraziko luke.

Hurrengo grafikoan, 2010eko proban parte hartu duten Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailako 333 ikastetxeak ageri dira. Puntu bakoitzak ikastetxeko geruza bat adierazten du (sarea eta hizkuntza-eredua). Puntuen kolorea ikastetxeko batez besteko ISEKi dagokiona da –(baxua, ertain baxua, ertain altua edo altua). Bestela esanda, ikastetxe batean ebaluatutako ikastalde guztiak hizkuntza-eredu berekoak balira, ikastetxea puntu bakar batez adierazita egongo litzateke eta puntua ikastetxeko ISEK mailaren kolorekoa litzateke. Ikastetxe batean ebaluatu diren ikastaldeak hizkuntza-eredu ezberdinetakoak badira, kasu horietan geruza bakoitza puntu batez adierazita egongo litzateke grafikoan eta guztiak kolore berbera izango lukete, ikastetxeko ISEK mailaren kolorekoa, betiere.

⁵ Faktoreen eta aldagaien azterketa 2009. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza. 2010eko uztaila. ISEI-IVEI. www.isei.ivei.net.

⁶ *Matematikarako konpetentzia* erabiltzen da; izan ere, egindako analisien arabera, konpetentzia horretako emaitzek gainerako konpetentzietako emaitzekiko korrelazio mailarik altuena erakusten dute. Gainera, hizkuntza-konpetentzia ez denez, hizkuntza-eredua, etxeko hizkuntza edo antzeko alderdiek hein txikiagoan eragiten diote. Gogoan izan behar da, lehen adierazi dugun moduan (ikus 6. zenbakiko ondorioa), indize sozio-ekonomiko eta kulturala eta emaitzen artean harreman zuzena dagoela

74. grafikoa. ED10. DBHko 2. maila. Indize sozioekonomikoaren eta *Matematikarako* kompetentziako emaitzen arteko lotura



Grafikoa aztertu ondoren, hiru ondorio nagusi atera daitezke:

- ISEK mailaren eta emaitzen arteko lotura baieztatu egiten da:** Grafikoa argi erakusten du joera hori diagonalaren edo erregresio-zuzenaren makurduraren bidez: makurdura zenbat eta handiagoa izan, ISEK mailaren eta emaitzen arteko erlazio estuagoa da. Horrekin batera ikus daiteke emaitzen barreadura handiagoa dela ISEK maila baxuko (laranjak) eta ertain-baxuko (urdinak) ikastetxeetan gainerako mailtako ikastetxeetan baino. Maila horietan kontzentrazioa handiagoa izaten da.
- Ikastetxe gehienak ISEK mailaren arabera espero zitezkeen emaitzetatik hurbil daude.** Diagonaletik gora dauden ikastetxeek espero baino emaitza hobekak lortu dituzte. Alderantziz gertatzen da diagonaletik behera dauden ikastetxeekin. Ebaluatutako ikastetxeen ia % 84k lortutako batez besteko puntuazioaren eta ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera espero zitezkeen emaitzaren arteko aldea 25 puntukoa baino txikiagoa da. Ikastetxeen % 63k esperotako emaitzetan 15 puntu baino gutxiagoko aldea duten emaitzak lortu dituzte.

3. **Ikastetxeek ikasleen maila sozio-ekonomiko eta kulturalaren ezaugarriak gainditzea lor dezakete.** Grafikoan argi ikusten da ISEK maila bereko ikastetxe batzuek oso emaitza ezberdinak lortu dituztela, eta puntuazio aldea 80 puntutara hel daitekeela kasu batzuetan. Horrek adierazten du ikastetxearen irakaslana eta antolamendua giltzarria dela ikasleen ISEK mailak ikastetxearekiko izan ditzakeen mugak gainditzeko ala ez gainditzeko. Gainera, hori ISEK maila guztietan gertatzen da: ikastetxea edonolakoa izanik ere, bere esku hartzeak onerako ala okerrerako eragina izan dezake.

Jarraian, ebaluazio honetan aintzat hartutako sei geruza horietako bakoitzeko ezaugarrien eta emaitzen deskribapena azaltzen da (hezkuntza-sarearen eta hizkuntza-ereduaren arteko gurutzaketa) bi ataletan:

- a) **Geruza bakoitzaren ezaugarriak** aldagai eta faktore ugariak kontuan hartuta egindako azterketaren arabera.

Geruza bakoitzerako, aurrekoaren antzeko barreiadura-grafiko bat ageri da. Grafikoak, alde batetik, ikastetxeetako maila sozioekonomikoa eta kulturala, ardatz horizontalean adierazitakoa, eta bestetik *Matematikarako konpetentziako puntuazioa*⁷, ardatz bertikalean adierazita. Hurrengo grafikoan bi aldagai horien gurutzatzea erakusten da, bi lerro etenekin batera: batak *Matematikarako konpetentziako* batez besteko puntuazioa adierazten du, eta besteak etapa horretan ebaluatutako populazio osoaren batez besteko indize sozio-ekonomikoa eta kulturala adierazten du Grafiko guztietan ageri den lerro diagonalak bi aldagaien arteko erlazioa adierazten du. Ikastetxe edo ikastalde bat bere ezaugarri sozioekonomikoa eta kulturalaren arabera dagokion puntuaren gainetik edo azpitik dagoen adieraziko luke.

- b) **Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak.** Deskribapenaren bigarren atal honetan geruza bakoitzeko grafikoa azaltzen da ebaluatutako oinarriko konpetentzia bakoitzeko errendimendu mailen arabera ikasleen ehunekoak zehaztuta.


⁷ Op cit.

1. A EREDUKO GERUZA PUBLIKOA


Geruzaren ezaugarriak.

A eredu publikoko ikastetxeek ebaluatutako biztanleria osoaren % 5,6 eta sare publikoari dagozkion ikastetxeen % 12 ordezkatu dute. Sexuen arabera, % 52,9 mutilak ziren eta % 47,1 neskak. Ikasleen zati txiki batek (% 0,5) euskara du etxeko hizkuntza, % 74,4k gaztelania edo euskara ez den beste hizkuntzaren bat du etxeko hizkuntza. % 25,1ek “ez daki” edo “ez du erantzun” erantzun dio galderari. Geruza honetan dago dagokion ikasmilan egokitasun-egoeran ez dagoen ikasle kopuru handiena (% 65,7), bai eskolatzeko atzerapenarengatik, bai mailaren bat errepikatu duelako. Ikasleen % 74 indize sozioekonomiko eta kultural maila baxuko familietatik datoz, eta geruza guztien artean, ISEK maila altuan ikaslerik ez duen geruza bakarra da.

75. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. A geruza publikoko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.




76. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. A geruza publikoko ikasleen ehunekoa egokitasunaren arabera.



77. grafikoa: ED10-DBH 2. A EREDUKO GERUZA PUBLIKOA

Indize sozio-ekonomikoaren eta emaitzen arteko harremana *Matematikarako kompetentzian*.




Grafikoan ikus daitekeen moduan, geruza honetako ikastetxe edo talde gehienak ISEK maila baxuan daude eta *Matematika-kompetentziako* puntuazioak, oro har, baxuak dira. Ikastetxe edo talde kopuru altu bat aplikazio guztien artean emaitza okerrenak dituztenen artean kokatzen da. Geruza honetan, emaitzen sakabanaketa baxuenetakoa da. Emaitzarik okerrera eta onena lortu duten ikastetxeen artean, 61 puntuko aldea dago.

Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa.

Ebaluatutako oinarriko lau kompetentzia horietako bakoitzeko errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak honi atxikitako grafikoan daude ikusgai.

78. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. A geruza publikoa. Ikasleen banaketa kompetentziatako errendimendu mailen arabera.




2. B EREDUKO GERUZA PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak.


B eredu publikoko ikastetxeek ebaluatutako biztanleria guztiaren % 5,9 eta sare publikoko ikastetxeen % 12,7 ordezkatu dute. Sexuen arabera, % 54,1 mutilak ziren eta % 45,9 neskek. Ikasleen zati txiki baten (% 2,3) etxeko hizkuntza euskara da, eta % 85,6ren etxeko hizkuntza gaztelania edo besteren bat da; % 12,1ek "ez daki" edo "ez du erantzun" erantzun dio galdera honi. Mailan egokitasun-egoeran ez dauden ikasleen ehunekoak (% 41,1) 2010eko aplikazioko ikastetxeen batez bestekoa gainditzen du (% 19). Ikasleen % 55,6 indize sozioekonomiko eta kultural baxukoak dira; indize horren maila gorantz doan heinean, ehuneko hori jaitsi egiten da eta ISEK maila altuari dagokien ikasleen kopurua % 15,8ra iristen da.

79. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. B geruza publikoko ikasleen ehunekoak etxeko hizkuntzaren arabera.



■ Euskara ■ Gaztelania edo besteren bat ■ Ed/ Ee


80. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. B geruza publikoko ikasleen ehunekoak egokitasunaren arabera.



■ Egokia ■ Ez egokia

81. grafikoa: ED10-DBH 2. B EREDUKO GERUZA PUBLIKOA

Indize sozio-ekonomikoaren eta emaitzen arteko harremana *Matematikarako konpetentzian*.




A geruza publikoaren kasuan bezala, geruza honetako ikastetxe gehienek ISEK maila baxua dute. Sakabanaketa altuxeagoa da. Eraitza okerrenak eta onenak dituzten ikastetxeen artean 78 puntuko aldea dago.

Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako oinarritzko lau konpetentzia horietako bakoitzeko errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak honi atxikitako grafikoan daude ikusgai.

82. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. B geruza publikoa. Ikasleen banaketa konpetentzietako errendimendu mailen arabera.




3. D EREDUKO GERUZA PUBLIKOA

Geruzaren ezaugarriak.


D eredu publikoko ikastetxeek ebaluatutako biztanleria osoaren % 34,8 eta sare publikoari dagozkien ikastetxeen % 75,2 ordezkatu dute. Sexuen arabera, banaketa nahikoa orekatua da: % 49,2 neska dira, eta % 50,8 mutilak. Geruza honetako ikasleen % 27,9ren etxeko hizkuntza euskara den arren, etxeko hizkuntza nagusia gaztelania edo beste bat da, % 66,2; % 5,9k "ez daki" edo "ez du erantzun" erantzun dio galderari. Mailan egokitasun-egoeran dagoen ikasleen ehunekoa (% 79,4) altuenetakoa da. Geruza honetako ikasle gehienak indize sozioekonomiko eta kulturalaren maila baxuan (% 37,6) eta maila altuan (% 37,2) biltzen dira. % 11 maila baxuan kokatzen da, eta % 14,2 maila altuan.

83. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. D geruza publikoko ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera.



■ Euskara ■ Gaztelania edo besteren bat ■ Ed/ Ee


84. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. D geruza publikoko ikasleen ehunekoa egokitasunaren arabera.



■ Egokia ■ Ez egokia

85. grafikoa: ED10-DBH 2. D EREDUKO GERUZA PUBLIKOA

Indize sozio-ekonomikoaren eta emaitzen arteko harremana *Matematikarako kompetentzian*.




Geruza honek ISEK maila guztietako ikastetxeak ditu. Sakabanatze-grafikoan ikus daitekeen moduan, hainbat ikastetxek esperotakoa baino emaitza hobekak lortu dituzte *Matematika-konpetentzian*, eta beste batzuk beren ISEK maila kontuan hartuta espero beharko litzatekeena baino emaitza baxuagoak lortu dituzte. Geruza honetan, ikastetxeen arteko emaitzen aldea 88 puntukoa da.

Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako oinarritzko lau konpetentzia horietako bakoitzeko errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak honi atxikitako grafikoan daude ikusgai. Beharrezkoa da gogoraraztea geruza honetan eragin nabarmena duela probaren aplikazioko hizkuntzak; izan ere, ikasleen zati handi baten kasuan, ez ziren bat etorri hizkuntza arlokoak ez ziren konpetentzietako probako hizkuntza eta etxeko hizkuntza. Ikus daitekeen moduan, oreka handia dago konpetentzia bakoitzaren ehunekoetan.

86. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. D geruza publikoa. Ikasleen banaketa konpetentzietako errendimendu mailen arabera.




4. A EREDUKO ITUNPEKO GERUZA


Geruzaren ezaugarriak

Itundutako A ereduko ikastetxeek ebaluatutako biztanleria guztiaren % 10,5 eta itundutako sareko ikastetxeen % 19,6 ordezkatu dute. Sexuen arabera, mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa da: % 46,5 neskek eta % 53,4 mutilak. Ikasleen zati txiki baten (% 0,7) etxeko hizkuntza euskara da, eta gehienak (% 92) gaztelaniaz hitz egiten duten edo euskara ez den beste hizkuntza bateko familia-inguruetik datoz; % 7,3k "ez daki" edo "ez du erantzun" erantzun dio galderari. Ebaluatutako mailan egokitasun-egoeran dauden ikasleen ehunekoari dagokionez, % 71,7 adinari dagokion ikasmilan dago. Geruza honetako ikasleak maila orekatuan banatzen dira lau ISEK mailetan: % 58 mailarik altuenean dago, % 20,9 maila baxuan dago, % 6,9 erdiko mailan eta % 14,2 maila altuan dago.

87. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoa etxeko hizkuntzaren arabera




88. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko A geruzako ikasleen ehunekoa egokitasunaren arabera



■ Egokia ■ No idóneo

89. grafikoa: ED10-DBH 2. ITUNPEKO A GERUZA


Indize sozio-ekonomikoaren eta emaitzen arteko harremana *Matematikarako kompetentzian*.



Itundutako B ereduarekin batera, emaitzetan sakabanatzerik handiena duen geruzetako bat da, ISEK maila altuko ikastetxeak eta emaitza ezin hobek biltzen ditu, eta zenbaitetan, esperotako mailaren gainetik, gainera; hala ere, baditu maila baxuko eta emaitza baxuko ikastetxeak ere. Puntuaziorik baxueneko ikastetxeen eta puntuaziorik altuenak lortzen dituztenen artean, zenbaitetan, 122 puntuko aldea izan ohi da.

Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoa

Ebaluatutako oinarrizko lau konpetentzia horietako bakoitzeko errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak honi atxikitako grafikoa daude ikusgai.




5. B EREDUKO ITUNPEKO GERUZA

Geruzaren ezaugarriak.


Itundutako B ereduko ikastetxeek ebaluatutako biztanleria guztiaren % 23 eta itundutako sareko ikastetxeen % 42,9 ordezkatu dute. Sexuen arabera banaketa nahikoa orekatua da: % 49,3 neska dira, eta % 50,7 mutilak. Ikasle gehienek (% 88,9) gaztelaniaz edo euskara ez den beste hizkuntza batean hitz egiten dute etxean; familien % 5,5 soilik dira euskaldunak; % 5,6k "ez daki" edo "ez du erantzun" erantzun dio galderari. DBHko 2. mailako ikasleen % 79,1 bere adinarekin bat datorren ikasmailan dago. Geruza honetako ikasleek ehuneko handiagoak biltzen dituzte indize sozioekonomikoko eta kulturalako maila altuenetan (% 38,6 maila altuan eta % 26,6 ertain-altuan) eta ehuneko baxuagoak indize horretako maila baxuenetan (% 13,2 ertain-baxuan eta % 21,6 baxuan).

91 grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoak etxeko hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Gaztelania edo besteren bat ■ Ed/Ee


92 grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruzako ikasleen ehunekoak egokitasunaren arabera



■ Egokia ■ Ez egokia

93. grafikoa: ED10-DBH 2. ITUNPEKO B GERUZA

Indize sozio-ekonomikoaren eta emaitzen arteko harremana *Matematikarako kompetentzian*.




Itundutako A geruzaren kasuan bezalaxe, geruza hau ere oso sakabanatuta dago emaitzei dagokienez. Emaitza baxuenak dituzten ikastetxeen edo taldeen eta emaitza onenak lortzen dituztenen artean 125 puntuko aldea dago.

Konpetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako oinarrizko lau konpetentzia horietako bakoitzeko errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak honi atxikitako grafikoan daude ikusgai.

94 grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko B geruza. Ikasleen banaketa konpetentzietako errendimendu mailen arabera




6. D EREDUKO ITUNPEKO GERUZA

Geruzaren ezaugarriak


Itundutako D ereduko ikastetxeek ebaluatutako biztanleria osoaren % 20,2 eta itundutako sareari dagozkion ikastetxeen % 37,5 ordezkatu dute. Sexuen arabera, ebaluatutako biztanleria osoaren antzeko ehunekoak ordezkatzeko dituzte: nesken % 47,8 eta mutilen % 52,1. Ikasleen % 38,3 familiarekin euskaraz erlazionatzen da eta % 58,6k gaztelaniaz edo beste hizkuntza batean egiten du; ikasleen % 3,1ek "ez daki" edo "ez du erantzun" erantzun dio galderari. Egokitasun-egoeran ikasle kopuru altuena duen geruza da: % 88,7 adinaren arabera dagozkion ikasmailan dago. Ikasleen % 79,7 ISEK maila altuenetan biltzen da. Itundutako A geruzaren ostean, ISEK-en maila altuan ikasle kopuru altuena duen geruza da, % 49,3 hain zuzen, eta aldi berean, ISEK maila baxuan ehunekorik txikiena duena, % 6.

95 grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoak etxeko hizkuntzaren arabera



■ Euskara ■ Gaztelania edo besteren bat ■ Ed/Ee


96 grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruzako ikasleen ehunekoak egokitasunaren arabera



■ Egokia ■ Ez egokia

97. grafikoa: ED10-DBH 2. ITUNPEKO D GERUZA

Indize sozio-ekonomikoaren eta emaitzen arteko harremana *Matematikarako kompetentzian*.



ISEK maila 2010


- Baxua
- Ertain baxua
- Ertain altua
- Altua

Geruza honetan, ertain-altua da ISEK maila nagusia. Geruza honetan ez da sakabanaketa maila handirik gertatzen; 95 puntuko aldea dago Matematika-kompetentzian puntuaziorik altuenak eta puntuaziorik baxuenak lortzen dituzten ikastetxeen artean.

Kompetentzia maila bakoitzeko ikasleen ehunekoak

Ebaluatutako oinarritzko lau kompetentzia horietako bakoitzeko errendimendu mailetan dauden ikasleen ehunekoak honi atxikitako grafikoan daude ikusgai.

98 grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Itunpeko D geruza. Ikasleen banaketa kompetentzietako errendimendu mailen arabera



4. IKASLEEN EMAITZETAN ERAGINA DUTEN ALDAGAIEN AZTERKETA

Ebaluatutako oinarrizko konpetentzietako ikasleen errendimenduan hainbat faktorek eragiten dute: ez ikasgelako prozesu didaktikoez edo ikastetxeko eta heziketa-sistemaren kudeaketa-ezaugarriek soilik, baita ikasle bakoitzaren ezaugarri pertsonal eta familiar-tekoek ere.

Familiarekin eta ikaslearen ezaugarri pertsonalekin lotutako faktoreak ikastetxearen kanpoko eraginak dira eta hezkuntza-prozesuak baldintzatzen dituzten *input* gisa hartu behar dira. Hala eta guztiz ere, ez da erraza parte hartzen duten faktore guztiak ezagutzea, ezta benetan zenbaterainoko eragina duten jakitea ere; gainera, askotan, zaila izaten da aldagaiaren eta errendimenduaren arteko kausa-efektua harremana egiaztatzea.

Ikasle bakoitzak familia bat du eta maila sozioekonomiko eta kultural jakina du, jatorri bat eta egitura- eta hizkuntza-ezaugarri espezifikoak ditu, baliabide material eta ondasun kultural jakinekin. Ikasleen galdetegiaren bidez, txosten honen helburua den azterketa egiteko informazio egokia bildu nahi da: eskolaz kanpoko alorrak, familiar-tekoak, ikasleen aurreikuspenak eta abar, baita ikaslearen sexuaren araberako ezaugarriak, adinaren eta hezkuntza mailaren arteko egokitzapena, eskolatzearen hasierako adina eta abar ere.

Irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan garrantzitsuak izan daitezkeen alorrak aztertzeke, banaka hartutako aldagai jakin batzuen eragina aztertzeaz gain, indizeak sortu dira balio estandarizatuekin, eta horiek ikasleek galdera-sortan erantzun dituzten zenbait galdera biltzen dituzte. Indize horien bidez, banakako edo testuinguruko egoera jakin batzuen deskribapenez eta emaitzetan duen eraginaren azterketaz gain, errendimenduaren eta elkartutako aldagaien artean egon daitezkeen loturaren azterketa ere eskaintzen da, baita elkartutako aldagai horiek aldatzeko gaitasuna duten eta zer neurritan egiten duten ere.

Alor sozial, ekonomiko eta kulturalen eragina maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren gaineko indizea (ISEK) sortuz neurtu da. Horrek aldagai jarraituaren forma hartzen du, eta bertan, balio guztiak dira posible eta tipifikatuta daude (batez bestekoa 0 da, eta desbideratze tipikoa, 1ekoa).

Azterketa aldagaien eta konpetentzietan errendimenduarekin duten loturaren arabera egiteko, dagokion konpetentziako proba egin eta bere puntuazioa errendimendu orokorrerako hartu den ikasleak soilik hartu dira kontuan; gainera, ikasle horiek ikasleari aurkeztutako galdera-sortan kasu bakoitzean egokiak diren galderei erantzun die.

Ebaluazio honetan, aldagairik adierazgarrienak eta 2009ko ebaluazioaren aurreko edizioarekin alderaketa ezartzea ahalbidetzen dutenak aukeratu dira azterketarako.

Hauek dira txosten honetan aztertu diren aldagaiak:

Familiako eta norbanakoaren aldagaiak	Ikastetxearen aldagaiak
<ul style="list-style-type: none"> ● Ikasleen sexua ● Adinaren eta ikasmilaren arteko egokitasuna ● Etxeko hizkuntza ● Familiaren egitura ● Eskolatzearen hasiera ● Familiaren jatorria ● Banakako ezaugarriak: <ul style="list-style-type: none"> - Hezkuntzako Esku-hartze Espezifikoko Programetan eskolatutako ikasleak (HEEP). - Hezkuntza Behar Bereziak (HBB) dituzten ikasleak ● Indize sozioekonomiko eta kulturala: <ul style="list-style-type: none"> - Indize sozioekonomiko eta laborala - Familiako ikasketak - Etxean liburuak edukitzea - Ordenagailua eta Internet etxean - Egunero prentsa eta aldizkari espezializat irakurtzea 	<ul style="list-style-type: none"> ● Geruza: hizkuntza-eredua eta heziketa-sarea. ● Ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko korrelazioa.

2010eko ebaluazio hau aztertzeko aukeratu den aldagai bakoitzean, azterketa-metodologia hau jarraitu da:

1. Aldagaiaren zentzua eta garrantzia definitzen da, baita beste ebaluazio batzuetan –baldin badago- azterketarekin duen lotura eta datuak lortzeko erabili den iturria ere.
2. Lortutako erantzunen zuzeneko maiztasunak aztertzen dira, eta ondoren, ikuspegi estatistikotik zentzua izango duten taldeetan kategorizatzen dira.
3. Aldagaian definitutako kategoriekin ebaluatutako oinarrizko lau kompetentzietako errendimendu mailak batzen dira eta aldeak adierazgarriak diren ikusten da.
4. Ahal den kasuetan, ED10 ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatzen da.
5. Azkenik, egindako azterketatik abiatuta, zenbait ondorio eskaintzen dira.

Kompetentzietako bakoitzean emaitzen analisisa egiteko, kompetentzia horretan proba egin duten eta puntuazio probako emaitza orokorretan kontuan hartu zaien ikasle kopurua hartu da kontuan.

Familia arloko aldagai, aldagai pertsonal eta bestelako aldagaiekin lotutako datuak kalkulatzeko, ikaslearen galdera-sortan kasu bakoitzean egoki den informazioari dagokion itemak erantzun dituzten ikasleak hartu dira erreferentzia gisa.

Azkenik, kontuan izan behar da aldagai baten eta emaitzen arteko elkarketa ezagutzea ikuspegi estatistikotik zuzena izan daitekeen arren, ustekabekoa ere izan daitekeela errealitatearen ikuspegitik. Hori dela eta, komeni da elkarketa azalpen osatuarekin ez nahastea, eta inola ere ezin da kausalitate gisa hartu, beharrezko elkarketa gisa baizik, baina ez da emaitzak azaltzeko nahikoa.

4.1. IKASLEEN SEXUA

Nesken errendimendua handiagoa da mutilena baino ebaluatutako bi Hizkuntza-kompetentzietan, baita Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian ere. Matematika-kompetentzian, mutilek neskek baino askoz ere puntuazio hobek lortzen dituzte.

Ikasleen sexuaren arabera emaitzek aurreko ebaluazioetan islatzen diren aldeak berresten dituzte: neskek mutilek baino askoz ere emaitza hobek lortu dituzte *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* ebaluatutako bi komunikazio-kompetentzietan. Ebaluazio honetan ere, neskek mutilek baino askoz ere emaitza hobek lortu dituzte *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*. Hala eta guztiz ere, mutilek neskek baino emaitza askoz hobek lortu dituzte *Matematikarako kompetentzian*.

Hurrengo taulak Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikasleek ebaluatutako kompetentzia bakoitzean sexuen arabera lortutako puntuazioa erakusten du, baita emaitzen adierazgarritasuna ere.


Ikaslearen sexuaren arabera ebaluatutako kompetentzietan lortutako puntuazioak. % 95eko alde adierazgarria				
Kompetentziak	Neskak	Mutilak	Aldea	Adierazg.
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	264	252	12	BAI
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	254	250	4	BAI
Matematikarako kompetentzia	248	253	-5	BAI
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	260	241	19	BAI

BAI: % 95eko alde adierazgarria
=: % 95eko alde adierazgarririk ez dago

Aurreko datuetan ikus daitekeenez, alderik handiena *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* puntuazioetan gertatu da, neskek mutilek baino 19 puntu gehiago lortu baitituzte. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, neskek mutilek baino 12 puntu gehiago lortu dituzte. *Matematikarako kompetentzian*, mutilen taldeak neskenak baino 5 puntu gehiago lortu ditu. Kasu guztietan, aldeak adierazgarriak dira.


Hurrengo grafikoan, bi taldeek ebaluatutako bi kompetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak erakusten dira; gezi baten bidez adierazten da zein taldek dituen puntuazio altuenak.

99. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ebaluatutako kompetentzietako errendimendua ikasleen sexuaren arabera




Jarraian, grafikoki adierazten da ebaluatutako lau kompetentzien errendimendu mailetako bakoitzean mutil eta neska taldearen banaketa.


100. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen ehunekoa sexuaren arabera




101. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako errendimendu mailen ehunekoa sexuaren arabera



102. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Matematika-kompetentziako errendimendu mailetako ikasleen ehunekoa sexuaren arabera



103. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako errendimendu mailetako ikasleen ehunekoa sexuaren arabera




➤ **ED09-ED10 ebaluazioetan emaitzek sexuen arabera izan duten bilakaera.**

104. grafikoan ageri da mutilen eta nesken taldeak izandako emaitzen bilakaera. Bertan, honako hau nabarmentzen da:

- Alderaketa ezar daitekeen hiru kompetentzietan, guztietan, mutilek neskek baino puntu gehiago egin dute gora.
- Matematikarako kompetentzian, mutilek 2 puntu egin dute gora eta neskek 1 puntu egin dute behera. Hori dela eta, aurreko ebaluazioarekin alderatuta, bien arteko aldeak adierazgarriak izan dira; izan ere, aurrekoan, bi taldeen arteko aldeak berdindu egiten ziren.
- Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioan, bi taldeek gora egin dute: 3 puntu mutilek eta 1 puntu neskek.
- Euskarazko hizkuntza-komunikazioan, bi taldeek gora egin dute: 10 puntu mutilek eta 5 puntu neskek.

104. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. DBHko 2.maila. Emaitzak ikasleen sexuaren eta kompetentzien arabera



4.2. DAGOKION IKASMAILAN EGOTEA

Egokitasun-egoeran dauden ikasleek (1996. urtean jaiotakoak) kompetentzia guztietan errendimendu nabarmen altuagoa lortu dute adinarekiko urtebeteko edo bi urteko atzerapenen bat duten ikasleekin alderatuta. Era berean, urtebeteko atzerapena duten ikasleek bi urteko atzerapena duten ikasleek baino emaitza nabarmen altuagoak lortzen dituzte.

Ebaluazio honetan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleen % 19 inguru 1994 eta 1995 urteetan jaio da, eta, beraz, urte bateko edo biko atzerapena du adin egokiarekiko –1996an jaiotakoekiko–. Atzerapena irakasmila bat edo bi errepikatu izanaren ondorioa izan daiteke, edo ikaslea urte bat edo bi beranduago eskolatu delako. Ikasle multzo horrek adin egokiko ikasleek baino emaitza nabarmen baxuagoak lortu ditu kompetentzia guztietan.


Talde horiek ebaluatutako konpetentzietan lortutako batez besteko puntuazioak hurrengo taulan ageri dira.

	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia
Jaiotza-urtea: 1994	206	219	203	209
Jaiotza-urtea: 1995	219	225	214	218
Jaiotza-urtea: 1996	267	259	259	258

Alderik handienak *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* eta *Matematikarako konpetentzian* gertatu dira; kasu horietan, 55 puntu baino gehiagoko jauzia dago adin egokiko (1996an jaiotakoak) ikasleen eta 1994an jaiotako ikasleen artean. Konpetentzia horietan, 1995ean jaiotako ikasleek dagokien ikasmilian dauden ikasleek baino 45 puntu gutxiago lortu dituzte.

Ondoko grafikoak ikasleek jaiotza-urtearen arabera konpetentzia bakoitzean lortutako errendimendua erakusten du.

105. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen jaiotza-urtearen arabera ebaluatutako konpetentzietako errendimendua




Emaitzen arteko aldeak adierazgarriak dira konpetentzia guztietan; hau da, ikasmilarekiko adin egokiko ikasleek —1996an jaiotakoek— 1995ean eta 1994an jaiotakoek baino emaitza nabarmen hobekak lortu dituzte. 1994an jaiotakoek adin egokikoek baino emaitza nabarmen baxuagoak eta bi urteko atzerapena dutenek baino emaitza hobekak lortu dituzte.

Ondorio hori 2009an egindako ebaluazio diagnostikoarekin bat dator, baita ondorio hori biltzen duten beste ebaluazio batzuekin ere: PISA 2003, PISA 2006, Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004 eta TIMSS 2007. 2009ko ebaluazio diagnostikoari dagokion txostenean aipatu zen moduan, gertaera hori “*Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmila errepikatzeak duen eragina*” ikerlanaren sorburua izan zena.


Jarraian, grafikoki adierazten da ebaluatutako lau konpetentzien errendimendu maila bakoitzean ikasleek jaiotza-urtearen arabera duten banaketa.

⁸ www.isei-ivei.net Argitalpenak atala: PISA 2003. PISA 2006. Lehen Hezkuntzaren Ebaluazioa 2004. TIMSS 2007. Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasmila errepikatzeak duen eragina.


106. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia mailako ikasleen ehunekoa jaiotza-urtearen arabera.




107. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzia mailako ikasleen ehunekoa jaiotza-urtearen arabera



108. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. Ikasleen ehunekoa Matematikarako kompetentziako errendimendu mailetan jaiotza-urtearen arabera



109. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. Ikasleen ehunekoa Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziako errendimendu mailetan jaiotza-urtearen arabera




➤ ED09-ED10 ebaluazioetako emaitzen bilakaera.

Hurrengo grafikoak ebaluatutako hiru kompetentzietan emaitzek ikaslearen jaiotza-urtearen arabera izan duten bilakaera erakusten du. 2009an egindako Ebaluazio Diagnostikoari dagokionez, honako hau nabarmentzen da:

- *Matematikarako kompetentzian* izan ezik, bi hizkuntza-kompetentzietan (*Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako* kompetentzia eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako* kompetentzia), ikasle guztiek batez besteko puntuazioa punturen bat igo dute.
- Dagokien ikasmilan dauden ikasleek 1 puntu igo dute gaztelaniazko batez bestekoa eta 9 puntu euskarazkoa; ikasmilari dagokion adinarekiko urtebeteko atzerapena duten ikasleek 8 puntu igo dute gaztelaniazko batez bestekoa, eta 5 puntu, euskarazko batez bestekoa. Dagokion adinarekiko bi urteko atzerapena duten ikasleen taldeak % 6 hobetu du gaztelaniazko batez bestekoa, eta % 1, euskarazkoa.
- *Matematikarako kompetentzian*, adinaren arabera maila egokian dauden ikasleek aurreko ebaluazioko puntuazio berbera lortu dute (259 puntu). Adinaren arabera maila egokian ez dauden eta urtebeteko atzerapena daramaten ikasleek % 1 hobetu dute batez bestekoa, eta bi mailako atzerapena dutenek % 3ko beherakada izan dute.

110. grafikoa: ED09-ED10 bilakaera. DBHko 2. maila. Emaitzak ikasleen sexuaren eta konpetenzien arabera



4.3 GURASOEN IKASKETA MAILA

Aitaren eta amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, ebaluatutako konpetentzia guztietako emaitzak orduan eta hobekuntza izango dira. Gurasoek oinarrizko ikasketak dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketak dituztenen ikasleen artean, zenbait konpetentzian, 40 eta 50 puntu arteko aldea dago.

Orain arte egindako azterketetan⁹ argi geratu da gurasoen ikasketa mailak eragin argia duela ikaslearen ebaluazioen eta kalifikazioen emaitzetan.

Lortutako ikasketa maila 4 taldetan sailkatu da: oinarrizko ikasketak soilik egin dituenak, DBHrekin baliokideak diren ikasketak amaitu dituenak, Batxilergoa edo maila ertaineko Lanbide Heziketako zikloak amaitu dituenak eta unibertsitateko ikasketak amaitu dituztenak.

Gurasoek kategoria bakoitzean zer ikasketak maila lortu duten (ehunekoetan) erakusten du grafikoak

⁹ PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. www.isei-ivei.net
Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila. www.isei-ivei.net

Ikasleen ehunekoa aitaren eta amaren ikasketen gehieneko mailaren arabera.

	Oinarrizkoak		DBH		Batxilergoa, LH		Unibertsitatea	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Aita	1.179	7,5	3.973	25,3	5.707	36,3	4.866	30,9
Ama	1.040	6,5	4.089	25,5	5.279	32,9	5.617	35,2

DBHko 2. mailako gurasoen % 67 edo % 68 inguruk Batxilergoko ikasketak, Lanbide Heziketako prestakuntza-ziklo bat edo unibertsitateko ikasketak dituzte. Gurasoen % 25ek baino zertxobait gehiagok DBHren baliokideak diren derrigorrezko ikasketak amaitu dituzte. Aiten % 7 eta amen % 6 inguruk oinarrizko ikasketak soilik dituzte.

➤ Aitaren ikasketa maila eta ebaluatutako kompetentzietako puntuazioa

Jarraian ageri den taulak eta grafikoak DBHko 2. mailako ikasleen gurasoen gehieneko ikasketa mailaren eta Ebaluazio Diagnostikoa 2010en ebaluatutako kompetentzia bakoitzean lortutako puntuazioen arteko lotura erakusten du.

Aitaren gehieneko ikasketa maila eta DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak


	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa / LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	232	252	262	270
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	230	245	254	266
Matematikarako-kompetentzia	222	242	252	268
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	228	241	251	266

Gurasoen ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, DBHko 2. mailako ikasleek lortzen dituzten puntuazioek ere gora egiten dute nabarmen ebaluatutako kompetentzia guztietan.

Ikasleen puntuazioetako alderik handienak gurasoek oinarrizko ikasketak soilik eta DBHren baliokideak diren ikasketak egin dituztenen artean gertatzen dira. Bi talde horien artean 20 puntu arteko aldeak egon dira *Matematikarako kompetentzian* eta *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, 15 puntukoa *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioaren kompetentzian* eta 13 puntukoa *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*. Gurasoek oinarrizko ikasketak soilik dituzten eta unibertsitateko ikasketak egin dituzten ikasleen arteko aldeak 46 puntu baino gehiagokoak dira *Matematikarako kompetentzian*.

Gurasoek Batxilergoa edo Lanbide Heziketa egiten duten kasuetan, ikasleek batez besteko puntuazioa gainditzen dute kompetentzia guztietan; gauza bera gertatzen da gurasoek unibertsitateko ikasketak egin dituztenean ere.

111. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Aitaren ikasketa maila eta ikasleen kompetentzien arabera izandako emaitza



➤ Amaren ikasketa maila eta ebaluatutako kompetentzietako puntuazioa

Aurreko azterketak berbera egin da DBHko 2. mailako ikasleen amek lortutako ikasketa mailarekin ere. Hurrengo taulan eta dagokion grafikoan ikus daitekeen moduan, amen ikasketa maila seme-alabek lortutako emaitzekin dago lotuta. Kompetentzia guztietan, amek zenbat eta ikasketa maila altuagoak izan, seme-alabek lortutako emaitzak ere orduan eta altuagoak izango dira.

Amaren gehieneko ikasketa maila eta DBHko 2. mailako ikasleen emaitzak


	Oinarrizkoak	DBH	Batxilergoa / LH	Unibertsitatea
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	225	248	261	272
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	228	243	255	264
Matematikarako kompetentzia	219	237	252	268
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	228	239	251	265

Ikus daitekeen moduan, amek oinarrizko ikasketak soilik dituzten ikasleek lortzen dituzte puntuaziorik baxuenak kompetentzia guztietan.

Gurasoen kasuan bezalaxe, ikasleen puntuazioetako alderik handienak amek oinarrizko ikasketak soilik egin dituztenen taldeen eta DBHren baliokideak diren ikasketak egin dituztenen artean gertatzen dira. Bi talde horien artean, 23 puntuko aldea egon ohi da *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, eta 18 eta 11 puntu artekoa gainerakoan. Amek oinarrizko ikasketak soilik egin dituzten ikasleen eta unibertsitateko ikasketak egin dituztenen puntuazioetako aldeak 50 puntu ingurukoak dira *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* eta *Matematikarako kompetentzian*.

Amek Batxilergoko, Lanbide Heziketako edo Unibertsitateko ikasketak egin dituzten kasuetan, ikasleek batez besteko puntuazioa gaitzen dute ebaluatutako kompetentzia guztietan.

112. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Amaren ikasketa maila eta ikasleen kompetentzien arabera izandako emaitza



Gurasoen ikasketa maila kontuan hartuz ikasleen puntuazioei dagokienez, honako hau nabarmendu behar da:

- Amek oinarrizko ikasketak soilik dituztenean, seme-alabek puntuazio baxuagoak lortzen dituzte *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian*, baina *Matematikarako kompetentzian* eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* aitik prestakuntza maila berbera duenean baino emaitza altuagoak lortzen dituzte.
- DBHren baliokideak diren ikasketak egin dituzten amen kasuetan, seme-alaben emaitzak kompetentzia guztietan nabarmen baxuagoak dira ikasketa maila hori bera aitek duten kasuekin alderatuta.
- Biek Batxilergoa edo Unibertsitateko ikasketak egin dituztenean, emaitzak oso antzekoak dira kompetentzia guztietan.

Emaitza horiek aurreko ebaluaziokoarekin, ED09rekin, alderatuz gero, antzeko jokoera antzematen da, bai prestakuntza maila bakoitzean aiten eta amen ehunekoen banaketan, bai ikasleek ebaluatutako kompetentzietan lortu dituzten emaitzetan.

4.4. DBHko 2. MAILAKO IKASLEEN FAMILIA EGITURA.

Familia-nukleoan bizi ziren ikasleek -% 85 inguru- guraso bakarreko familietan bizi direnek edo beste egoera batzuk deitutakoan bizi direnek baino emaitza altuagoak lortzen dituzte.

Ikasleen galdetegiko galdera batean, etxean bizi direnen pertsonen gaineko informazioa eskatzen zen. Ikasleek galdera horri emandako erantzunak hurrengo taulan ageri diren lau taldeetan sailkatu dira:

Aita, ama eta anai-arrebak		Aita eta ama		Aita edo ama		Beste egoera batzuk	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
11.215	66,8	2.897	17,3	2.439	14,5	236	1,41

DBHko 2. mailako ikasle gehienak, % 84, familia-nukleoa deitzen zaionean bizi da, hau da, aitak, amak, eta izanez gero, anai-arrebek osatutakoan. Horien artean, % 67 inguru gurasoekin eta anai-arrebekin bizi da eta % 17,3 gurasoekin soilik bizi da, hau da, anai-arrebarik gabeko seme-alabak dira. Ikasle horien % 14,5 guraso bakarrik osatutako familian bizi da, guraso bakar batekin, amarekin edo aitarekin. 100 ikasletatik 1 baino pixka bat gehiago (% 1,4), beste familiarteko batzuekin bizi dira harrerako familia baten edo babestutako etxebizitza batean; kategoria horri “*beste egoera batzuk*” deitu zaio.

ED09 aurreko ebaluazioarekin lotuta, ikasleen banaketa oso antzekoa da.

➤ Familia-egitura eta lortutako emaitzak

Jarraian, DBHko 2. mailako ikasleen familia-osaerak ebaluatutako oinarritzko konpetentzietan lortutako puntuazio-aldeetan eraginik duen aztertu nahi da. Beste ebaluazioek, PISAk eta Lehen Hezkuntza 2004¹⁰ bermatzen dute ikasleek lortutako emaitzetan eragina duen aldagaia dela aipatutakoa.

Lortutako emaitzak eta DBHko 2. mailako ikasleen familia-egitura.

	Aita, ama eta anai-arrebak	Aita eta ama	Aita edo ama	Beste egoera batzuk
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	262	257	245	239
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	254	254	248	243
Matematikarako konpetentzia	255	249	236	235
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	252	250	241	242


Datuen arabera, familia-nukleotan bizi diren ikasleek, hau da, aitak, amak eta anai-arrebek (izanez gero) osatutakoek –hau da, % 84– lortu dituzte emaitzarik altuenak. Konpetentzia guztietan, talde horrek batez besteko puntuazioa gainditzen du, *Matematikarako konpetentzian* izan ezik; konpetentzia horretan, anai-arrebarik gabe, aitarekin eta amarekin bakarrik bizi direnek puntuazio zertxobait baxuagoak lortzen dituzte; hala ere, aintzat hartutako gainerako familia-egoerak baino puntuazio altuagoak dira. Puntuaziorik baxuenak guraso bakararekin bizi diren eta “*beste egoera batzuk*” deitutakoan dauden ikasleek lortzen dituzte.

Kasu guztietan, puntuazioen arteko aldeak adierazgarriak dira, bi egoeratan *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzia* izan ezik; kasu honetan, aitarekin, amarekin eta anai-arrebekin, eta guraso bakararekin bizi direnek emaitza berberak lortzen dituzte.

Zehazki, egoera hori bera gertatu zen ED09 aurreko ebaluazioan ere.

¹⁰ . PISA 2003 Ebaluazioaren bigarren txostena. Emaitzak Euskadin. www.isei-ivei.net
Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila. www.isei-ivei.net

113. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Familia-egitura eta ikasleen emaitzak kompetentzian arabera



4.5. IKASLEEN ESKOLATZEAREN HASIERA ADINA

Eskolatzea 3 urte baino lehenago hasi zuten ikasleek (% 68,8) puntuazio altuagoak lortu dituzte kompetentzia guztietan.

Derrigorrezko hezkuntza modu ofizialean 6 urtetik aurrera hasten den arren, gure erkidegoan badaude eskolatze goiztiarra sustatzen duten planak; beraz, haur gehienak adin ofizial hori baino lehen eskolatzen dira, 2 urte eta 5 urte arteko tartean. Egoera horretatik aurrera, eskolatzearen hasierako adinak, hau da, ikasleek hezkuntza-sisteman daramatzaten urte kopuruak, kompetentzietan lortutako emaitzetan eraginik izan dezakeen jakitea da helburua.

Ikastetxean nahiz haurtzaindegian eskolatzea hasi zen adinari erreferentzia egiten dion ikasleen galdetegiko galderatik hasita aztertzen da.

DBHko 2. mailako ikasleen eskolatzearen hasierako adina ehunekoetan

3 urte baino lehen		3 urterekin		4 urterekin		5 urterekin	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
11.430	68,8	4.267	25,7	525	3,2	386	2,3

2009-2010 ikasturtean DBHko 2. mailan matrikulatuta zeuden ikasle gehienak (% 94,5, hain zuzen) 3 urterekin edo lehenago hasi ziren ikastetxera edo haurtzaindegira joaten. % 3,2 soilik hasi ziren 4 urterekin, eta % 2,3, 5 urterekin.

➤ **Eskolatzearen hasierako adina eta lortutako emaitzak**

Jarraian, hezkuntza maila honetako ikasleek ebaluatutako konpetentzietan lortutako emaitzak ageri dira, eskolatzeari hasi zuten edo haurtzaindegian hasi zeneko adina kontuan hartuz.

Emaitzak DBHko 2. mailako ikasleen eskolatzeari hasierako arabera.

	3 urte baino lehen	3 urterekin	4 urterekin	5 urterekin
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	263	253	225	203
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	255	252	231	215
Matematikarako konpetentzia	255	247	223	205
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	253	249	233	221

Konpetentzia guztietan, eskolatzeari 3 urte baino lehen hasi zuten DBHko 2. mailako ikasleek (% ia 69k) lortu dituzte puntuaziorik altuenak. Puntuazio horiek konpetentzia bakoitzeko batez bestekoarenak baino altuagoak dira eta gainerako taldeen puntuazioarekin alde handiak dituzte.


Ikaslearen eskolatzeari hasiera zenbat eta beranduagokoa izan, emaitzak orduan eta baxuagoak dira. Hori dela eta, 3 urterekin eskolatu zirenek (% 25,7) puntuazio zertxobait baxuagoak lortu zituzten, baina konpetentzia bakoitzeko batez bestekoaren ingurukoak; bien bitartean, eskolatzeari 4 eta 5 urterekin hasi zuten ikasleen % 5,5ek 30 eta 60 puntu arteko aldea lortu dute lehenengokiko, *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan, esaterako. Datuen arabera, aipatutako konpetentziaren emaitzetan eskolatzeari hasiera goiztiarra oinarrizkoa dela familiakoarengandik desberdina den hizkuntza lortzeko.

Kontuan izan behar da eskolatzeari 5 urterekin edo beranduago hasi zuten ikasleek 8 urte daramatzatela hezkuntza-sisteman; aldiz, 3 urterekin edo gutxiagorekin hasitakoek gutxienez 11 urte inguru daramatzate eskolatuta. Eskolatzeari goiztiarrak (3 urte edo gutxiago) Euskadiko ikasleen ondorengoko eskola-errendimenduan duen eragin onuragarria bistan geratu zen 2009ko ebaluazio diagnostikoan. Beste ebaluazio batzuek¹¹, PISA, TIMSS eta PIRLS ebaluazioetatik abiatuta egindako azterketek gain, aldagai horren eragina behin eta berriz bermatzen dute.

Egoera hori gertatzen da Lehen Hezkuntzako 4. mailako ikasleetan ere, bai 2010eko Ebaluazio Diagnostiko honetan, bai 2009an egindakoan, eta badirudi agerian jartzen duela aldagai horren eragina mantendu egiten dela eskolatzeari zehar, eta badirudi ikasturteek aurrera egin ahala ez duela indarra galtzen.


¹¹ Lehen Hezkuntzako Ebaluazioa 2004. Laburpen exekutiboa. Ondorioak eta hobekuntza-proposamenak. 2006ko apirila. www.isei-ivei.net

114. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Eskolatzearen hasiera-adina eta ikasleek kompetentzien arabera izandako emaitza



Hurrengo grafikoak talde horien emaitzen bilakaera erakusten du; horretarako, ebaluazio diagnostiko hau ED09 aurreko ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatu zen.

115. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. ED10-ED09 bilakaera. Eskolatzearen hasiera-adina eta ikasleek kompetentzien arabera izandako emaitza



4.6. EBALUAZIO DIAGNOSTIKOKO EMAITZEN ETA IKASGELAN MATEMATIKAN IZANDAKO KALIFIKAZIOEN ARTEKO KORRELAZIOA

Ikasgelako kalifikazioen eta *Matematika-konpetentziako* ebaluazioko errendimenduaren artean lotura positiboa dago. Ikasgelako kalifikazio altuari, ebaluazioan ere puntuazio altua dagokio.

Atal honetan, DBHko 2. mailako ikasleek 2010eko Ebaluazio Diagnostikoan lortutako emaitzak ikasle horiek berak joan den ikasturtean lortu zituzten azken kalifikazioekin erlazionatu nahi dira.

Ikastetxeetan egiten diren ohiko ebaluazioetako ikasleen errendimenduak kanpo ebaluazioan lortutakoarekin loturarik baduen jakitea da helburua. ED10 edizio honetan, Matematika alorra aukeratu da berriz hizkuntza-ereduek eraginik txikiena egin dielako eta aurreko ebaluazioarekin alderaketak ezartzea ahalbidetzen duelako.

Azterketa egiteko, ikasleek Matematika alorrean izan dituzten kalifikazioak eta ikasleek aipatutako konpetentzian izan dituzten emaitzak hartu dira kontuan. DBHko 2. mailako ikasleen kasuan, materiak 0tik 10era arteko notarekin kalifikatzen dira. Azterketa errazte aldera, eta era berean Lehen Hezkuntzako emaitzekin alderaketa egin ahal izateko, kalifikazio horiek talde hauetan banatu dira:

Kalifikazio numerikoa	Kalifikazio orokorra
Puntuazioa 0tik 4ra	Gutxiegi
Puntuazioa: 5	Nahikoa
Puntuazioa: 6	Ongi
Puntuazioa: 7 eta 8	Oso ongi
Puntuazioa: 9 eta 10	Bikain


Hurrengo taulan, ikasleen ehunekoetan, Matematika arloan joan den ikasturtean izan zituzten ikasgelako azken kalifikazioak ageri da.

Ikasleen ehunekoa eta ikasgelako kalifikazioak Matematikan

Kalifikazioa	%
Gutxiegi	11
Nahikoa	17,5
Ongi	16,9
Oso ongi	36,5
Bikain	18,1

Hezkuntza maila honetako ikasleen ia erdien (% 54,6) arabera, *oso ongi* eta *bikain* kalifikazioak atera dituzte Matematikan. % 11k dio *gutxiegi* kalifikazioa lortu duela eta % 17k *ongi* edo *nahikoa*.

116. grafikoa :ED10-DBHko 2. maila. Ikasleen ehunekoak Matematikako kompetentzian lortutako ikasgelako kalifikazioaren arabera



➤ **Matematikako ikasgelako kalifikazioak geruzen arabera (ikastetxearen titulartasuna eta hizkuntza-eredua)**

Hurrengo taulan geruza bakoitzeko ikasleek Matematikan izan zuten azken kalifikazioaren azterketa zehatza ageri da.

DBHko 2. mailako ikasleek Matematikan lortutako kalifikazioa. Ehunekoak geruzen arabera.


	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D	% batez bestekoa
Gutxiegi	25,6	17,2	10,6	14,4	9,9	7,2	11
Nahikoa	18,6	18,5	17,1	20,1	18,1	15,9	17,5
Ongi	16,7	16,6	16,8	16,9	17,7	16,3	16,9
Oso ongi	26,9	33,4	36,2	33,7	36,5	40,7	36,5
Bikain	12,3	14,2	19,3	14,9	17,7	20	18,1

*ED/EDE erantzun duten ikasleen ehunekorik ez da txertatu

Geruzetako ikasleen ehunekoak eta kalifikazio bakoitzaren batez besteko ehunekoak alderatzen baldin badira, honako hau ondorioztatzen da:

- A eta B geruza publikoek eta itunpeko A geruzak batez besteko ehunekoa gainditzen duen ikasleen ehunekoa dute *gutxiegi* kalifikazioarekin. Zehazki, A geruza publikoak 14 punturekin gainditzen du batez bestekoa. Itunpeko B eta de D ereduak dute materia gainditu ez duten ikasleen ehunekorik baxuena.
- Geruza guztiek, D eredu publikoak eta itunpekoak izan ezik, *gutxiegi* kalifikazioa lortu duten ikasleen ehunekoa zertxobait gainditu dute.
- Matematikan oso ongi kalifikazioa lortu duten itunpeko D ereduko ikasleek % 4 puntutan gainditu duten batez besteko ehunekoa. *Oso ongi* nota lortu duten itundutako B ereduko eta D ereduko ikasleak batez bestekoan daudela esan daiteke.
- Itunpeko D ereduak eta D eredu publikoak Matematikan *bikain* kalifikazioa lortu duten ikasleen batez besteko ehunekoa 2 puntutan (gutxi gorabehera) gainditu dute.

117. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Matematikan ikasgelako sailkapenaren arabera ikasleen ehunekoa geruzen arabera



➤ **Ikasgelako kalifikazioen eta ebaluazio diagnostikoko emaitzen arteko lotura.**

Matematika alorrean oso ongi eta bikain kalifikazioak lortu zituzten ikasleak soilik iritsi dira –ikasleen % 55 inguru- konpetentzia honetako batez besteko puntuazioa gainditzera (250,3 puntu).

Ikasleak hainbat geruzari buruz emandako informaziotik abiatuta, 2010eko ebaluazioaren aurreko ikasturtean Matematika alorrean lortutako kalifikazioaren eta bertan lortutako puntuazioen artean loturarik badagoen aztertzen da.

Hurrengo taulan, konpetentzia honetan ikasleek Matematikan lortu zuten ikasgelako kalifikazioaren arabera erdietsitako batez besteko puntuazioak ageri dira.

Ikasgelako kalifikazioa	Matematika-konpetentziako puntuazioa	ikasleen %
Gutxiegi	207	11
Nahikoa	225	17,5
Ongi	238	16,9
Oso ongi	262	36,5
Bikain	292	18,1

Zehazki, oso ongi eta bikain kalifikazioak lortu zituztenek soilik (ia-ia ikasleen % 55ek) gainditu dute konpetentzia honetako batez besteko puntuazioa (250,3 puntu). Joan den ikasturtean Matematikan ongi kalifikazioa lortu zuten ikasleek 238 puntu lortu dituzte Ebaluazio diagnostikoko puntuazioan, nahikoa kalifikazioa lortu dutela dioten ikasleek lortutako 225 puntu eta gutxiegi lortu dutela diotenean lortutako 207 puntu baino puntuazio altuagoa.

Hurrengo taulan, Matematika alorrean lortutako ikasgelako kalifikazioaren arabera *Matematikarako konpetentzia*n geruza bakoitzeko ikasleek lortutako batez besteko puntuazioa ageri da.


Kalifikazioak Matematikan eta geruzen araberako emaitzak Matematika-konpetentzian.

	A publikoa	B publikoa	D publikoa	Itunpeko A	Itunpeko B	Itunpeko D
Gutxiegi	184	201	208	214	210	213
Nahikoa	196	213	222	231	230	231
Ongi	200	228	236	246	239	243
Oso ongi	222	247	259	271	266	269
Bikain	254	285	291	297	296	294

Geruza bakoitza aztertu ondoren, ikasgelan lortutako kalifikazioen eta *Matematikarako konpetentziaren* ebaluazioan lortutako puntuazioen arteko erlazio positiboa nabari da. Horien guztien artean, honako hau ondorioztatzen da: ikasgelan zenbat eta kalifikazio handiagoa izan, ebaluazio diagnostikoan orduan eta puntuazio handiagoa lortuko da.

Geruza guztietan, *oso ongi* eta *bikain* kalifikazioa lortu dutenak 250 puntuko batez bestekoaren gainetik kokatzen dira, A eta B geruza publikoetan izan ezik; bertan, bikain (% 18 eta % 36, hurrenez hurren) kalifikazioa dutenek soilik lortzen dute batez bestekoa gainditzea.

118. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Matematikako ikasgelako kalifikazioaren eta ED10ean lortutako puntuazioaren arteko lotura, geruzen arabera.



➤ **Ikasleen banaketa ikasleen kalifikazioaren arabera eta Matematika-konpetentzian lortutako puntuazioaren arabera**


Ikasgelako kalifikazioen eta Ebaluazio diagnostikoan lortutako batez bestekoen arteko harremana positiboa da. Hala eta guztiz ere, ikasleen sakabanaketa ere ezagutu behar da bi aldagai kontuan hartuta: Matematikan duten ikasgelako kalifikazioa eta ebaluazioan lortutako puntuazioa.

Hurrengo taulak 5 pertzentilari eta 95 pertzentilari dagozkion puntuazioak erakusten ditu ikasgelako kalifikazio bakoitzean, baita batez besteko puntuazioa ere ikasgelako kalifikazioaren arabera.

	Batez bestekoa	5 pertzentila	95 pertzentila	p95-p5 tartea
Gutxiegi	207	145	286	141
Nahikoa	225	160	294	134
Ongi	238	170	306	136
Oso ongi	262	189	331	142
Bikain	292	208	364	156

Egiazta daiteke ikasgelako kalifikazio berbera duten ikasleen artean alde handiak daudela ebaluazioan lortutako puntuazioetan; horiek 150 puntu gainditzen dituzte. Esate baterako, Matematikan *gutxiegi* nota atera zuen ikasleen artean, 5 pertzentilean dagoen taldeak 145 puntuko batez besteko puntuazioa lortzen du eta 95 pertzentileko taldeak nabarmen gainditzen du batez bestekoa, 286 puntura iritsiz.

95 pertzentilaren eta 5 pertzentilaren arteko puntuazio-tarteak 130 gainditzen ditu kasu guztietan, eta 156 puntura iristen da *bikain* kalifikazioan. Alde horiek emaitzetan hedapen handia egotearen adierazleak dira, jarraian ageri den grafikoan adierazten den moduan.



Grafikoak erakusten du ikasgelako kalifikazio berberaren baitan oso sakabanaketa zabala gertatzen dela ikasleen artean. Esate baterako, *nahikoa* ikasgelako kalifikazioa lortu duen taldearen artean 134 puntuko aldea dago ebaluazioan; hau da, ikasgelako kalifikazio hori duen ikasle batek 225 puntuko batez besteko puntuazioa lortu du ebaluazioan, beste bat 294 puntura iritsi da, 250,3 puntuko batez besteko orokorra nabarmen gaindituz, eta beste batzuek 160 puntu soilik lortu dituzte; puntuazio hori batez bestekoaren azpitik dago nabarmen.

Ondorioz, ikasgelako kalifikazioen eta *Matematikarako kompetenziaren* ebaluazioko errendimenduaren artean lotura positiboa egon ohi den arren, ikasgelako kalifikazioa ez du beti ondo bereizten; izan ere, zenbait ikaslearen puntuazioak ez datoz bat. Bat baino gehiago dira sakabanaketa hori azal dezaketen hipotesiak; kalifikazio berbera lortzeko ikastetxeen eskakizunak desberdinak izateagatik izan liteke, edo bestela, ikasle bakoitzari dagokion ikasgelako taldearen ezaugarriak kalifikazio jakin bat lortzeko garaian eragina izan dezakeelako.

➤ **Ikasgelako kalifikazioaren eta ikasleak eskolatuta dauden taldearen arteko lotura**


Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen maila akademikoak ikasleak ikasgelan lortutako kalifikazioak baldintzatzen ditu; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean egon ohi den sakabanaketa egokitzeko joera izan ohi dute eta beren ebaluazio-irizpideak taldeari egozten zaion erdiko mailara egokitzen ditu.

Ikasmaila errepikatzearen gainean egindako azterketak¹² agerian jarri zuen ikasgela batekoa edo bestekoa izateak emaitzetan duen eragina. Azterketa honek Matematikako ikasgelako kalifikazioak DBHko 2. mailako ikasleek TIMSS 2007an lortutakoekin lotzen zituen. Egoera hori bera nabarmendu zen ED09 aurreko ebaluazio diagnostikoan egindako azterketan ere.

Azterketa hori egiteko eta ikasle bakoitzaren taldeak ikasgelako kalifikazioetan zer eragin duen jakiteko, DBHko 2. mailako ikasgela edo talde guztiak kuartiletan banatu dira, 2010eko ebaluazio diagnostikoan lortutako puntuazioen arabera. Hori dela eta, 1. kuartilean egon ohi da taldeen % 25 eta bertako ikasleek lortu dituzte emaitzarik baxuenak; 2. eta 3. kuartiletan daude ikasleen % 50 (% 25 bakoitzean), eta ebaluazioan emaitza altuagoak lortu dituzte; azkenik, 4. kuartilean daude taldeen % 25; *Matematikarako kompetentziako* ebaluazioan azken horien emaitzak dira altuenak.

Kuartiletan bildutako puntuazioak joan den ikasturtean Matematikan lortutako ikasgelako kalifikazioekin alderatzen dira, jarraian modu grafikoan ageri den moduan.

120 grafikoa :ED10-DBHko 2. maila. Matematika-kompetentziako emaitzak ikasgelako kalifikazioen arabera.



1. kuartileko ikasleei (ebaluazioan errendimendu baxuena lortzen duten % 25) dagokien lerro urdinari zehatz begiratu gero, bistakoa da *bikain* kalifikazioa lortzen dutenek soilik lortzen dutela 250,3 puntuko batez besteko puntuazioa. Talde honetako ikasleak esate baterako 2. kuartila osatzen duten beste talde batean egongo balira, *oso ongi* nota lortuko lukete, eta 4. kuartila (ebaluazioan

¹² Ikaslearen irakaskuntza-ikasketa prozesuan ikasturtea errepikatzeak duen eragina. 2009. ISEI-IVEI. www.isei-ivei.net

errendimendu altuena lortzen dutenen % 25) osatzen dutenen taldean egongo balira, *nahikoa* ere ez lukete lortuko ikasgelako kalifikazioan.

4. kuartilari dagozkion taldeak ordezkatzan dituen lerro moreak erakusten du *ongi*, *oso ongi* eta *bikain* kalifikazioak dituztenek 250,3 puntuko batez bestekoa nabarmen gainditzea lortzen dutela (261, 285 eta 314 puntutara iritsiz, hurrenez hurren).

Datu horiek badirudi ostera ere berretsi egiten dituztela TIMMSetan parte hartu zuen populazioarekin ikasmaita errepikatzeari buruz egindako azterketaren emaitzak¹³. Grisayren ikerketen tesia¹⁴ ere berretsi dute; horren arabera, ikaslea eskolatuta dagoen taldearen mailak ikasleak ikasgelan lortzen dituen kalifikazioak baldintzatzen ditu; izan ere, irakasleak ikasgelaren baitan dagoen sakabanaketa egokitzeko joera izan ohi du eta ebaluazio-irizpideak ikasgelako taldeari esleitzen dizkion mailara egokitzen ditu. Hori dela eta, ebaluazio diagnostikoko emaitza berberak ikasgelako kalifikazio desberdinak izan ditzake, ikaslearen taldeari ematen zaion esleipenaren arabera, maila altukotzat hartzearen edo maila baxuagokotzat hartzearen arabera.

4.7. FAMILIA JATORRIA: JATORRIZ ATZERRITARRA DEN IKASLEA

Jatorriz atzerritarrak diren ikasleek –ebaluatutako ikasle guztien % 7,9– batez bestekoa baino puntuazio baxuagoak lortzen dituzte konpetentzia guztietan, batez ere *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan. Jatorriz atzerritarrak diren ikasleen % 55 inguru ikasle etorkinen bat duten 251 ikastetxeetatik 45etan dago eskolatuta.

Lehenago adierazi den moduan, 2010eko ebaluazio diagnostikoan hartu dute parte Euskadiko ikastetxe guztietako DBHko 2. mailako ikasle guztiek. Hala eta guztiz ere, oso egoera berezietan, horien artean betebeharrak jakin batzuk betetzen ez zituen hezkuntza-sisteman sartu berri den ikasle etorkinarekin lotutakoetan, salbuespenak egin dira parte-hartzearen baldintzetan.

Ikasle etorkinaren kategorizazioa ikasleak galdera-sorta betetzean eskaintzen zuen informaziotik abiatuta egin da. Hala eta guztiz ere, ikastetxeak aurretik eskaini zituen hezkuntza maila horretan eskolatuta urtebete baino gutxiago zeramaten eta bi hizkuntza ofizialetako bat ezagutzen ez zuten ikasle etorkinei buruzko datuak. Informazioa ez da beti bat etorri ikaslearen galdetegian bildutakoarekin. Desadostasuna egonez gero, ikastetxeak eskaintako informazioa hartu da erreferentzia gisa.

¹³ Op. Cit.

¹⁴ Grisay Aletta. 1984. "Les mirages de l'évaluation scolaire (1) - Rendement en français, notes et échecs à l'école primaire". Revue de la Direction de l'Organisation des Études, XIX

Ikasle etorkinari buruzko datuak aztertzeko, ebaluazio honetan, irizpide hauek hartu dira kontuan:

- Jatorriz atzerritarra izanik hezkuntza-sisteman sartu berri den (urtebete baino gutxiago) eta probaren aplikazioko hizkuntza (euskara edo gaztelania) ezagutzen ez dituen ikaslea. Kasu horietan, probak ikastetxe bakoitzaren irizpidearen arabera egin ahal izan ditu, baina emaitzak ez dira taldearen eta ikastetxearen batez bestekoan sartu.
- Jatorriz atzerritarra izanik hezkuntza-sisteman sartu berri den (urtebete baino gutxiago) ikaslea; horren etxeko hizkuntza gaztelania da. Kasu horietan, emaitzak taldearen eta ikastetxearen batez bestekoan sartu dira, probako hizkuntza gaztelania izanez gero, betiere.
- Jatorriz atzerritarra den ikaslea, gurasoetako bat edo biak jatorri berberekoak izanik. Ikasleak urtebete baino gehiago baldin badarama eskolatuta, horren puntuazioak taldearen eta ikastetxearen batez bestekoan sartu dira.

Beraz, atal honetan deskribatzen diren datuak ebaluazioa egin zen unean DBHko 2. maila egiten ari ziren eta gutxienez proba batean parte hartu duten etorkin guztiak kontuan hartuta eman dira. Hala ere, zenbaitetan, proban parte hartu arren, emaitzak ez dira puntuazio orokorrean sartu.

Hezkuntza maila honetan –DBHko 2. maila-, ikasle etorkinen guztizko kopurua 1.416 ikaslekoa da, hau da, biztanleria osoaren % 7,9koa. Horien artetik, 815, hau da % 57,6, titulartasun publikoko ikastetxeetan daude eskolatuta, eta 601, hau da, % 42,4, itundutako ikastetxeetan.

Geruzen arabera, DBHko 2. mailako ikasle etorkinak honela banatzen dira:

Ikasle etorkinak geruzen arabera. DBHko 2. maila

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itunpeko A		Itunpeko B		Itunpeko D	
Kopur	%	Kopur	%	Kopur	%	Kopur	%	Kopur	%	Kopur	%
466	32,9	140	9,9	209	14,8	298	21	217	15,3	86	6,1
Ikastetxe publikoetako ikasle kopurua: 815 (% 57,6)						Itundutako ikastetxeko ikasle kopurua, 601 (% 42,4)					
Ikasle etorkinak guztira, 1.416											

Hizkuntza-ereduak aztertzean, ondorioztatu daiteke ikasle etorkinen erdiak baino gehiago (% 53,9) A ereduaren eskolatuta daudela; % 25,2 B ereduaren eta % 20,8 D ereduaren eskolatuta dago.

Ikasle etorkinak eta eskolatzeko-ereduak

A eredu		B eredu		D eredu	
Kopur	%	Kopur	%	Kopur	%
764	53,9	357	25,2	295	20,8

Ikasle etorkinen artean, mutilen eta nesken ehunekoa oso antzekoa da.

Ebaluazio diagnostikoa 2010an parte hartu zuten ikasle etorkinen sexua

Mutilak		Neskek	
Kopur	%	Kopur	%
714	50,4	702	49,6

Ikasleen jaiotza-urtearen arabera, ikaslea egokitasun-egoeran dagoen ondorioztatu ahal izango da; hau da, adinaren arabera dagokion ikasmailan dagoen edo ikasmaila akademikoren bat errepikatu duen. Ikasle etorkinen kasuan, adinari dagokion atzerapena eskolatzeko berantiarrengatik edo hezkuntza-sistemen arteko egokitzapenean izandako zailtasunengatik gerta zitekeen.

Ikasle etorkinen jaiotza-urtea

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 1996 (egokitasuna)	613	43,3
Jaiotza-urtea: 1995	600	42,4
Jaiotza-urtea: 1994	198	14

Egokitasun-egoeran, hau da, beren adinari dagokion ikasmilan dauden ikasle etorkinak ez dira erdira ere iristen (% 43,3); Horien artetik % 42,4k ikasmila akademikoa errepikatu du edo ikasturte bat geroago hasi zen eskolan. % 14 inguruk bi ikasmila akademikoko atzerapena darama bere adinarekiko.

Zehazki etorkinetan oinarritutako azterketaz gain, beste azterketa batek ere talde honen emaitzak eta ezaugarriak 2010eko Ebaluazio Diagnostikoan parte hartu duen DBHko 2. mailako eskola-biztanleria osoarekin alderatu nahi ditu.

Jakinarazi den moduan, 1.416 ikasle etorkin daude, eta hezkuntza-maila hau osatzen duten biztanleria osoaren % 7,9 dira. Etorkinak honela banatzen dira geruza desberdinetan:

Etorkinen eta bertakoen ehunekoak geruzen arabera

	Bertako biztanleria		Etorkinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%
A publikoa	538	53,6	466	46,4
B publikoa	916	86,7	140	13,3
D publikoa	6.064	96,7	209	3,3
Itunpeko A	1.602	84,3	298	15,7
Itunpeko B	3.937	94,8	217	5,2
Itunpeko D	3.548	97,6	86	2,4
Guztira	16.605	92,1	1.416	7,9

Geruzak aztertzean, nabarmendu behar da bi hezkuntza-sareetan (% 46 publikoan eta % 16 itunpekoan) etorkin gehien dituzten ikastetxeak A ereduak direla. D geruza publikoa eta itundua dira maila honetan etorkin kopuru gutxien eskolatzen dutenak, % 3 inguru.

Hezkuntza-sistemako ikastetxe desberdinetan hezkuntza-maila honetako ikasle etorkinen banaketari dagokionez, nabarmendu behar da hiru lurraldeetan Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza eskaintzen duten 333 ikastetxeen artetik, ikasle etorkinak 251 zentrotan daudela eskolatuta. 82 ikastetxek ez dute ikasle etorkinik. Ikastetxeetan, ikasle horien ehunekoak, askotan, familia-etorkinen bizilekua ikastetxeetatik urrunago edo hurbilago egoteak eragin dezake.

Hala eta guztiz ere, datu orokor horiek ez dute ikasle etorkinak eskolatzeari buruzko errealitatearen irudi osoa eskaintzen. Egoera hobeto ulertzeko, ikasleek ikastetxeetan duten banaketa kontuan hartuta aztertu behar da errealitatea: modu orekatuan banatzen diren, edo alderantziz, ikastetxe kopuru jakin batean pilaketa handia dagoen.

Etorkin guztiak ikastetxeetan banatzea.

Ikasle etorkinak eskolatzen dituzten ikastetxe kopurua	Ikasle etorkinen guztizko ehunekoa
25	39,69
45	54,66
57	61,72
85	74,01

Aurreko taulako datuak metagarriak dira, hau da, bi muturrak erreferentzia gisa hartuta, ikus daiteke ikasle etorkinak dituzten 251 ikastetxeen artean 25etan ikasle horien % 40 inguru eskolatzen direla; horien erdiak baino zertxobait gehiago 45 ikastetxetan biltzen dira eta 85 ikastetxetan (horietan, aurrekoak daude sartuta) banatzen da DBHko 2. mailako ikasle etorkinen % 74.

Era berean, eskolatzen diren ikastetxeetako ikasle-proporzioa aztertuz, ondoriozta daiteke bakoitzean dagoen ehunekoa ez dela homogenea; nabarmen aldatzen da, hurrengo taulako datuek erakusten duten moduan.

Ikasle kopurua, eskolatutako ikasle etorkinen ehunekoaren arabera

Ikastetxeen kopurua, ikasle etorkinen eskolatzearen ehunekoaren arabera	Ikasle etorkinen ehunekoa ikastetxeetan
1	% 70 edo gehiago
8	% 50 eta % 70 artean
16	% 30 eta % 50 artean
16	% 20 eta % 30 artean
50	% 10 eta % 20 artean

Ikasle etorkin kopuru gehieneko DBHko ikastetxeen artean, batek bakarrik biltzen ditu ikasle etorkinen % 70 baino gehiago, eta 8 ikastetxe dira ikasleen % 50 eta % 70 artean atzeritarrak dituztenak.

Ebaluatutako konpetentzia guztietako probetan parte hartu zuten ikasle etorkinen puntuazioak kasu guztietan ez ziren ikasleen batez besteko orokorrean sartu. 1.416 ikaste etorkinetatik 685ek 4 konpetentzien ebaluazioa egin zuten.

Proba bakoitzean parte hartu zuten eta konpetentzia bakoitzaren batez besteko orokorrean sartu ziren ikasle etorkinen kopurua erakusten du taulak. Era berean, ikasle etorkinek konpetentzia bakoitzean lortutako batez besteko puntuazioa ere ageri da.

Batez besteko orokorrean sartutako ikasle etorkinen konpetentzien arabeko emaitzak

	Kopurua	Batez bestekoa
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	739	201
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	1.170	225
Matematika-konpetentzia	1.191	212
Gizartrako eta herritartasunerako konpetentzia	1.247	232


Ikasle horiek parte hartu duten konpetentzia bakar batean ere ez dute lortu ikasleek (orotara) horietako bakoitzean lortutako batez bestekora iristerik.

➤ Ikasle etorkinen emaitzen bilakaera

Ebaluazio diagnostikoak bigarren urtez egingo dira, eta beste datu batzuekin egin den moduan, litekeena da atzerritar jatorriko ikasleen errendimenduak zer bilakaera duen ikustea.

Oro har, *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzi*tako emaitzetan hobekuntzak izan dira, bai euskaraz, bai gaztelaniaz, eta Matematika-kompetentziako emaitzetan nolabaiteko jaitsiera izan da, 3 puntukoa hain zuzen. *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzi*en kasuan, talde horren bilakaera populazio osoan gertatu denarekin bat dator; hobekuntza nabarmena izan da, bai euskaraz, bai gaztelanian. Hala eta guztiz ere, *Matematikarako kompetentzia*n, ebaluatutako gainerako biztanleekin ez dator bat.

121. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Ikasle etorkinen emaitzek hiru kompetentzietan izan duten bilakaera



4.8. HEEP PROGRAMA EGITEN ARI DIREN DBH-KO 2. MAILAKO IKASLEAK

DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean, 1.331 ikaslek Hezkuntza Espezifiko Esku-hartze Programa (HEEP) bati jarraitzen diote. Horien artean, 1.209k Ebaluazio diagnostikoko probaren batean hartu dute parte. Ebaluatutako kompetentzia guztietan lortutako puntuazioak Euskadin lortutako batez bestekoa baino askoz ere baxuagoak dira.

Hezkuntza Espezifiko Esku-hartze Programetako (HEEP) proiektuak egoera txarrean dauden ingurune soziokulturaletan kokatutako ikastetxeetan garatutako arreta individualizatutako programak dira. Horren helburua ikastetxeko proiektu bat garatzea da, eskola-atzerapen handia edota jarrera-arazo larriak dituzten DBHko lehen zikloan eskolatutako 16 urte baino gutxiagoko ikasleei arreta ematera zuzenduta. Programa horiek 2 ikasmilako indarraldia dute, eta horietarako, ikastetxeak hezkuntza-proiektu bat egin behar du; bertan, etaparen egiturari, curriculumari eta zikloaren antolakuntzari eragiten dioten beste neurri batzuk hartzen dira.

DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean, 1.331 ikaslek Hezkuntza Espezifikoko Esku-hartze Programa (HEEP) bati jarraitzen diote.

Hauek dira ikasle talde honen zenbait ezaugarri:

- Eskolatzea HEEP programa baten bidez egiten duten ikasleak DBHko 2. mailako ikasle guztien % 7,4 dira.
- Ikasle horien % 24,2 (322 ikasle) etorkinak dira.
- % 12,3 (164 ikasle) euskara ikasgaia ikasteaz salbuetsita dago.
- HEEP programa baten bidez ikasketak jarraitzen dituzten mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa da: % 58,3 mutilak dira, eta % 41,7, neskak.

Jarraian ageri den tauletan zehazten da ikasleen banaketa hezkuntza-eredu eta geruzen arabera:

Ebaluazioan parte hartu duten eta HEEP programa egiten ari diren ikasleak					
Publikoa			Itunpekoa		
Kopurua	Ikasleen % sarearen arabera	Ikasleen % HEEPrekin, sare publikoan	Kopurua	Ikasleen % sarearen arabera	Ikasleen % HEEPrekin, itunpeko sarean
706	53,04	8,47	625	46,96	6,45
Guztira: 1.331					

Sare bakoitzean aipatutako programa motari jarraitzen dioten ikasleen ehunekoa desberdina dela egiaztatzen da: zertxobait altuagoa da sare publikoan, % 8 inguru, eta zertxobait baxuagoa itunpeko sarean, % 6 inguru.

Hala eta guztiz ere, ikasleen banaketa ereduaren eta geruzen arabera aztertzen denean, datuek alde handiagoak erakusten dituzte, jarraian ageri den moduan.

HEEP programa erabiltzen ari diren ikasleak, hizkuntza-ereduen arabera			
	Kopurua	Ikasleen banaketa ereduaren arabera, ehunekoetan	Eredu bakoitzaren baitan, HEEP erabiltzen ari diren ikasleen %
A eredia	402	30,20	13,84
B eredia	405	30,43	7,77
D eredia	524	39,37	5,28

Datuen adierazten dutenaren arabera, D ereduaren ikasle kopuru handiagoa (524) dagoen arren, bakoitzaren garrantzia edo ordezkapena desberdina da guztizko biztanleriarekin alderatzen denean. Hori dela eta, D ereduaren dago egoera horretako ikasle ehunekorik baxuena (% 5 inguru); A ereduaren berriz, ikasleen % 13,84rekin, beste bi ereduarekin alderatuta, ikasleen erdiek edo gehiagok jarraitzen dituzte programa mota horiek.

Geruzaren arabera, HEEP programa bat erabiltzen duten ikasleak

	Kopurua	Geruza bakoitzaren baitako %
A publikoa	202	20,11
B publikoa	112	10,60
D publikoa	392	6,24
Itunpeko A	200	10,52
Itunpeko B	293	7,05
Itunpeko D	132	3,63

A geruza publikoak biltzen du aipatutako programa motarekin ikasketak egin dituzten ikasleen ehunekorik altuena, % 20, hain zuzen. B eredu publikoa eta itunpeko A eredia datoz atzetik;

horietan, 100 ikasle eta 10 HEEP programarekin dago eskolatuta. Itunpeko D geruzak eta D geruza publikoak dituzte programa mota horiek erabiltzen dituzten ikasle kopuru baxuenak.

➤ **HEEP programa erabiltzen duten ikasleen jaiotza-urtea.**

Dagoeneko egiaztatu da jaiotza-urteak emaitzetan eragin handia duela; beraz, ikasle talde honetan egoera hori aztertzen da. Hurrengo taulak ehunekoak jaiotza-urtearen arabera erakusten ditu; ehuneko horiek adierazten dute adinaren arabera dagokien ikasmailan dauden edo urtebeteko edo bi urteko atzerapena daramaten, bai ikasmaila errepikatu dutelako, bai eskolatzeko berantiarra izan dutelako.

HEEP programa erabiltzen duten ikasleen jaiotza-urtea

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 1996 (egokitasuna)	350	26,30
Jaiotza-urtea: 1995	680	51,09
Jaiotza-urtea: 1994	298	22,39

(*) Taula honetan ez daude 3 ikasle, jaiotza-data ez da agertzen eta.

Ikusten den moduan, ikasleen % 26 soilik eskolatzeko da adinaren arabera dagokion ikasmailan. Ikasle horien erdiak baino gehiagok maila errepikatu dute, eta gainera % 22k bi urteko atzerapena daramate beren adinari dagokionez.

➤ **HEEP programa erabiltzen ari diren ikasleak eta lortutako emaitzak**


Hurrengo taulak eta grafikoak ebaluatutako konpetentzia bakoitzean Hezkuntza Espezifikoko Eskuhartze Programaren (HEEP) bidez eskolatutako ikasleek lortutako emaitzak erakusten ditu. Dagoeneko adierazi den moduan, HEEPekin eskolatutako 1.331 ikasle daude eta horien artean 1.209k gutxienez probaren batean parte hartu dute Ebaluazio Diagnostikoa 2010ean; horien puntuazioa konpetentzia bakoitzeko batez besteko orokorrean txertatu da. Ondorioz, talde horrek lortutako puntuazioei dagokien azterketa konpetentzien batez besteko puntuazioan sartutako ikasle horien (1.209 ikasle) gainean soilik egin da.

Ebaluatutako gaitasunetan HEEP duten ikastetxeetan eskolatutako ikasleen emaitzak

	Konpetentzia bakoitzeko puntuazioan sartutako ikasle kopurua	Batez bestekoa	AT
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	988	209	1,4
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	1.135	217	1,1
Matematikarako konpetentzia	1.146	204	1,2
Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia	1.161	211	1,3

Ebaluatutako konpetentzia guztietan lortzen diren puntuazioak batez besteko orokorra baino askoz ere baxuagoak direla egiaztatzen da. Konpetentzia bakoitzaren batez bestekoarekiko 35 eta 50 puntu arteko aldea dago: 49 puntu *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; 35 puntu *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*; 46 puntu *Matematikarako konpetentzian* eta 39 *Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzian*.

122. grafikoa: ED10-DBHko.2. maila. HEEPn eskolatutako ikasleen emaitzak eta Euskadiko batez bestekoa ebaluatutako kompetentzietan.



Hala eta guztiz ere, emaitza horiek ED09 aurreko ebaluaziokoekin alderatuz gero, aldeak zertxobait murriztu egin dira; izan ere, aldeak 43 eta 50 puntu artekoak izaten ziren ebaluatutako kompetentzietan.

Emaitzak horiek diren arren, programa horiek gazteen artean dagoen eskola-absentismoa saihestera begira betetzen dituzten funtzioak aintzat hartu behar dira; izan ere, programa horiek gabe eskola-sistematik kanpo egon litezke eta beren prestakuntza alde batera utz dezakete. Programa mota horien garrantzia ISEI-IVEIn DBHko bigarren zikloan eskola-porrotaren gainean egindako azterketaren ondorioetan ere bildu zen¹⁵.

4.9. HEZKUNTZA PREMIA BEREZIAK DITUZTEN IKASLEEN DESKRIBAPEN AZTERKETA.

DBHko 2. mailan, ebaluazio honetan, sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen guztizko kopurua 188 ikaslekoa (% 1) izan da. Horien artetik, % 61 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta eta % 39 itundutako sarean. Mutilen ehunekoa (% 60) neskena baino nabarmen altuagoa da (% 39).

Ebaluazio Diagnostikoa bi hezkuntza mailetan eskolatutako ikasle guztiek parte hartzen duten zentsu-izaerako proba gisa hartzen da; Lehen Hezkuntzako 4. maila eta DBHko 2. maila hartzen dira oinarri. Azken hamarkadetan garatutako hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleen hezkuntza-sisteman txertatzeko planak direla eta, ohiko ingurunean oso hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleak eskolatu dira. 2009ko Ebaluazio Diagnostikoan zehar, ahalik eta ikasle gehienek baldintzarik onenetan parte har zezaten ahalegina egin zen. Hori dela eta, 2010eko Ebaluazio Diagnostikoan, planeamendu berberarekin jarraitu da, ikasleen datuak sartzeko irizpideak eta parte hartzeko baldintzak hobetzeko ahaleginean.

¹⁵ Eskola-porrota. DBHko Bigarren Zikloa. (2007ko apirila). Irakas-sistema Ikertu eta Ebaluatzeko Euskal Erakundea. (ISEI-IVEI). www.isei-ivei.net

Aztertu dugun moduko ebaluazio estandarizatuaren ezaugarriekin ezin da ikaskuntza curriculumaren egokitzapen adierazgarrien (CEI) bidez egiten duen ikasle bakoitzarentzat proba desberdina egin. Hala eta guztiz ere, hezkuntzan egiten diren egokitzapen ugariak oinarri hartuta eta ahal den neurrian hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleek ebaluazioetan parte hartzeko aukera normalizatze aldera, parte hartzea posible den zenbait egoera hartu dira aintzat.

Hezkuntza-behar desberdinetatik abiatuta, horien sailkapena egin da, betiere, ebaluazio diagnostikoan curriculumera iristeko behar direnen antzeko baldintzetan parte hartzea errazteko baldintzen eta baliabideen arabera.

Egoera hauek definitu dira:

1. Curriculumerako sarbide-beharrak dituzten ikasleak.

Ikasle hauek (ikusmen-, entzumen- eta motore-urritasunak izan ditzakete) Lehen Hezkuntzako 4. mailarako eta DBHko 2. mailarako tipifikatutako proba berberak egin ditzakete, baina ebaluazio horietarako sarbidea izateko dagozkien egokitzapenekin.

- *Ikusmen-urritasuna duten ikasleak*; ikusmen mailaren arabera (ikusmen urria edo itsutasuna), hauek behar izan ditzake:
 - Ebaluazio-koadernotxoak braillera itzultzea.
 - Hizkiaren tamaina handitzea.
- *Entzumen-urritasuna duten ikasleak*; erabilitako komunikazio-sistemaren arabera, hauek behar izan ditzake:
 - Zeinu hizkuntzako interpretea.
 - Maiztasun modulatu.
- *Mugimendu-urritasuna duten ikasleak*; kaltetutako mugimendu-funtzioen arabera, hauek behar izan ditzakete:
 - Probei erantzuna emateko ordenagailua edo beste baliabide tekniko bat euskarri moduan.

Proban parte hartu duen eta horrelako beharrak dituzten ikasleak ez dira taldearen batez besteko puntuazioan sartu; izan ere, egindako egokitzapenek parte-hartzea erraztu badute ere, ez da ziurtatzen baldintzak gainerakoekin alderagarriak direnik eta ez du emaitzen alderaketa ahalbidetzen.

2. Arloko Curriculum Egokitzapen Indibidualizatu (CEI) garrantzitsuak dituzten ikasleak.

Ikasle hauek bere mailari dagokion proba gainerako ikasgelaren baldintza berberetan egin ahal izan dute. Parte hartzeko erabakia ikastetxearena izan da; hala eta guztiz ere, CEI bat duten alorrekin lotutako kompetentzietako puntuazioa ez da kontuan hartu taldearen batez beste puntuaziorako.

3. Ikasgela arruntean eskolatutako CEI orokor garrantzitsuak dituzten ikasleak.

Curriculum CEI orokor batekin garatzen duten ikasleak, hau da, alor guztiak hezkuntza-behar bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta baldin badaude, ez du ebaluazioa egin, ikastetxeak kontrakoa erabaki ez badu behintzat. Proba estandarizatu ez da talde honen ikaskuntzak ebaluatzeko ondo egokitu ahal izateko testuingurutzat hartzen. Iritzi berbera izan da CEI orokor garrantzitsua duten eta ikasgela egonkor batean eskolatuta dagoen ikasleen kasuan ere.

Laburbilduz, adierazitako taldeetako ikasle guztiek ikastetxeko irakasleek hartutako erabakiaren arabera egin ahal izan dituzte probak; ikastetxeko irakasleek ezagutzen dute bakoitza, eta taldeko eta ikastetxeko puntuazio orokorretik kanpo gelditu dira CEI duten alorrean lortutako emaitzak edo sarbideko CEIren emaitzak.

Gaitu diren baliabideak.

Hauek izan dira alorreko edo sarbideko CEIren bat duten ikasleek parte hartzeko edo antolatzeko erabilitako giza baliabideak edo antolaketa-baliabideak:

- Itsuen Baliabidetegia (IBT).
- Gorreria duten ikasleen lurralde mailako aholkularitzak.
- Ikaslea eskolatuta dagoen ikastetxeetako giza baliabideak edota baliabide materialak: osagarriak, aholkulariak, Pedagogia Terapeutikoko Irakasleak, Maiztasun Modulatuak, zeinu-hizkuntzako irakasleak...

Ondorioz, deskribapena hezkuntza-behar bereziak dituzten ikasleena da eta beren curriculum sarrbideko edo alorreko -curriculum alor batean edo gehiagotan- Curriculum Egokitzapen Indibidualizatuan (CEI) biltzen da; gainera, beharrezko baliabideekin, ikastetxeak erabaki du ebaluazioan zein ikaslek parte hartuko duten. Datu hauetan curriculum CEI orokorrarekin garatzen duen ikaslerik; hau da, alor guztiak hezkuntza-behar bereziak dituen ikaslearen mailara egokituta dauden kasuak.

Populazio honen deskribapenean (lehen adierazitako CEI motaren batekin ikasketak egiten dituen ikaslea) 2010eko ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten DBHko 2. mailako ikasleei dagozkien datuak ageri dira.

➤ Sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleak.

DBHko 2. mailan, sarbideko edo alorreko CEIrekin eskolatutako ikasleak 188 izan dira orotara; horiek maila honetako ikasleen guztizkoaren % 1 inguru dira. Horien artean, % 61 (115 ikasle) sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta, eta % 39 (73), itundutako sareko ikastetxeetan. Horien artean, 133k ebaluazioko probaren batean parte hartu dute, nahiz eta puntuazioa ez den CEI eginda zuten konpetentzietako batez besteko orokorrean sartu.

➤ CEI duten ikasleen ereduaren eta geruzen arabera banaketa

Hainbat geruzatan sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen banaketa ageri da taula honetan:

Sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen eskolatuak geruzen arabera. DBHko. 2. maila

A publikoa		B publikoa		D publikoa		Itundutako A		Itundutako B		Itundutako D	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
34	18,1	21	11,2	60	31,9	30	16	28	14,9	15	7,9
Ikastetxe publikoetan guztira: 115 (% 61,						Itundutako ikastetxeak guztira: 73 (% 38,82					
Ikasleak CEIrekin, guztira: 188											

Geruza bakoitzeko DBHko 2. mailako ikasleen guztizko biztanleriari dagokionez, CEI duten ikasleak honela banatzen dira:

Ebaluazioan parte hartu duten geruza bakoitzeko sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen ehunekoa.

	Ikasleak, guztira, geruzen arabera	Sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleak	Geruza bakoitzean CEI duten ikasleen ehunekoa
	Kopurua	Kopurua	%
A publikoa	1.004	34	% 3,38
B publikoa	1.056	21	% 1,98
D publikoa	6.273	60	% 0,95
Itunpeko A	1.900	30	% 1,57
Itunpeko B	4.154	28	% 0,67
Itunpeko D	3.634	15	% 0,41
Guztira	18.021	188	% 1,04

Datuetatik ondorioztatzen den moduan, ebaluazioan parte hartu duten sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen kopuru altuena A geruza publikoan dago eskolatuta, eta zerranda horretan B publikoa dator ondoren. CEI duten ikasle ehuneko txikieneko geruzak itunpeko D eta B dira.

➤ **Sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen sexua eta jaiotza-urtea.**

2010eko Ebaluazio diagnostikoan parte hartu duten sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen artean, mutilen ehunekoa neskena baino altuagoa dela ondorioztatzen da. % 21eko aldea dago.

CEI duten ikasleen sexua. DBHko 2. maila

Mutilak		Neskak	
Kopurua	%	Kopurua	%
114	60,6	74	39,4

Ikasleen jaiotza-urtearen azterketaren bidez, ondorio hauek atera daitezke: ikaslea bere adinarekiko egokitasun-egoeran dagoen, ikasmilaren bat errepikatu duen, edo kasuren batean eskolatzeko berantiarra gertatu den. CEI duten ikasleen jaiotza-adinari buruzko datuak hurrengo taulan ageri dira:

CEI duten ikasleen jaiotza-urtea. DBHko 2. maila

	Kopurua	%
Jaiotza-urtea: 1996 (egokitasuna)	23	12,2
Jaiotza-urtea: 1995	101	53,7
Jaiotza-urtea: 1994	56	33,5

(*) Taula honetan ez daude 8 ikasle, jaiotza-data ez da agertzen eta.

CEI duten ikasleen % 12 adinaren arabera dagokion ikasmilan ari dira ikasketak egiten. % 86k ikasmila akademiko bateko edo biko atzerapena du bere ibilbidean zehar.

➤ **Proba egin zuen eta kompetentzien arabera batez besteko orokorrean sartutako CEI duten ikasleak**

Jarraian, ebaluatutako kompetentzia bakoitzean parte hartu zuen sarbideko edo alorreko CEI duten ikasleen kopurua eta ehunekoa ageri da.

Proba egin zuten eta kompetentzien arabera batez besteko orokorrean sartutako CEI duten ikasleak. DBHko 2. maila.

	Sartuta		Sartu gabe	
	Kopurua	%	Kopurua	%
Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	67	31,6	121	64,4
Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	49	26,1	139	73,9
Matematika-kompetentzia	69	36,7	119	63,3
Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia	127	67,6	61	32,4

DBHko 2. mailako ikasleei dagozkien datuek hau adierazten dute:

- Ikasleen kopuru handi bat (% 65 eta % 74 artean) ez dago hizkuntza-kompetentzien puntuazioetan sartuta, seguruenik Hizkuntza-alorrak direlako (euskara, gaztelania edo biak) dagokion CEIn bildutako egokitzapenaren helburuak.
- Ikasleen % 63 ez dago *Matematikarako kompetentzian* sartuta.
- *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* hartu dute parte ikasle gehienek, hau da, % 67k; agian, alor espezifiko batekin lotzea zailagoa delako.

Hurrengo taulan, 2010eko Ebaluazio diagnostikoan CEI duten ikasleak batez besteko orokorrean zer kompetentzia kopurutan sartuta dauden erakusten da.

CEI duten ikasleak puntuazioan zer kompetentzia kopurutan sartuta dauden. DBHko 2. maila

Sartu gabe		1ean sartuta		2tan sartuta		3tan sartuta		4etan sartuta	
Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
55	29,26	24	12,77	43	22,87	62	32,98	4	2,13

% 13 inguru kompetentzia baten puntuazioan soilik dago sartuta. Ikasleen % 58 inguru 2 kompetentzia edo gehiagoren puntuazioan dago sartuta.

5. IKASTETXEEN AZTERKETA EMAITZEN ETA ERAGINKORTASUNAREN ARABERA

Txosten exekutiboan¹⁶ eta txosten honetako 3. atalean (85. orr.), ebaluatutako ikastetxe bakoitzaren kokapenari egiten zaio erreferentzia; horretarako, batetik, ikastetxeen maila sozioekonomiko eta kulturala hartzen da aintzat, eta bestetik, *Matematikarako konpetentzian* lortutako puntuazioa. Ikusi ahal izan den moduan, ISEKez gain, batez ere ikastetxeen ekintzarekin lotutako beste faktore batzuek ere eragin argia dute emaitzetan; horien artean, ikastetxearen hezkuntza-ekintzatik eratorritako “*balio erantsia*” deitutakoak.

Atal honen helburua hezkuntza-zentroek ikasleei ingurunearen eta familia-ezaugarrien arabera espero litezkeen aurreikuspenen gaintik garatzeko aukerak eskaintzea da.

Helburu horretarako, egoera hauek aztertu dira:

- a. **Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeak**, zuzeneko puntuazioak kontuan hartuz, egoera sozioekonomikoa edozein izanda ere. Azterketa honen helburua honetan oinarritzen da: ikastetxe baten egoera edozein izanda ere, emaitza altuak lortzea oso zeregin konplexua da; izan ere, bertan, irakaskuntza-zeregina lantzeko moduarekin lot daitezkeen hainbat aldagaik hartzen dute parte. Bestalde, emaitza baxuak izateak jakinarazten digu ikastetxe horietan esku hartu behar dela ikasleen emaitzak hobetuko dituen erabakiak hartu ahal izateko.
- b. **Ikastetxe eraginkorrak edo hain eraginkorrak ez direnak**; hau da, ikastetxe guztiek maila sozioekonomiko eta kultural berbera izango balute, esperotako emaitzekin alderatuta alderik handienak (positiboak eta negatiboak) dituzten ikastetxeak.

Bi egoeretan *Matematikarako konpetentziako* puntuazioak hartu dira; izan ere, egiaztatu ahal izan den moduan, gainerako emaitzekin korrelazio maila handiena duen konpetentzietako bat da; gainera, ez da hizkuntza-konpetentzia, eta hori dela eta, hizkuntza-ereduak edo etxeko hizkuntzak ez dute hainbesteko zerikusirik.

Hain zuzen ere, mota bakoitzeko ikastetxeen aukeraketa egin ostean, egiaztatu ahal izan da horien jokaera ebaluatutako gainerako konpetentzien antzekoa dela, nahiz eta ez izan beti altuenak edo baxuenak.

Oraingo honetan egin den azterketaren helburua egungo egoera aztertzea eta ED09ko ebaluazioan lortutako emaitzekin alderatzea da. Zenbait ikastetxek jatorrian dituzten gabezia handiak edo txikiak konpentsatzea lortzen duten kausa posibleak zehazteko asmoz (beste batzuek ez dute lortzen), kasuak aztertzeko ikerketak egin beharra dago; hori epe laburrerako aurreikusita dago, ebaluazio diagnostikoen ziklo zabalagoa egiten denerako eta datu kopuru zabalagoa dugunerako, hain zuzen.

5.1. EMAITZA ALTUENAK ETA BAXUENAK DITUZTEN IKASTETXEAK

Azterketa hau egiteko, emaitza altuenak lortu dituzten 30 ikastetxe eta emaitza baxuenak lortu dituzten beste 30 ikastetxe aukeratu dira. Hurrengo taulan ikus daitezkeen moduan, emaitza baxuen taldean sartutako ikastetxeek 182 eta 215 puntu arteko batez besteko puntuazioa lortu dute *Matematika-konpetentzian*. Emaitza altuak dituzten ikastetxeek 277 puntu lortu dituzte gutxienez eta 299ra arte iritsi dira (hori da batez besteko puntuaziorik altuena).

¹⁶ ISEI-IVEI. Ebaluazio diagnostikoa 2010. Txosten exekutiboa DBHko 2. maila. (2010eko abendua) www.isei-ivei.net

DBHko 2. mailako ikastetxeen sailkapena *Matematikara kompetentziako* puntuazioen arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kopurua	Kopuruaren %	Gutxieneko punt.	Gehieneko punt.	Batez bestekoa
Batez bestekoaren inguruan	273	82,0	215	275	247
Baxuak	30	9,0	182	215	202
Altuak	30	9,0	277	299	284
Guztira	333	100	182	299	246


Hurrengo taulak erakusten du *Matematikarako kompetentzian* emaitza onak dituzten ikastetxe hauek ebaluatutako gainerako kompetentzietan ere emaitza onak dituztela (nahiz eta beti bikaintasun maila berbera ez lortu). Era berean, kompetentzia horretan emaitza baxuak lortu dituztenek gainerakoan ere emaitza baxuak eskuratu dituzte.

DBHko 2. mailako ikastetxeen batez besteko emaitzak ebaluatutako kompetentzia guztietan

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako kompetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia
Batez bestekoaren inguruan	257	250	247	248
Baxuak	205	222	202	223
Altuak	269	270	284	276

Ikastetxeen ISEKen araberrako banaketa eta emaitzak hurrengo grafikoan ageri dira:

123. grafikoa: ED10-DBHko 2. maila. Emaitzak *Matematikarako kompetentzian* eta ISEK




Grafikoaren eremu urdinean ageri dira puntuaziorik altuenak lortu dituzten 30 ikastetxeak, eta arrosa koloreko eremuan, puntuaziorik baxuenak lortu dituzten 30 ikastetxeak. Behaketa horretatik, ondorengo hau ondorioztatzen da:

- ✓ Bi talde horietako bakoitzaren baitan, emaitza horien banaketa oso desberdina da ikastetxe bakoitzaren batez besteko ISEK maila kontuan hartzen bada; hori dela eta, emaitza altuak dituzten ia ikastetxe guztiek batez bestekoa baino ISEK altuagoa dute (-0,13, lerro bertikal beltzez adierazita). Egoera hori bera antzematen da emaitza baxuenak lortu dituzten ikastetxeen taldean ere, baina alderantziz: oro har, emaitza baxuenak lortu dituzten ikastetxeek batez bestekoa baino ISEK maila baxuagoa dute.
- ✓ Hala eta guztiz ere, bada erdiko ISEK maila izanik emaitzarik altuenak dituzten 30en artean dagoen ikastetxerik ere; beste batzuk berriz, erdiko ISEK maila izanik, emaitzarik baxuenak lortu dituztenen artean daude.
- ✓ Beraz, ondoriozta daiteke ISEK mailak eragin argia duen arren, emaitzetan beti ez dela aldagaririk garrantzitsuena izaten.

Egoera hori hobeto ikusteko, muturreko puntuazioak lortu dituzten ikastetxeak soilik aukeratu dira, puntuaziorik altuenak dituzten eta baxuenak dituzten 30ak, eta horien kokapena hurrengo grafikoan ageri da.

124. grafikoak: ED10-DBHko 2. maila. Matematikarako kompetentzia eta ISEK (Emaitzarik altuenak eta apalenak dituzten ikastetxeak)



Emaitza altuak eta baxuak dituzten ikastetxeen arteko azterketatik honako hau ondoriozta daiteke:

- ✓ Emaitza altuenak eta baxuenak dituzten ikastetxeen taldean ISEK maila antzekoak dituzten ikastetxeak dauden arren, bi taldeetan ISEKeko batez bestekoak desberdinak dira. Hau da, baldintza sozioekonomiko eta kulturelek eragin argia dutela ondorioztatzen da.
- ✓ Datuen arabera, ISEKek eragina duen arren, ez da erabakigarria eta ikastetxeek ikasleen emaitzetan eragiten duten laneko marjina zabala dute. Hurrengo puntuan azaltzen den moduan, antzeko ISEK maila duten ikastetxeek alde handiak lortzen dituzte puntuazioetan.

5.2. ERAGINKORRAK DIREN ETA HAIN ERAGINKORRAK EZ DIREN IKASTETXEAK

Bigarren Hezkuntzako 2. mailako ikastetxeetako emaitzak eraginkortasunaren ikuspegitik ere azter daitezke.

F.J Murillo¹⁷ irakaslearen arabera, gaur egun, hau hartu behar da oinarri: *"ikastetxea eraginkorra da baldin eta ikasle guztien garapen integrala lortzen badu, eta garapen hori ikasleen aurreko errendimendua eta familien egoera soziala, ekonomikoa eta kulturala kontuan izanik espero datekeena baino handiagoa bada"*. Definizio horrek hiru ezaugarri biltzen ditu: **balio erantsia**, ikastetxeak ikasleari zer eskaintzen dion jakitea izango litzateke; **ekitatea**, oinarritzko elementu gisa eraginkortasun-kontzeptuan, eta ikasleen **garapen integrala**. Azterketa honetan, ezaugarrietako bat soilik aztertuko da, hau da, ikastetxeak ikasleari egiten dion ekarpena.

Horretarako, oraingo honetan, lortutako emaitzen eta ikastetxeko ISEKen arabera esperotakoen artean alde positibo handieneko 30 ikastetxeak aukeratu dira, baita *Matematikarako konpetentzian* alde negatibo handieneko 30 ikastetxeak ere. Positiboenei *"ekarpen handiena egiten duten ikastetxeak"* deituko diegu, eta alde negatibo handiena dutenei *"ekarpen txikiena egiten duten ikastetxeak"*.

DBHko 2. mailako ikastetxeen batez besteko puntuazioa eraginkortasun mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Ikastetxe kop.	Kopuruaren %	Gutxieneko puntuazioa	Gehieneko puntuazioa	Batez bestekoa
Ikastetxeen batez bestekoa	273	82,0	182	297	247
Ekarpen txikiena egiten dutenak	30	9,0	183	251	217
Ekarpen handiena egiten dutenak	30	9,0	232	299	271
Guztira	333	100	182	299	246

Ekarpen txikiena egiten dutenen taldean sartutako ikastetxeen artean, oso batez besteko desberdinak dituzten ikastetxeak daude, oso puntuazio baxuetatik hasi (183 puntu) eta *Matematikarako konpetentziako* batez bestekoaren inguruko puntuazioak dituzten ikastetxeetara arte. Antzeko zerbait gertatzen da ekarpen handiena egiten duten ikastetxeekin ere: horien emaitzak 232ko puntuaziotik hasi (konpetentziako batez bestekoa baino baxuagoa) eta 299 puntura artekoak izan ohi dira.

Aurreko azterketan bezala, egiaztatu da ikastetxe horiek antzeko jokaera dutela beste konpetentzietan ere: Konpetentzia batean emaitza onak dituzten ikastetxeek gainerakoetan ere joera hori izaten dute (nahiz eta beti bikaintasun-egoera berbera ez izan) eta *Matematika-konpetentzian* emaitza baxuak lortzen dituztenek ebaluatutako gainerako konpetentzietan ere joera hori izaten dute.


DBHko 2. mailako ikastetxeen emaitzak, konpetentzia guztietako eraginkortasun mailaren arabera

Ikastetxeko emaitzak	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa	Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa	Matematikarako konpetentzia	Gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia:
Ikastetxeen batez bestekoa	246	248	247	247
Ekarpen txikiena egiten dutenak	210	228	213	228
Ekarpen handiena egiten dutenak	264	252	272	262

Hurrengo grafikoan, ikastetxeetako emaitzak beren ISEKen arabera banatzen dira:

¹⁷ Ikus www.ice.deusto/rinace/reice/vol1n1/Murillo

125. grafikoa: ED10-DBHko 2. Maila. Emaitzak *Matematikarako kompetentzia* eta ISEK. ISEKen arabera esperotakoarekin alderatuta distantzia handiena duten ikastetxeak (+ eta -)




Grafikoan, berde kolorez ageri dira beren ISEK edozein izanda ere ikasleei ekarpen handiena egiten dien 30 ikastetxeak, eta urdinez, ekarpen txikiena egiten dietenak. Grafikoaren azterketatik hau ondorioztatzen da:

- ✓ Emaitzak horien banaketa ISEK maila guztietan zehar hedatzen da. Hau da, zenbait ikastetxek, ISEK maila altuarekin eta ISEK maila baxuarekin, ekarpen positiboa egiten dute, hau da, ikasleek esperotakoa baino errendimendu maila handiagoa lortzen dute.
- ✓ Ekarpenerik handiena egiten duten ikastetxeak ISEKeko ardatzaren erdialdean daude, eta ez, espero behariko gure moduan, ISEKeko maila altuak dituzten eremuan. Agian, ISEKeko maila altuan dauden ikastetxeen kasuan espero den puntuazioa oso altua delako nahiko zaila izaten da hori gainditzea.


Aipatutako egoera argiago ikusteko, hurrengo grafikoa, bi muturretan dauden ikastetxeak soilik erakusten dira.

126. grafikoa: ED10-DBHko 2.maila. Emaitzak *Matematikarako kompetentzian* eta ISEK. ISEKen arabera esperotakoarekin alderatuta distantzia handiena duten ikastetxeak (+ eta -)



Hurrengo grafikoa, ebaluazioan parte hartzen duten ikastetxe guztien banaketa ageri da, betiere, ISEKen arabera esperotako eta lortutako puntuazioaren arteko puntu-desberdintasunen arabera. Ikastetxe gehienek (lauki urdinean sartuta) esperotako puntuazioa lortu dute. Ezkerreko zutabeetan esperotakoa baino puntuazio baxuagoa lortu duten ikastetxeak ageri dira; eskuineko zutabeetan, berriz, esperotakoa baino puntuazio hobea lortu duten zentroak ageri dira.

127. grafikoa: ED10-DBHko 2. Maila. Ikastetxeen banaketa *Matematikarako kompetentzian* lortutako eta esperotako emaitzen arabera



5.3. EMAITZEN EGONKORTASUNA. ED09 ETA ED10 EBALUAZIOETAKO EMAITZEN ALDERAKETA.

Konpetentzia bakoitzeko emaitzen azterketan dagoeneko ikusi dugu egindako bi ebaluazio diagnostikoen bidez emaitzen bilakaera alderatu ahal izan dugula zenbait ikuspegitatik (sexua, ikaslearen adina eta abar). Gainera, emaitzetan egonkortasun handia dagoela egiaztatu ahal izan da. Hurrengo datuek erakusten dute ikastetxeek egonkortasun maila handia dutela.

ED09 eta ED10 ebaluazioetan *Matematikarako konpetentzian* esperotako puntuazioaren eta zuzeneko puntuazioaren arteko korrelazioa¹⁸

Korrelazioak	Zuzeneko puntuazioa Matematikarako konpetentzian ED2010	Esperotako puntuazioa Matematikarako konpetentzian ED2010
Zuzeneko puntuazioa Matematikarako konpetentzian ED2009	0,743	
Esperotako puntuazioa Matematikarako konpetentzian ED2009		0,859

Ikus daitekeen moduan, bi kasuetan korrelazioa oso positiboa eta oso altua da; hori dela eta, esan genezake zuzeneko emaitzak eta esperotakoak oso egonkor mantendu direla bi ebaluazioetan.

Egonkortasun handia edo txikia izan den zehazteko faktore hau hartzen da kontuan: egin diren bi ebaluazioetan konpetentzia bakoitzean batez besteko emaitzak mantendu dituen ikastetxe kopurua, batez besteko puntuazioak jaitsi dituen ikastetxe kopurua edo ikasleen errendimendua hobetzea lortu duen ikastetxe kopurua. Datu horiek hurrengo taulan ageri dira.

Ikastetxeen batez besteko puntuazioa konpetentzien ebaluazioan. ED09 eta ED10

Ikastetxeetako puntuazioa	Euskarazko hizkuntza-komunikazioa		Gaztelaniazko hizkuntza-komunikazioa		Matematikarako konpetentzia	
	Ikastetxe kop.	%	Ikastetxe kop.	%	Ikastetxe kop.	%
Jaitsiera nabarmena	15	4,5	18	5,5	29	8,8
Aldaketarik gabe	244	73,9	275	83,3	268	81,2
Igoera nabarmena	71	21,5	37	11,2	33	10,0

DBHko 2. mailan ebaluatutako ikastetxeen % 80k baino gehiagok *Matematikarako konpetentzian* eta *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian* lortutako puntuazioak aldaketa adierazgarririk gabe mantentzen dituzte joan den ebaluazioarekin alderatuta. *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentziaren* kasuan, ia ikastetxeen hiru laurdenek puntuazio berbera mantentzen dute.

Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian, ikastetxeen % 21,5ek nabarmen hobetu du puntuazioa; aldiz, % 4,5 inguruk jaitsiera nabarmena izan du; *Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako konpetentzian*, ikastetxeen % 11,2ek puntuazioan gorakada izan du eta % 5,5k jaitsiera nabarmena izan du. Azkenik, *Matematikarako konpetentzian*, batez besteko puntuazioan igoera edo jaitsiera nabarmena izan duten ikastetxeen ehuneko antzekoa da: % 10k gora egin du puntuazioan eta % 8,8k behera egin du.

Matematikarako konpetentzian zuzeneko emaitza baxuenak eta altuenak lortu zituzten 30 ikastetxeei erreparaturaz, emaitzetan egonkortasun handia dagoela nabari da. Aztertutako talde bakoitzean bi ebaluazioetan bat etorritako ikastetxeak adierazten ditu hurrengo taulak.

¹⁸ Pearson korrelazioa

**Ikastetxe kopurua Matematika-kompetenziako emaitzen eta eraginkortasunaren arabera
ED09 eta ED10 ebaluazioetan.**

Ikastetxe kopurua	ED 2009	ED 2010	Bat datoz ED 2009an eta ED 2010ean
Emaitza altuagoekin	30	30	15
Emaitza baxuagoekin	30	30	19
Ikastetxe eraginkorrenak Lortutakoaren eta esperotakoaren artean alde positibo handiena	30	30	10
Eraginkortasun baxuena duten ikastetxeak Lortutakoaren eta esperotakoaren artean alde negatibo handiena	30	30	12

Ikus daitekeen moduan, emaitza onenak eta okerrenak dituzten 30 ikastetxeko taldearen artean, ikastetxeen erdiak behintzat bat etorri dira egindako bi ebaluazioetan. Eraginkortasun maila handiena eta txikiena duten 30 ikastetxeen artean, herenak behintzat bat etorri dira bi ebaluazioetan.

EMAITZAK IKASTETXEETAKO EMAITZEN AZTERKETATIK ABIATUTA

– **ISEKen eragina.**

ISEK aldagaiak emaitzetan eragin nabarmena duela eta modu batean edo bestean ikasleen errendimenduan eragiten duela frogatu da. Ondorio horrek 2009ko ebaluazio diagnostikoan gai horri gurz egindako azterketa berresten du.

– **Balio erantsiari dagokionez ikastetxeak egiten duen ekarpenaren garrantzia.**

Ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean (eraginkorrek direnak eta hain eraginkorrek ez direnak), hainbat ikastetxe ISEKeko maila guztietan daude kokatuta, eraginkorrenetakoren batek ebaluazioko ikastetxe guztien batez besteko ISEK baino ISEK maila baxuagoa du. Horrek esan nahi du ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-faktoreek (metodologiak, antolaketak, eskolako giroak...) modu eraginkorrean eragiten dutela emaitzetan, ISEK edozein izanda ere.

– **Emaitzen egonkortasuna..**

Nabarmendu beharrekoa da 2009ko eta 2010eko Ebaluazio Diagnostikoaren arteko alderaketak eskaintzen dituen emaitzen egonkortasun maila altua; hauen bidez antzeman daiteke:

- Bi ebaluazioetan zuzeneko emaitzen eta esperotakoen arteko korrelazio altua eta positiboa.
- Ebaluazio diagnostikoak garatu diren bi ikasmailetan ebaluatutako hiru kompetenzien emaitzak nabarmen aldatu ez dituzten ikastetxeen ehuneko altua.
- Gainera, *Matematikarako kompetentzia*n puntuazio onak edo txarrak lortu dituzten ikastetxeek ebaluatutako gainerako kompetentzietan ere hala lortu dituzte; horrek koherentzia berresten du.

6. 2010eko EBALUAZIO DIAGNOSTIKOAREN ONDORIO OROKORRAK

➤ Ebaluatutako kompetentzietako errendimenduari dagokionez:

- ✓ DBHko 2. mailako ikasleek 2010eko Ebaluazio diagnostikoan *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian* lortutako emaitzak 2009. urteko Ebaluazio diagnostikoan lortutakoak baino nabarmen altuagoak dira.
- ✓ *Matematikarako kompetentzian* ez da aldaketa adierazgarririk gertatzen aurreko edizioarekin alderatuta. 2009. urteko ebaluazioarekin alderatuta, hasierako mailan eta maila aurreratuan ikasleen ehunekoak gora egin du.
- ✓ *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*, itundutako hiru geruzek 250 puntuko ezarritako batez bestekoa gainditzen dute. Geruza hauetan, maila aurreratuan dagoen ikasleen ehunekoa % 33 eta % 47 artekoa da.

➤ Aldagai jakin batzuek ikasleen errendimenduan duten eraginari dagokionez.

- ✓ *Matematika-kompetentzian, Gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzian eta Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian* lortutako emaitzetan indize sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) efektua bertan behera gelditzen denean, itundutako sareko geruzek emaitzak berdindu egiten dituzte; geruza publikoek beren artean eta itundutako geruzekin alde adierazgarriak mantentzen dituzte.
- ✓ *Euskarazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentziako* emaitza hizkuntza-eredu batek zehazten du. Kompetentzia honetan D ereduaren soilik dago batez bestekoaren gainetik. Hiru ereduaren artean, emaitzetan alde adierazgarria dago. Egoera hori bera antzeman zen 2009ko Ebaluazio diagnostikoan.
- ✓ Ebaluatutako bi *Hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan* eta *Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian*, nesken errendimendua mutilena baino handiagoa da; aldiz, *Matematika-kompetentzian*, mutilek lortutako puntuazioa neskena baino nabarmen altuagoa da.
- ✓ DBHko 2. mailako ikasleen % 89 adinaren arabera dagokion mailan dago, eta adinaren arabera urtebeteko edo bi urteko atzerapena daraman ikasleak baino errendimendu nabarmen handiagoa lortu du ebaluatutako kompetentzia guztietan. Egoera hori bera gertatu zen 2009ko ebaluazio diagnostikoan ere.
- ✓ Aitaren eta amaren ikasketa maila zenbat eta altuagoa izan, ebaluatutako kompetentzia guztietan seme-alaben emaitzak orduan eta hobeak izango dira. Gurasoek oinarritzko ikasketak eta unibertsitateko ikasketak dituzten ikasleen artean, zenbait kompetentzietan, 40 eta 50 puntu arteko aldea dago.
- ✓ Familia-nukleoan bizi diren ikasleek (% 85 inguru) batez bestekoak baino emaitza hobeak lortzen dituzte kompetentzia guztietan. Horien emaitzak guraso bakarreko familian edo beste egoera batzuetan bizi direnenak baino altuagoak dira; hori bera gertatu zen 2009ko ebaluazio diagnostikoan ere.
- ✓ Eskolatzera 3 urte baino lehen hasi zuten ikasleek (% 68,8) puntuazio altuagoak lortu dituzte kompetentzia guztietan.

- ✓ Ikasleak ikasgelan Matematikan ikasgaien lortzen dituen kalifikazioen eta *Matematikarako kompetentziako* ebaluazioko errendimenduaren artean lotura positiboa dago. Ikasgelako kalifikazioa zenbat eta altuagoa izan, ebaluazioan ere orduan eta puntuazio altuagoa lortuko da. Matematikan oso ongi eta bikain kalifikazioak lortu zituztenek soilik (ikasleen % 55 inguruk) lortu zuten kompetentzia honetako batez besteko puntuazioa gainditzea (250,3 puntu).
 - ✓ Ikaslea eskolatuta dagoen taldearen maila akademikoak ikasleak ikasgelan lortutako kalifikazioak baldintzatzen ditu; izan ere, irakasleek ikasgelan ikasleen artean egon ohi den sakabanaketa egokitzeko joera izan ohi dute eta beren ebaluazio-irizpideak taldeari egozten zaion erdiko mailara egokitzen dituzte. Egoera hori antzeman zen 2009ko ebaluazioan ere.
 - ✓ Jatorriz atzerritarrak diren ikasleek (% 78 inguru) batez bestekoak baino puntuazio baxuagoak lortu dituzte kompetentzia guztietan. Aurreko ebaluazioari dagokionez, *Euskarazko eta gaztelaniazko hizkuntza-komunikaziorako kompetentzietan*, ikasleen errendimendua hobetu egin da, eta Matematika-kompetentzian behera egin du.
 - ✓ DBHko 2. mailan eskolatutako ikasleen artean, 1.331 ikaslek Hezkuntza Espezifikoko Esku-hartze Programa (HEEP) bati jarraitzen diote. Taldeak ebaluatutako kompetentzia guztietan lortzen dituen puntuazioak kompetentzia bakoitzaren batez bestekoa baino nabarmen baxuagoak dira.
 - ✓ DBHko 2. mailan, 188 ikaslek (biztanleria guztiaren % 1) sarbideko edo alorreko CEI dute. Horien artean, % 61 sare publikoko ikastetxeetan dago eskolatuta, eta % 39, itundutako sarean. Mutilen ehunekoa (% 60) neskena baino nabarmen altuagoa da (% 39).
- Ikastetxeen emaitzen eta horien eraginkortasunaren inguruan.
- ✓ ISEKen eragina.
2009ko ebaluazio diagnostikoan agerian geratu zen moduan, ISEKen aldagaiak ikasleen errendimenduan eragiten du modu batean edo bestean.
 - ✓ Balio erantsiari dagokionez ikastetxeak egiten duen ekarpenaren garrantzia.
Ekarpen handiena eta txikiena egiten duten ikastetxeen artean (eraginkorrek direnak eta hain eraginkorrek ez direnak), hainbat ikastetxe ISEKeko maila guztietan daude kokatuta. Horrek esan nahi du ikastetxeak eskaintzen dituen hezkuntza-faktoreek modu eraginkorrean eragiten dutela emaitzetan, ISEK edozein izanda ere.
 - ✓ Emaitzen egonkortasuna.
2009ko eta 2010eko Ebaluazio Diagnostikoa alderatzean, nabarmendu beharrekoa da emaitzen egonkortasun maila altua; hauen bidez adierazten dira: zuzeneko emaitzen eta esperotakoen arteko korrelazio altua eta positiboa; ebaluatutako hiru kompetentzien emaitzetan aldaketa adierazgarririk izan ez duten ikastetxeen ehuneko altua, eta Matematika-kompetentzian eta ebaluatutako gainerako kompetentzietan lortutako puntuazioen arteko koherentzia.

7. ERANSKINA

Competencia social y ciudadana, ED2010

* ISEI-IVEIn Alfonso Caño Reyerok egindako eranskina.

ED2010en eremuan, gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia ebaluatu da oinarritzko konpetentzia “*mugigarr*” gisa¹⁹. Neurri handi batean berritzaile gisa kalifika genezake ebaluazioa. Hain zuzen ere, hizkuntza-eremuetan (edo, zehazkiago, irakurmenean eta antzeko arloetan), matematikan eta ezagutzen, gaitasunen eta jarrera zientifikoekiko ere hezkuntza-etapa ugarietan ikasleen konpetentzia ebaluatzeko garaian esperientzia dagoen bitartean, gizarte-zientzien ebaluazioaren eremuan gabezia antzeman daiteke. Izandako esperientziak esperientzia, guztiek curriculum-izaera izan dute eta ezagutzetan eta prozedura batzuetan oinarritutako ebaluazioak besterik ez dira izan. Eredugabezia hori, era berean, nazioarteko eremura ere heda daiteke: IEA elkarteak (Hezkuntza Errendimendua Ebaluatzeko Nazioarteko Elkarte) soilik landu du modu partzialean gai dugun konpetentziaren ebaluazioa, nazioarteko mailan egindako *Hezkuntza Zibikoaren Azterketa* zabala eginda.

Dena den, komeni da aipatzea gizarterako eta herritartasunerako konpetentziak (haren izendapen ugarietan) hasiera-hasieratik jaso duela adituen arreta; izan ere, oinarritzko konpetentzien ikaskuntza eta irakaskuntzari lehentasuna eman behar izateari buruzko teorizazioa egin dute. Horrekin lotuta, DeSeco txostena aipatu behar da *La definición y selección de competencias clave* (2003), Europako hezkuntza-esparrua egituratzeko erreferentzia gisa hartu beharreko zortzi oinarritzko konpetentziak definitzeko oinarri gisa hartu baitzen, Lisboako estrategiak proposatutako moduan. Ondorioz, gizarteratzea eta herritartasun aktiboa gailendu egiten dira 2001eko martxoan Europako Kontseiluak hartutako Europako trebakuntza- eta hezkuntza-sistemen hiru helburu estrategikoen artean (mundura Europako hezkuntza zabaltzea, haren kalitatea eta sarbidea biltzen ziren).

Gerora, 2004an, Europako Batzordeak erabaki zuen europar herritartasuna izango zela Europar Batasunaren lehentasuneko ekintzetako bat²⁰. Ildo horri jarraiki, 2005. urtea *Hezkuntzaren bidezko Herritartasunaren Europako Urtea izango zela erabaki zuen Europako Kontseiluak*. Horrez gain, Hezkuntza, Zientzia eta Kulturarako Nazio Batuen Erakundeak (UNESCO) gogoz sustatu zuen herritartasunerako hezkuntza mundu osora zabaltzeko ekimena, programa honen bidez: Giza Eskubideei buruzko Hezkuntzarako Nazio Batuen Hamarkada (1995-2004)²¹. Kontseilu Kontseilua bera ere *Herritartasun Demokratikorako Hezkuntza*²² izeneko proiektuan aritu izan da lanean.

Atal honetan, 2009-2010 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan erabilitako ezaugarrien azterketa espezifikoa aurkeztu dugu, emaitzen inguruko azalpenezko informazioa eskaintzeko asmoz. Dena den, ezinbestekoa da ohartaraztea azterketa batez ere kualitatiboa dela. Kontuan hartu behar da konpetentzia horren ebaluazioa lehen aldiz egin dela eta, beraz, ez dugula alderaketa egiteko daturik, emaitzen eboluzioa ezartzeko.

¹⁹ Hemendik aurrera GHK (gizarterako eta herritartasunerako konpetentzia).

²⁰ Europako Batzordeak 2004an egindako komunikazioa, *Gure etorkizun komuna eraikitzea. Batasun handituaren erronka politikoak eta aurrekontu-bitartekoak (2007-2013)*.

²¹ Unesco erakundearen <http://www.unesco.org/es/human-rights-education/> web-orrian adierazten dira Giza Eskubideetarako Hezkuntzaren printzipioak eta indarrean dagoen programari buruzko informazioa.

²² Europako Kontseiluak, 2004. urtean, <http://www.coe.int/t/dg4/education/edc/> web-orria abiarazi zuen, ingelesez eta frantsesez, Herritartasun Demokratikoari buruzko Hezkuntzaren Ataleko informazioa emateko.

➤ Gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren gakoak

GHKren ebaluazioa, gainerakoekin bezala, oinarrizko kompetentziaren testuinguru teorikoa oinarri gisa hartuta egin da. Testuinguru horren asmoa gaiaren egoera eguneratzea da, kaudimen zientifiko gehieneko arlo akademikoen ikerketa eta eztabaidetatik abiatuta, eta, nolabait, matrizeak eta probak egiten hasteko “zoru” bat eskaintzea. Ohikoa den moduan, GHKren testuingurua egitean ISEI-IVEIko eta Hezkuntza arloko Berrikuntzako Zuzendaritzako teknikariek parte hartu zuten.

Oinarrizko erreferentzia gisa Eurydice-k egin berri duen azterketa bat eta 2005eko Europako Parlamentuko ebazpen bat erabili ziren.

Elkarren mendekoak diren hiru ardatz nabarmentzen ditu Eurydice²³. sareak egindako azterlanak:

- kultura politikoa,
- pentsamendu kritikoa eta jarrera eta balio jakin batzuk garatzea, eta
- parte-hartze aktiboa

Lehen ardatz edo kategoriak jakintza teorikoen eskurapenaz dihardu, eremu hauetan: historia, geografia eta beste gizarte-zientzia batzuk; konstituzioaren eta oinarrizko beste arau batzuen printzipioak; antolamendu-eredu nagusiak eta sistema politikoa. Kategoría hau da ebaluatzeko errazena.

Bigarren kategoriak ikasleen parte-hartze handiagoa eskatzen du, haien iritziak eta jarrerak adierazi behar baitituzte. Gizartean herritar arduratsuen gisan eta behar besteko informazioa izanda jarduteko behar den gogoia eta jarrera lantzeko eskatzen zaie gazteei. Kasu honetan, helburuak ez dira aurrekoak bezain “neutroak”, eta, formalki definitutako kontzeptuen aldean, zailagoa da haien lorpena ebaluatzea.

Hirugarren kategoriaren baitan, ekintzak egiteko eta beren komunitateko bizitza politiko, sozial eta kulturalean gogoz parte hartzeko eskatzen zaie ikasleei. Helburuetako bat da ikasleei gizalegezko jokabideak izateko konpromisoa betetzeko aukerak ematea, bai ikasgelan egiten diren jardueretan, bai ikasgelatik kanpo egiten direnetan, eta, horrez gain, ikasleak animatzea askotariko ekimenak abiaraz ditzaten. Azken helburua da ikasleei bultzada bat ematea, aurreko bi kategorietan ikasi dutena praktikan landu dezaten. Ematen zaien informazioaren xedea da gizartean gogoz parte hartzeko duten gaitasuna ulertzea eta hobetzea, eta egiten dituzten esku-hartzeak eta elkartasun-lanak eraginkorrak izateko behar diren trebetasunak aplikatzea. Ikasleek eskuratzen dituzten balioak eta jarrerak erreferentziazko jokabide-esparru izan behar dute gizartean arduraz parte har dezaten, herritarren eskubideak eta betebeharrak aintzat hartuta.

Europako Parlamentuak ebazpen bat eman zuen 2005ean, Parlamentuak berak eta Kontseiluak etengabeko ikaskuntzarako gakoak diren kompetentziei buruzko gomendio-proposamena zehazteko. Ebazpen horrek honela deskribatu zituen “gizarterako eta herritartasunerako kompetentziak”:

“Kompetentzia horien baitan sartzen dira kompetentzia pertsonalak eta pertsonen eta kulturen artekoak, eta pertsonak gizarte-bizitzan eta bizitza profesionalean eraginkortasunez eta probetxuz parte hartzeko jokabide-moduak jorratzen dituzte; batik bat, gero eta dibertsifikatuagoak diren gizarteetan. Horrez gain, beharrezkoa izanez gero, gatazkak konpontzeko jarrerak lantzen dituzte kompetentzia horiek. Herritartasunerako kompetentziak prestakuntza jakin bat ematen die pertsonari gizarte-bizitzan partaidetza osoa izan dezaten, eta, horretarako, kontzeptu eta egitura sozial eta politikoak jakinarazten dizkiete, eta partaidetza aktibo eta demokratiko baterako konpromisoa helarazten”.

²³ Eurydice (2006): *Herritartasunerako hezkuntza Europako eskoletan*, 10-11. or.: http://www.eurydice.org/ressources/eurydice/pdf/0_integral/055ES.pdf.

Herritartasunaren alderdiak nabarmentzen ditu Eurydice sareak egindako proposamenak, baina Europako Parlamentuaren proposamenak gizarterako kompetentziak eta herritartasunerako kompetentziak elkartzeko ahalegina egiten du. Hala ere, bi proposamen horiek ez dira generikoak, eta ez datoz bat Europako hezkuntza-sistemetan indarrean diren curriculumekin. Ildo horretatik, Euskal Autonomia Erkidegoan gizarterako eta herritartasunerako kompetentziaren eduki-esparrua garatzeko garaian, ahalegin berezia egin da esparru hori bat etor dadin indarrean diren curriculumekin, haien arteko koherentzia bermatzeko.

Horrez gain, bazen beste erronka bat ere: oinarrizko kompetentziak, batez ere, arlo edo gai jakin batekin lotzen diren uste ustela haustea, hain zuzen ere (matematikarako kompetentzia izan daiteke adibiderik argiena). GHKren kasuan, lotura estuena izan dezakeen gai eta arloez gain, gizarterako eta herritartasunerako kompetentziak berekin dakar hezkuntza-jardueren multzoa (irakaskuntza- eta ikaskuntza-denbora, tutoretza, eskolaz kanpoko jarduerak, jolas-orduaren denbora, familiekin izandako harremanak eta abar), baita ikasleek inguruan dituzten esperientzia eta bizipen pertsonalak ere. Espazio eta denbora horietan guztietan ere ikasi, elkarreragin, parte hartu eta abar egiten da, eta baliabide kognitibo eta emozionalak mobilizatzen dira; horrek, aldi berean, jarrera kritikoa eta gogoetatsua ahalbidetzen du. Azken batean, ikasleek espazio eta denbora horietan azter dezakete, galderak egin, susmoak egin eta arrazoitu, inguruneari eta arazoei buruz, jatorriari eta kudeaketari buruz, eta bizi diren eguneroko errealitateari buruz.

➤ **Kompetentziaren definizioa eta dimentsioak**

GHKren testuinguru teorikoan, kompetentzia gisa hartzen da gizarteari (ikuspegi ugaritatik ulertuta) buruzko ezagutzak erabiltzeko gaitasuna, testuinguru eta eskala espazial aldakorretan fenomeno eta arazo sozialak interpretatzeko, erantzunak sortzeko eta erabakiak hartzeko, baita beste lagun eta talde batzuekin arauen arabera elkarreragiteko ere.

Zehatzago, kompetentziaren asmoa da ikasleak egungo gizartearen eta sistema demokratikoaren antolaketaz, funtzionamenduz eta eboluzioaz ezagutza zehatzak lortzea, eta haren ezaugarri eta balioen inguruko ezagutzak eskuratzea. Horrez gain, trebezia hauek guztiak eskuratzea lortu nahi da: ingurunean arazoak identifikatzeko beharrezko trebeziak, norberaren esperientziei buruz azterketa egin eta gogoeta egiteko trebeziak, informazio garrantzitsua lortu, interpretatu eta baloratzeko trebeziak eta proposamenak egiteko trebeziak, azken batean, gero eta autonomia eta erantzukizun handiagoz moldatzeko gai izan dadin. Gainera, gertaera sozialekiko espiritu kritikoa hartzea eta jarrera aktiboak hartzea ere lortu nahi da: entzutea, hitz egitea, solidaritatea, partaidetza, enpatia eta abar. Balio demokratiko eta zibikoak eskuratzea, justizia sozialarekin lotutakoak, aniztasuna errespetatzea... baita gaur egungo gizarteetako bidegabekeria, arazo eta desberdintasunetatik norbere nortasunaz kontzientzia umotzea ere.

Testuinguru teorikoak hiru dimentsio behar ditu:

Gizarte-errealitatea

Historiarekin, giza geografiarekin, ekonomiarekin, soziologiarekin eta beste gizarte-zientzia batzuekin zerikusia duten oinarrizko kontzeptuak, trebetasunak eta jarrerak bildu dira dimentsio honetan. Egungo gizartea nola sortu den, nola aldatu den eta egun zer funtzionamendu duen azaltzen dituzte horiek guztiek, eta haren arazo nagusiak eta erronka eta zailtasun batzuk ulertzen laguntzen dute. Jakin behar dugu ikasleek denboran zehar gertatutako bilakaera baten ondorio moduan ulertzen ote duten egungo gizartea, eta gai diren ala ez gizarte-esparruetako dibertsitatea hautemateko eta azaltzeko. Aztertu behar da ikaslea gai ote den nolabaiteko egokitasunez azaltzeko gizarteko alderdi ekonomikoak, lan-arlokoak, aisialdikoak, kontsumokoak, gizarte-zerbitzuetakoak eta bestelakoak.

Herritartasuna

Gizarte demokratikoetako eskubide eta betebeharrekin lotutako alderdiak biltzen ditu dimentsio honek; besteak beste, eguneroko bizitza, instantzia publikoak, parte-hartze aktiboa eta herritartasunaren egikaritzea. Ikaslearen gertuko eremuetatik (familia, lagunartea, eskola) abiatzen da dimentsioaren planteamendua, baina globalizazioaren ondorioak azalarazten dituzten testuinguru zabalagoak ere hartzen ditu. Ildo horretatik, herritartasunaren dimentsio honek bereziki erreparatzen dio giza eskubideen eta haurren eskubideen izaera unibertsalari, eskubide horien erabilera-esparru guztietan, eta, halaber, eskubide horien murrizketak edo urrapenak pairatzen dituzten pertsonen egoerari erreparatzen die.

Bizikidetza

Dimentsio honen ardatza gatazkak aztertzea da, eta bereziki bultzatzen ditu haiek ebaztearekin edo konpontzearekin lotuta alderdiak. Horrez gain, ikasleek balio-sistema bat eraikitzea eta pertsonen arteko bizikidetza antolatzen duten arauak ezagutarazi nahi ditu.

Balio etikoetan oinarritutako nortasun bat garatzea da dimentsio honen xede-indarretako bat, eta, horrez gain, ikasleek nortasun horretan oinarrituta hartzea beren erabakiak; hala, ikasleek beren gain hartuko dute beren ekintzen erantzukizuna, eta irizpide propioak izan eta autonomiaz jokatu dute gainerako pertsonekin harremanak izatean.

Dimentsioaren beste alderdi batzuk dira arauak identifikatzea eta haiek sortzeko prozesuak ulertzea, adostea eta bere egitea, gizarte-komunitatearen ongizatea hobetzeko ekarpenak egin ditzaten.

Deskribatutako hiru dimentsioak hamar azpi-konpetentzian sailkatzen dira, eta horiek dagozkien edukien inguruko azalpena biltzen dute:

1. dimentsioa: gizarte-errealitatea

1. Errealitate historikoaren bilakaera.
2. Gizartea: funtzionamendua, lorpenak eta erronkak.
3. Lana, ekonomia, produkzioa eta kontsumoa.
4. Informazioa eta komunikazioa.

2. dimentsioa: herritartasuna

5. Gizarte demokratikoaren oinarriak eta antolamendua.
6. Herritartasunaren egikaritze edo erabilera arduratsua.
7. Giza eskubideak eta mundu-herritartasuna.

3. dimentsioa: bizikidetza

8. Gatazkak ebatzi edo konpontzea.
9. Norberaren nortasuna eta jarrera etikoa.
10. Bizikidetzaren arautze edo antolamendua.

Egitura hori komuna da ebaluatutako bietan: LHko 4. maila eta DBHko 2. maila. Horietako bakoitza azpi-konpetentzia bakoitzeko ebaluazio-adierazleetan zehazten da, eta azpi-konpetentzia bakoitza, aldi berean, hiru zailtasun mailatan sailkatuta dago.

➤ Zer ebaluatu da 2010eko gizarterako eta herritartasunerako kompetentzian?

Lehen aipatu dugun moduan, ebaluazioan LHko 4. mailako eta DBHko 2. mailako ikasleei aplikatutako proba espezifikokoak zeuden. Lehen Hezkuntzan 22 item erabili ziren, eta DBH mailan 40 itemeko koaderno bat. Luzera desberdineko probak dira, beraz, eta izaera desberdineko egoerak ebazteko ikasleek erabiltzen dituzten trebezia, ezagutza eta jarrerak baloratzeko aukera eman dute.

Izan ere, itemak hainbat egoera-problemaren inguruan multzokatu dira, hori da Euskadin aplikatzen den ebaluazio diagnostikoaren eredua (sei egoera-problema Lehen Hezkuntzan, eta hamabi, DBHn).

Ohikoa da ebaluazio mota honetako emaitzen azterketek oinarri gisa *gaiak* hartzea eta, datuetatik abiatuta, indarguneak eta ahuluneak zein diren ondorioztatzea. Azterketa egiteko modu horrek ahulune garbia du, ez baitu kontuan hartzen item bakoitzaren zailtasun maila. Esate baterako, udaletxe batek ematen dituen zerbitzuen identifikazioa planteatzen duen egoera batean, oso item erraza topa dezakegu, eta era berean, zailagoa den beste bat. Izan ere, gai batek beste batekiko izan dezakeen berezko zailtasunarekin batera (ikasleen esperientzia-eremuarekiko hurbiltasun edo urruntasunaren arabera, esaterako), gaitasun eta trebezia batzuek beste batzuekiko izan dezaketen zailtasuna hartu behar da kontuan. Horrekin lotuta, gertakari bat *ezagutzea* edo *identifikatzea*, edo deskribatutako fenomenoren baten inguruko *adibide bat jartzea* errazagoa izaten da *ondorio bat ateratzea*, *loturak egitea* edo *balorazioa ematea* baino.

Gainera, badira emaitzen interpretazioan eragiten duten beste faktore batzuk ere. Aurrerago landuko dugu probako hizkuntzaren gaia, GHKren ebaluazioan errendimenduan eragin garrantzitsua izan baitu.

DBHko 2. mailan Lehen Hezkuntzako 4. mailan baino egoera konplexuagoak izateaz gain, gehiago ziren, beraz, azterketa aberatsagoa egin daiteke. Hauek izan ziren egoerak, batzuk multzokatuta, oro har adierazita:

- ◆ Gizon-emakumeen berdintasuna lan-eremuan.
- ◆ Arrazakeria, txirotasun, jatorri etorkin eta abarregatikiko bazterkeria.
- ◆ Bazterkeria-, marjinazio- edo bidegabekeria-egoerekiko solidaritatea.
- ◆ Desberdinekiko aurreiritziak.
- ◆ Ikastetxean gatazkak konpontzea: “bullying” edo jazarpen kasuak.
- ◆ Nazioarteko gatazka garaikideen azterketa: kausak.
- ◆ Haurren eskubideak.
- ◆ Gizarte eta gobernu demokratikoen ezaugarriak.
- ◆ Arauak eta eskolan parte hartzea.
- ◆ Kontsumitzaileen eskubideak: Iruzurrezko publizitatea edo publizitate sexista.
- ◆ Pertsonalitate eta jokabide koherentea.

Lehen Hezkuntzan bezala, hezkuntzako profesional talde heterogeneo batek, esperientzia zabalarekin, GHKren hasierako maila, maila ertaina eta maila aurreratua mugatzeko “ebaketa-puntuak” ezarri zituen, DBHko 2. mailako proba egiteko erabilitako berrogei itemen emaitzak aztertu ondoren.

DBHko 2. mailako proban item kopuru handiagoa izan denez, kompetentzia mailak zabalago deskriba daitezke eta deskribapen aberatsagoa egin daiteke.

Jarraian, DBHko 2. mailako hiru dimentsioetako emaitzen balorazio kualitatiboa egin dugu:

- Oro har, ikasleek kompetentzia maila handiena erakutsi duten dimentsioa *Gizarte-errealitatea* izan da; bigarrenik, *Bizikidetz*a dimentsioa, eta azkenik, *Herritartasuna* dimentsioan izan da

kompetentzia maila baxuena. Dena den, *Bizikidetza* eta *Herritartasuna* dimentsioen arteko aldea oso txikia da.

- *Gizarte-errealitatea* dimentsioaren barruan, indarguneak adieraziko ditugu, hau da, ikasleek kompetentzia maila handiena agertu duten arloak. Horrez gain, ahuluneak ere aintzat hartuko ditugu, hau da, ikasle kopuru baxuak soilik lortu duenean kompetentzia maila ona:
 - Denbora-grafikoetan gertakariak ordenatzea, erlijio garrantzitsuenetako zeinuak identifikatzea, kartografikoki adierazitako gertakari politikoak interpretatzea, askotariko iturrietatik immigrazio-fenomenoa aztertzea, emakumeen lan-bazterkeriaren kausak identifikatzea eta eduki sexistak izan ditzakeen publizitatea aztertzea.
 - Neurri txikiagoan, ikasleak gai dira kontsumoarekin lotutako problema baten kausa adierazteko, kontsumitzaileen eskubideak onartzeko eta kexa bat konpontzeko erreklamazio-mekanismoak identifikatzeko; baita enpresetako zuzendaritza-karguetan emakumeen presentzia urria baloratzeko ere.
 - Eta dimentsioaren ahulune gisa, lan-esparruan gizon-emakumeen arteko berdintasunerako eskubidea onartzea aipa daiteke.
- *Bizikidetza* dimentsioari dagokionez, ondorio hauek nabarmen ditzakegu:
 - Dimentsioan gehien nabarmendutako indarguneak hauek dira: problema baten aurrean alderdi guztientzat irtenbide positiboak proposatzeko ikasleek duten gaitasuna, eskola-jazarpeneko egoerak deskribatzeko gai izatea, protagonistak identifikatuz eta irtenbide posibleak emanez, biktima babesteko aldeko jarrera hartzea, jokabide negatiboa gaitzetsiz, elkarrikeria eta asertibitatea baloratzeko arauak hausten dituzten pertsonak zuzentzeko, xenofobia-kasuetan jarrera positiboak ezagutzeko eta jokabide koherentearen berezko ezaugarriak identifikatzeko.
 - Ikasle kopuru txikiago bat gai da aurreiritzietan oinarritutako argumentuetatik kultura desberdineko pertsonekin bizikidetzaren alde egiten duten argumentuak bereizteko, baita eguneroko hizkeran jarrera xenofoboak detektatzeko, eguneroko bizitzan jokabide mota desberdinak sailkatzeko edo eskola-jazarpeneko problema baten ondorioak ondorioztatzeko ere.
 - Ebaluatutako ikasleen ehuneko txikia da gai gure gizartean txiroen bazterkeria saihesteko proposamenak egiteko, nazioarteko gatazka batzuetan esku hartzen duten faktoreak interpretatzeko edo gatazken aurreko jarrera konstruktiboa baloratzeko.
- *Herritartasuna* dimentsioaren esparruan, ikasleen kompetentzian ere maila desberdina ikus daiteke:
 - Indargune gisa hauek identifikatu dira: GKE edo gizarte-mugimendu baten helburua interpretatzeko kompetentzia, jarrera arrazistak aurreiritzien existentziarekin lotzeko, adin txikikoek dituzten oinarrizko eskubide batzuk ezagutzeko, ingurunean solidaritate-falta modu kritikoan baloratzeko eta sistema demokratiko batean alderdi politikoen aniztasunaren oinarria azaltzeko.
 - Neurri txikiagoan, DBHko 2. mailako ikasleek ikasgelako ordezkari batek izan behar dituen ezaugarriak bereizten dituzte, haurtzaroko arazoak konpontzen lagun dezaketen proposamenak egiteko gai dira, eskola-esparruan partaidetza ahalbidetzen duten ekintzak identifikatzen dituzte, hauteskunde libreak egitea sistema demokratiko bateko oinarrizko ezaugarri gisa identifikatzen dute, erakunde ugari egotea (sindikatuak, elkarteak eta abar) ideia- eta interes-aniztasunarekin lotzen dute eta, gainera, gizarte demokratiko batean komunikabide ugari egotea ideia-aniztasunarekin lotzen dute.
 - Azkenik, ikasleen ehuneko txiki bat gai da hauteskunde-propaganda interpretatzeko, mezua eta igorlea identifikatuz.

